



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko azaroaren 24a

139. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—2015eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina
(2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2015eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2015eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157.2 artikuluekin bat, honako hau ERABAKIDA:

1. 2015eko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2015eko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Iritzia (5. or.).

II.1. 2015eko kontu orokorrei buruzko auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (8. or.).

III. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorren laburpena, 2015eko ekitaldia (9. or.).

III.1. 2015eko aurrekontuaren likidazioa (9. or.).

III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta (10. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (10. or.).

III.4. Egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n (11. or.).

III.5. 2015eko emaitzen kontua (13. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (15. or.).

IV.1. Foru sektore publikoaren zedarritzea 2015ean (15. or.).

IV.2. Nafarroako 2015ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak (18. or.).

IV.3. Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoera (21. or.).

IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraukortasunaren printzipioak (26. or.).

IV.5. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (32 or.).

IV.6. Nafarroako Gobernuaren zorpetzea eta 2015eko abenduaren 31n eraturako abalak (33. or.).

IV.7. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa (38. or.).

IV.8. Langile-gastuak (45. or.).

IV.9. Zergen bidezko diru-sarrerak (52. or.).

IV.10. Zordunak (58. or.).

IV.11. Bestelako kudeaketa-arloak (62. or.).

IV.12. Sozietate publikoak eta CPEN enpresataldea (68. or.).

IV.13. Fundazio publikoak (74. or.).

2015eko Kontu Orokorren Oroitidazkiaren laburpena.

(Oharra: Aipaturako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek dira kontu horien funtsezko osagaiak: data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta oroitidazkia. Urteko kontu horiek Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren arabera egin dira, funtsean.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioa planifikatu eta egin dugu, honako honi buruzko iritzia eman ahal izateko: ea Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko kontu orokorretan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Gobernuari 2015ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Nafarroako Gobernuaren 2014ko abenduaren 29ko Erabakia, 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 2015eko ekitaldirako luzatzeko exekuzio arauak ematen dituena.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 64/2015 Foru Agindua, azaroaren 11koa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, 2015eko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek eta Balantze Kontuak ixteko, likidatzeko eta 2016ko ekitaldia irekitzeko arauak onesten dituena.
- Indarra duen araudi sektoriala.

Komeni da zehaztea, aldez aurretik, Nafarroako Gobernuaren 2015eko aurrekontu orokorrak 2012ko aurrekontuen luzapena direla.

Hona hemen, laburbilduta, Nafarroako Foru Sektore Publikoaren gaineko ekonomia- eta aurrekontu-informazio nagusia, 2015eko ekitaldiaren itxieran:

- Gobernuak eta haren erakunde autonomoek 3.913,96 milioiko aurrekontu-gastua egin dute, eta aurrekontuko 3.876,56 milioiko diru-sarrerak aitortu dituzte.
- Parlamentu-erakundeek aurrekontuko 16,02 milioiko diru-sarrerak lortu dituzte, 13,99 milioiko gastuak egin dituzte eta Foru Ogasunari guztira 2,23 milioi itzuli dizkiote.
- Honako hau izan da enpresa publikoen emaitza ekonomiko metatua: 59,9 milioiko galerak.
- Fundazio publikoek ekitaldian 1,02 milioiko soberakin negatiboa izan dute.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezkotasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Nafarroako 2015eko ekitaldiko kontu orokorrei dagokienez; hirugarren atalean kontabilitateko egoera-orri nagusiak laburbiltzen dira. Laugarren atalean, azkenik, zenbait ondorio edo ohar jaso ditugu –emandako iritziari eragiten ez diotenak–, honako hauek direla-eta: Foru Sektore Publikoaren osaera, 2015eko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendio nagusien jarraipena, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa, beste kudeaketa arlo garrantzitsu batzuk, eta enpresen eta fundazioen sektore publikoa.

Txostenarekin batera, Nafarroako 2015eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egindako oroitidazkiaren laburpena ageri da. Haren testu osoa hemen ikus daiteke:

http://www.navarra.es/Presupuestos/Cuentas_Generales_de_Navarra/Cuentas_Generales_de_Navarra_del_año_2015

Gure lanean, kontuan hartu ditugu Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuak egindako txostenak.

Gainera, foru sektore publikoa osatzen duten beste sektoreetarako, honako hauek hartu dira kontuan:

- Nafarroako Parlamentuaren 2015eko kontu orokorrak, Nafarroako Arartekoarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak Kontuen Ganbera honek aztertu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2015eko kontu orokorrak auditoriako enpresa batek aztertu ditu.
- Sozietate eta fundazio publikoen urteko kontuei auditoria egiten diete auditoriako enpresek.

Aipatutako txosten multzo horretatik haien iritzi profesionala eta ondorio nagusiak atera ditugu.

Halaber, Kontuen Ganberak egindako txosten hauek hartu ditugu kontuan:

- Foru Ogasunak izan duen jardunbidea Club Atlético Osasuna eta bere zorraren berregitura-zea onesten duen 26/2014 Foru Legearen aplikazioa direla-eta.
- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publikoen langileengan duen eragina, 2012-2015 bitarteko ekitaldiak.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategiak bateratzea.
- Informatikaren kontratazioa eta kudeaketa Foru Administrazioan, 2011-2015 bitarteko ekitaldiak.
- Miguel Induráin Fundazioari emandako diru-laguntzak, 2005-2015 bitarteko ekitaldiak.
- Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioa, 2009-2015 bitarteko ekitaldiak.

Azterketa lana 2015eko maiatzetik irailera bitartean egin du auditoriako bost teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzara ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak egungo Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015eko lehen seihilekoan kargu horretan aritutakoari ere, egokitzat jotzen zituzten alegazioak egin zitzaizkion, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde autonomoetako eta haren sozietate publiko eta fundazio publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Nafarroako 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditugu. Haien kontabilitateko egoera-orriak modu laburtuan jaso ditugu txosten honen III. atalean; Nafarroako Gobernuaren oroitzakia, berriz, osorik erantsi dugu.

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua da kontu orokorrak formulatzeko eta aurkezteko ardura duena, eta halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

Nafarroako 2015eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainaren 29ko erabakiaren bitartez onetsi zuen, eta Nafarroako Parlamentura igorri zuen. Parlamentuak, Mahaiaren irailaren 5eko erabakiaren bidez, Kontuen Ganberara igorri zuen.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorretan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2015eko kontu orokorrei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezketasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriako eta legezketasunaren betetzearen fiskalizazioko gure iritzi aldatuari eusteko.

II.1. 2015eko KONTU OROKORREI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin

a) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik "Ibilgetu materialen" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 2.182,80 milioi eurokoa zen 2015eko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

b) Balantzean ez dira erregistratu Foru Komunitateko Administrazioaren langile funtzionario jardunekoaren eta pasiboan montepioek sortutako betebeharrak aktuarialak, eta memorian ere ez dago horiei buruzko informaziorik. Egindako azterlan eta zenbatespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2016-2087 aldirako kostua 2.150 milioi euro konstante ingurukoa izanen da.

Auditoria finantzarioko iritzia

Gure iritzian, "Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadako a) letran azaldutako norainokoaren mugaketaren balizko eraginengatik eta b) letran azaldutako egitatearen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrekin irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoie dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Azpinarra-lerrokada

Azpinarra jarri nahi diegu kontu orokorrean dagoen informazioan ageri diren edo hartatik ondorioztatzen diren alderdi hauei, Kontuen Ganbarak interesgarritzat jotzen baitu berak nabarmen-tzea, gure auditoria lana hobeki uler dadin:

- 2015eko aurrekontua 2012ko aurrekontuaren luzapenaren emaitza da. Egungo egoera ekonomikoan, aurrekontua hiru ekitalditan jarraian luzatzeak Nafarroako Gobernuaren jardueraren plangintza ekonomiko-finantzario egokia zailtzen du.

- Aurrekontu-emaitza ez-finantzarioa negatiboa izan da, minus 163,22 milioikoa, eta haren saldo negatiboa ehuneko 57 handitu da aurreko aurrekontukoaren aldean.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren zenbateko negatiboak nabarmen egin du gora 2015ean; izan ere 184,1 milioitik 238,1 milioira igo da, hots, magnitude horren balio negatiboari 54 milioi gehitu zaizkio. Egoera horrek epe laburrean likidezia- eta kaudimen-tentsioak eragin ditzake Foru Ogasunean, eta beraren adierazgarri da diruzaintzako funts likidoen 104 milioiko beherakada, besteak beste.

- Balantzeko funts publikoen azterketan ondare-masa horren desoreka nabarmena ikusi da, haren balio negatiboa ia 150 milioi handitu baita; horrenbestez 2015ean 247,82 milioiko zenbateko negatibora iritsi da. Desoreka horren jatorrian daude ekitaldiko emaitza negatiboak eta aurreko ekitaldietakoak, ondare-kontuarekin konpentsatzen ez direnak.

- Nafarroako Gobernuaren finantza-zorra 2015eko abenduaren 31n 2.898,8 milioikoa zen: 2.549 milioi epe luzera eta 349,8 milioi epe laburrera. Zenbateko horrek ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 88 egiten du, eta 2014ko zenbatekoa baino ehuneko bost handiagoa da, hau da, 139 milioi gehiagokoa.

- Tributuen diru-bilketa likidua 2015ean 3.205,4 milioikoa izan da, aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 6,4 handiagoa, eta Nafarroako BPGaren ehuneko 17,57 egin du.

- Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren ondorioetarako eta kontabilitate nazionalari dagokionez, 269,9 milioiko defizita edo finantzaketa-beharrak lortu du –2014an baino 120,4 milioi gehiagokoa–, eta, gehiegizko defizi-

tari buruzko protokoloaren arabera, 3.322 milioiko zorpetze bolumena –hau da, 2014an baino 125 milioi gehiagokoa–.

Laburbilduz, Nafarroako Gobernuaren finantza-egoeraren ezaugarria da oraindik ere kanpoko finantzaketara jo behar izatea bere gastu arruntak estaltzeko eta lehengo finantza-pasiboen mugaeguneratzeei aurre egiteko; zorpetze handiago hori bere ondoriozko finantza-zama finantzatzeko erabiltzen diren baliabideen gehikuntzak eragiten du.

Bestalde, diruzaintzako gerakinaren desoreka garrantzitsua dago oraindik, eta horrek esan nahi du 2015ean sortutako gastuak 2016ko baliabideekin finantzatu behar direla; egoera horrek eragina izan dezake epe laburreko kaudimenean eta likidezian, eta, gainera, egungo araudiak ez du aurreikusten gerakin negatibodun egoera horiek konpontzeko legezko mekanismorik.

Kontuen Ganberak aurreko txostenetan azpimarratu izan duenez, Nafarroako Gobernuaren egoera ekonomiko-finantzarioak eskatzen du, beraz, haren gastuak eta diru-sarrerak sistematikoki berrikustea eta haren helburuak berriz definitzea, oraingo ingurune ekonomiko-sozialari aurre egiteko lehentasunezko kudeaketa arloak identifikatze aldera.

Testuinguru horretan hausnarketa bati ekin behar zaio, ea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean araututako aurrekontu-esparrua egokia ote den aurrekontu-egonkortasunari buruzko Europako eta Estatuko araudiaren ondoriozko eskakizunetarako. Ildo horretan, komenigarria litzateke aztertzea oraingo kudeaketa eta kontrol ereduak eta aurrekontuaren zein kontu orokorren edukia bera egokiak ote diren eskakizun horietarako.

Beste gai garrantzitsu batzuei buruzko lerrokada

2016ko otsailaren 3an, Auzitegi Gorenaren dekretu batek amaitutzat eman zuen Estatuko Abokatutzak jarritako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroan fabrikatutako ibilgailuak merkaturatzen dituen sozietate batek jasandako 1.514 milioiko BEZaren itzulketari buruzko eskumen-gatazka zela-eta. Autoak behin-behinean artxibatuta zeuden, eta dekretu haren bidez behin betiko artxibatu ziren.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Betetzeari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoari eta Estatuarekin egindako itunei dagokienez, Nafarroako Gobernuak ez ditu bete, 2015ean, aurrekontu-egonkortasunari buruzko arau fiskalak. Hala:

a) 2015eko finantzaketa-beharrak, Nafarroako Gobernuak kalkulatuak, Nafarroako¹ BPGaren ehuneko 1,48 izan dira, Estatuarekin itundutako ehuneko 0,7a gainditzen duen portzentajea, honako taula honetan ageri den bezala:

2015eko finantzaketa-beharrak Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea	BPGaren ehunekoa	Zenbatekoa (milioitan)
Itundutako helburua	0.7	128,26
Betetako helburua	1,48	269,90

b) Gastuaren araua. Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak² emandako txostenaren arabera, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2.691 milioiko gastu konputagarria egin du 2015eko ekitaldirako. Horrenbestez ehuneko 2,7ko gehikuntza izan da aurreko ekitaldiaren aldean; beraz, Espainiako ekonomiaren BPGaren epe ertaineko hazkundearen erreferentziako tasa baino handiagoa, 2015eko ekitaldirako ehuneko 1,3ko tasa kalkulatu baita. Ondorioz, ez da bete 2015erako gastu-araua, gastu konputagarriak 37 milioiko soberakina izan baitu.

Nafarroako Gobernuaren 2015eko kontu orokorrek ekitaldiko finantzaketa-beharrez bakarrik informatzen dute; ez dakarte aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko gaineko printzipioen gaineko erreferentziarik.

Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia

Gure ustez, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" izenburuko lerrokadan azaldu diren ez-betetzeak izan ezik, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2015eko ekitaldiko kontu orokorretan jasotako jarduerak, aurrekontu-eragiketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

¹ Nafarroako BPGa 2015ean, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera eta behin-behinean, 18.246 milioi eurokoa da.

² Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren txostena: "Noraino bete diren aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoa eta 2015eko ekitaldiko gastu-araua (2016ko urriaren 14a)"

III. FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTU OROKORRAREN LABURPENA, 2015EKO EKITALDIA

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2015eko urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenen laburpena aurkezten dugu.

III.1. 2015eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2015eko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Bateratua	Baimendua	Erabilia	Gauzatua	Ehunekoa	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.109.511	1.139.353	1.138.468	1.138.413	1.138.413	100	1.138.152
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	571.579	576.368	566.603	564.143	562.426	98	503.517
Finantza-gastuak	121.583	109.266	108.513	108.513	108.513	99	108.494
Transferentzia arruntak	1.334.559	1.479.211	1.476.159	1.473.758	1.471.108	99	1.422.626
Osoko kreditua	45.908	0	0	0	0	0	0
Inbertsio errealak	131.499	95.800	93.625	93.533	91.861	96	71.548
Kapital-transferentziak	143.672	137.270	124.622	122.759	117.417	86	67.235
Finantza-aktiboak	61.561	120.539	116.996	116.996	116.996	97	112.996
Finantza-pasiboak	317.844	307.228	307.228	307.228	307.228	100	307.228
Guztira	3.837.717	3.965.036	3.932.213	3.925.344	3.913.963	99	3.731.797

2015eko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	Ehunekoa	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.470.772	1.498.549	1.467.772	98	1.460.388
Zeharkako zergak	1.631.715	1.636.357	1.641.986	100	1.629.689
Tasak, prezio publikoak eta beste-lakoak	109.719	116.807	125.151	107	86.923
Transferentzia arruntak	43.302	47.624	36.931	78	36.954
Ondare bidezko diru-sarrerak	7.391	7.652	11.607	152	4.710
Inbertsio errealen besterentzea	1.810	1.849	1.391	75	361
Kapital-transferentziak	45.456	46.298	41.684	90	11.684
Finantza-aktiboak	62.776	144.225	103.107	72	100.836
Finantza-pasiboak	464.775	465.678	446.936	96	446.936
Guztira	3.837.717	3.965.036	3.876.565	98	3.778.480

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Eskubide aitortuak	Betebehar aitortuak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.283.447	3.280.461	2.987
2. Kapital-eragiketak	43.074	209.278	-166.204
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	103.107	116.996	-13.889
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza	3.429.629	3.606.735	-177.106
II. Finantza-pasiboen alde garbia	446.936	307.228	139.708
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa			-37.399
4. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako betebehar aitortuak			13.991
5. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			5.850
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			-5.508
V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)			-23.066

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

(Eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
+ Kobratzeko dauden eskubideak	263.631.427
Diru-sarreren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	769.527.685
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-491.941.519
Aplikatzeakoak diren kontusailengatiko gutxiagotzea	-2.742.670
Aplikatzeakoak diren kontusailengatiko gutxiagotzea (hirugarrenen kontabilitate laguntzailea)	-29.797.053
Diru-sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	3.623.516.
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-2.634.632.
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	17.819.176
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-223.076
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	-508.894.317
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-469.741.141
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-6.371.566
Aurrekontuz kanpoko gastuak	-32.781.610
+ Funts likidoak	61.971.413
Diruzaintza-gerakina, guztira	-183.291.476
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	52.425.428
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	2.382.711
Atxikitako diruzaintza-gerakina	54.808.139
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-238.099.616

III.4. EGOERA-BALANTZEA 2015EKO ABENDUAREN 31N

(Eurotan)		
AKTIBOA	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
A) Ibilgetua	2.775.979.301	2.697.387.829
III. Ibilgetu materialak	2.182.799.050	2.107.553.379
1. Lursailak eta eraikinak	1.467.314.609	1.431.369.914
2. Instalazio teknikoak eta makineria	68.400.430	66.726.158
3. Tresneria eta altzariak	301.319.987	364.228.749
4. Bestelako ibilgetua	345.764.025	245.228.558
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	593.180.251	589.834.451
1. Epe luzerako baloreen zorroa	523.999.407	504.328.407
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	70.137.762	86.364.102
4. (Hornidurak)	-956.918	-858.059
C) Aktibo zirkulatzailea	426.861.386	512.852.158
I. Izakinak	15.250.866	8.924.843
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	15.250.866	8.924.843
II. Zordunak	349.621.837	338.194.678
1. Aurrekontu-zordunak	837.496.185	834.530.699
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	5.982.832	17.053.338
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak adminis- tratzeagatiko zordunak	310.680	82.324
5. Bestelako zordunak	4.000.867	15.178.489
6. (Hornidurak)	-498.168.727	-528.650.172
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	17.269	17.269
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	17.269	17.269
IV. Diruzaintza	61.971.413	165.715.367
Aktiboa, guztira (A+C)	3.202.840.688	3.210.239.988

(Eurotan)

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
A) Funts berekiak	-247.816.537	-97.860.167
I. Ondarea	-9.552.006	246.543.170
1. Ondarea	-9.552.006	246.543.170
III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	-88.358.161	-256.095.176
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	-88.358.161	-256.095.176
IV. Ekitaldiko emaitzak	-149.906.370	-88.308.161
C) Epe luzeko hartzekodunak	2.560.358.266	2.447.634.157
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.471.492.195	1.759.500.149
1. Obligazioak eta bonuak	1.471.492.195	1.759.500.149
II. Epe luzeko bestelako zorrak	1.088.866.071	688.134.008
2. Bestelako zorrak	1.088.414.048	687.664.600
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	452.023	469.408
D) Epe laburreko hartzekodunak	890.298.959	860.465.998
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	349.830.439	312.449.251
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	337.728.319	304.295.838
2. 520. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	12.102.120	8.153.412
III. Hartzekodunak	540.468.520	548.016.747
1. Aurrekontuko hartzekodunak	484.349.993	490.572.877
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazioagatik hartzekodunak	9.221.423	8.529.806
4. Administrazio publikoak	3.023.742	2.862.132
5. Bestelako hartzekodunak	40.543.023	42.849.881
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	3.330.339	3.202.050
Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)	3.202.840.688	3.210.239.988

III.5. 2015eko EMAITZEN KONTUA

(Eurotan)

Zor	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	247.074.642	229.744.071
b) Ekitaldiko kontsumoak	247.074.642	229.744.071
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.528.109.374	1.498.671.580
a) Langile-gastuak.	1.056.063.420	1.032.977.096
a.1) Soldatak eta ordainsariak	893.838.026	874.215.028
a.2) Gizarte-zamak	162.225.394	158.762.068
b) Gizarte-prestazioak	82.591.403	78.959.114
d) Trafiko horniduretako aldeak	-30.481.445	32.636.822
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	-30.481.445	32.636.822
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	311.750.745	309.470.188
e.1) Kanpoko zerbitzuak	309.606.215	307.481.325
e.2) Tributuak	46.611	47.980
2.3) Askotariko gastuak	2.097.919	1.988.864
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	108.086.390	115.237.099
f.1) Zorreatatik	108.086.390	115.162.697
f.2) Finantza-inbertsioen ondoriozko galerengatik (gerakinaren kostu efektiboak)	0	74.402
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	98.339	-70.656.720
4. Transferentziak eta diru-laguntzak	1.588.472.931	1.510.607.103
a) Transferentzia arruntak	1.471.055.589	1.386.823.137
c) Kapital-transferentziak	117.417.341	123.783.966
5. Ezohiko galerak eta gastuak	103.388.926	72.785.293
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0	57.243
c) Aparteko gastuak	50.241.371	48.884.129
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	53.147.555	23.843.921
Saldo hartzekoduna (urrezkia)		
Zorra, guztira	3.467.045.873	3.311.808.046

(Eurotan)		
Hartzeko	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak	3.138.435.748	3.044.641.229
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	3.121.188.269	3.028.665.258
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.113.962.028	1.102.787.975
a.2) Sozietateen gaineko zerga	213.556.532	207.896.688
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	58.086.629	53.050.496
a.4) Ondarearen gaineko zerga	44.741.032	48.626.830
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	37.405.785	15.613.999
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	48.329.767	43.476.954
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.184.256.852	1.111.942.471
a.11) Zerga bereziak	409.399.347	431.087.136
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	19.755	0
a.15) Zerbitzuak emateko tasak	11.430.541	14.182.709
b) Kotizazio sozialak	2.405.916	2.722.245
c) Zerbitzu-emateak.	14.841.563	13.253.726
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	14.841.563	13.253.726
2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	108.622.530	127.676.667
a) Diru-itzultzeak	7.793.182	27.173.525
c) Salmentak eta zerbitzu-emateak	40.280.194	35.914.974
c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	39.033.096	44.173.738
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	39.033.096	44.173.738
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	21.515.878	20.414.430
f.1) Beste interes batzuk	21.515.878	20.414.430
3. Transferentziak eta diru-laguntzak	48.614.883	44.429.734
a) Transferentzia arruntak	36.931.359	32.434.907
b) Kapital-transferentziak	11.683.523	11.994.827
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	21.466.342	6.752.255
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	78.631	434.576
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	66.598	1.897
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	21.321.113	6.315.782
Saldo zorduna (desaurrezkia)	149.906.370	88.308.161
Hartzekoa, guztira	3.467.045.873	3.311.808.046

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar, iruzkin eta gomendio batzuk gehitu ditugu, azaldutako iritzian eraginik ez dutenak, bai eta Ganbera honen ustez txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Atal honetan, gainera, txosteneko salbuespenei buruzko informazio gehigarria jaso dugu.

IV.1. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA 2015ean

Atal honetan foru sektore publikoaren zedarritzea ageri da, 2015ekoa, bi aldetatik:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- Aurrekontu-egonkortasunari eta kontabilitate nazionalari buruzko arauen arabera.

IV.1.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera

Honako hauek dira foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- Foru Komunitateko Administrazioa eta hari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek sortutako fundazio publikoak, eta pribatuak izanik geroago publikotzat hartzeko betekizunak biltzen dituztenak (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 125. artikulua).

Nafarroako Parlamenturako 2015eko maiatzeko hauteskundeetako emaitzaren eta Nafarroako Gobernu berria eratzearen ondorioz, aldatu egin da Foru Administrazioaren egitura, departamentuek eta erakunde autonomoek osatua. Horrenbestez, 2015ean Gobernuaren egiturak bi taxuera izan ditu:

a) 2015eko ekainera arte

Departamentuak	Erakunde autonomoak
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	Nafarroako Larrialdietako Agentzia
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua	Nafarroako Enplegu Zerbitzua Nafarroako Zerga Ogasuna
Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak	
Hezkuntza	Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
Osasuna	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
Gizarte Politikak	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua Nafarroako Mendekotasun Agentzia
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	
Sustapena	

b) 2015eko uztailetik aurrera

Departamentuak	Erakunde autonomoak
Garapen Ekonomikoa	
Eskubide Sozialak	Nafarroako Enplegu Zerbitzua Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia
Ogasuna eta Finantza Politika	Nafarroako Zerga Ogasuna
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	Nafarroako Berdintasunerako Institutua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
Hezkuntza	
Osasuna	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
Kultura, Kirola eta Gazteria	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	

Ikusten denez, eskumen-esparrua birdoitzeaz gain, departamentuen kopurua handitu egin da, departamentu bat sortuz, eta erakunde autonomoen kopurua, berriz, murriztu egin da, bat kenduz (Nafarroako Larrialdietako Agentzia ezabatu da).

Enpresa publikoak 16 dira, tartean Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP). Aurreko ekitaldiko kopuru bera da, eta zuzenean NEKPren menpekoak diren 11 sozietateren eta korporazio horrek zeharkako partaidetza eta gehiengoa duen lau sozietateren artean banatzen da. Hurrengo taulan ikus daiteke osaera hori.

Enpresa publikoa	NEKPren part. (%)	Jarduera ekonomikoa
Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU		Sozietate nagusia, zeinean Nafarroako Gobernuak % 100eko partaidetza baitu
A) Zuzenean NEKPren menpekoak		
Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SI (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	100	Tokiko azpiegiturak
Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, aisiakoak eta kirolekoak
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	100	Ogasuna eta ondarea
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	100	Ekonomiaren sustapena eta finantzaketa
A) Zeharka NEKPren menpekoak		
Start Up Capital Navarra SA	59,36	Enpresak sustatzea eta bultzatzea
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta haren eratorriak ekoiztea, lantzea eta merkaturatzea
Potasas de Subiza SA (POSUSA)	100	Ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea
Natural Climate Systems SA (MIYABI)	100	Higiezinak sustatzea efizientzia energetikoaren irizpideen arabera

Gainera, Ganbera honen iritziz, Parque de la Naturaleza de Navarra, SA (Parquenasas)³ sozietateak Ondareari buruzko Foru Legean enpresa publikotzat hartzeko ezartzen diren baldintzak betetzen ditu (ikus txosten honetako IV.12 epigrafea).

Zehaztu beharra dago ezen NEKParen bidez finkatutako taldea, merkataritzako legediaren eraginetarako, osatzen dutela, batetik, berez publikoak diren enpresek eta, bestetik, enpresa pribatuek, zeinaren gainean enpresa nagusiak influentzia gradu desberdinak baitaizka (ikus txosten honetako IV.12 epigrafea).

Fundazio publikoei dagokienez, 2015eko abenduaren 31n lau ziren:

Fundazio publikoak	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea (*)
Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Pertsona Zaharren Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza

(*) Laster Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kudeaketa ere hartuko du bere gain

Aurreko ekitaldikoaren aldean, hiru gutxiago dira:

- Nafarroako Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Institutua 2014ko ekainean azkendu zen.
- Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioak kudeaketa pribatua du 2014ko azarotik.
- Energia Berriztagarrien arloko Prestakuntzarako Fundazioa 2015eko ekainean azkendu zen.

Bestalde, Ganbera honen iritziz, Miguel Induráin Fundazioak fundazio publikoa izateko baldintzak betetzen ditu, zeren eta, besteak beste, Nafarroako Gobernuak sortu baitzuen, haren jardueren finantzaketa neurri handi batean diru-laguntza publikoen mende baitago eta haren kudeaketa- eta zuzendaritza-organoen kontrol efektiboa Gobernuaren beraren ordezkarietara baita-gokie.

IV.1.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera.

Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorearen mugatzea edo finkapen fiskalaren perimetroa erabakigarria da Nafarroako Gobernuak 2015eko ekitaldirako bereganatutako defizitaren eszenatokien betetzea egiaztatzeko; hain zuzen ere, azken hori Espainiako administrazio publikoen multzoan aurrekontu-egonkortasunaren baldintzen betetzea bermatzeko helburuaren barnean dago. Hori guztia kontabilitate nazionalako terminoetan neurtuta (SEC'2010).

Zehazki, 2015erako, honako hauek hartzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoretzat kontabilitate nazionalaren eraginetarako:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Foru Komunitateko sozietate publikoak, gehien bat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen dituztenak edo ondasunak sortzen dituztenak. Zehazki, 2015erako, honako 11 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikotzat: Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP); Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas; Centro Europeo de Empresa e Innovación, SL; Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL; Gestión Ambiental de Navarra, SA; Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA;

³ Senda Viva aisia-parkearen jabea den sozietatea.

Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, SL; Navarra de Servicios y Tecnologías, SA; Sodena; Tracasa eta Start Up.

• Foru Komunitateko zazpi fundazio publiko eta pribatu hauek jotzen dira administrazio publikotzat:

- a) Berez publikoak diren lau fundazioak, aurreko IV.1.1 atalean aipatutakoak.
- b) Ekonomikoki menpekoak diren beste fundazio batzuk: Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa eta Pablo Sarasate Fundazioa.

IV.2. NAFARROAKO 2015eko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRAK

2014ko irailean Gobernuak 2015erako gastu ez-finantzarioaren muga onetsi zuen, 3.420,30 milioiko muga, aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 0,43 handiagoa (hots, 14,74 milioi gehiago).

2014ko azaroaren 3an Gobernuak Nafarroako Parlamentuari aurkeztu zion 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektua. Guztira 3.797,26 milioiko aurrekontuak ziren.

Parlamentuak osoko zuzenketa bat onetsita, aurrekontuen proiektua baztertu egin zen 2014ko azaroan. Ondorioz, automatikoki luzatu zen 2012ko aurrekontua, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 37. artikularekin bat.

Gobernuak, 2014ko abenduaren 29ko erabakiaren bidez, 2015eko aurrekontua betetzeko jarraibide edo arauak onetsi zituen. Honako hau da arau horien laburpena:

• Helburu gisa, austeritate irizpideen barruan, apustu egiten da suspertze ekonomikoaren, enplegu sorkuntzaren eta proiektu estrategikoen alde, eta osasun arloan, hezkuntzan nahiz gizarte politiketan oinarritzko zerbitzu guztiak bermatzearen alde.

• Diru-sarreraren eta gastuen kredituek 3,837,72 milioi egiten dute; zenbateko hori bat dator 2012ko hasierako aurrekontuarekin.

• BPGaren ehuneko 0,7ko finantzaketa-beharrei eusten zaie.

• 2015erako aurreikusitako gastu ez-finantzarioa 3.413,40 milioikoa da.

• Finantza-gastu zenbatetsia 379,40 milioikoa da.

• 44,91 milioiko luzapen-funtsa eratu zen, eta gorabeheretarako milioi bateko funtsa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eskakizunei erantzunez.

Adierazten zen, halaber, 2014ko kontu orokorrei buruzko txostenean luzapen-funtsa ez zela kalkulatu Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen⁴ 37. artikuluan ezarritakoari zehatz-mehatz jarraituz, baizik eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauditik (Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa) heldu diren eskakizunak ere kontuan hartu zirela, Estatuarekin itundutako defizit-helburua betez. Hala, honako taula honetan ageri den moduan kalkulatu zen 44,91 milioiko funtsa:

(euroak, milakotan)	
Luzapen-funtsa, guztira	Funtsa
2015erako diru-sarreraren aurrekontuaren proiektua ⁽¹⁾	3.797.258
2012rako gastuen aurrekontua, 2015erako luzatua	3.837.717
2015eko diru-sarreraren eta 2012koen arteko aldea ⁽²⁾ AEFILOren arabera	40.458
Luzapen-funtsa NOPFLren 37. artikularen arabera	4.450
Luzapen-funtsa, guztira	44.908

⁴ Jasotzen du, funtsean, luzapen-funts bat eratuko dela, luzatzen direneko aurrekontuei dagokien ekitaldiaren bukaran amaitutako zerbitzu edo programen kopuruarekin eta ekitaldi horretan amaitutako betebeharrekin.

⁽¹⁾ Barnean hartzen du defizit-helburua, BPGaren ehuneko 0,7.

⁽²⁾ Diru-sarreraren beharra 2015eko aurrekontu luzatuan, 2012ko diru-sarreraren osoko zenbatekoa luzatzeko.

2015eko aurrekontu luzatuak badu bere gastu-kontusailen artean gorabeheretarako funts bat, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eskakizunekin bat. Funts horrek milioi euroko hornidura du, aurrekontuetan aurreikusi ezin izan diren premia geroraezin eta saihestezinei aurre egin ahal izateko. Funts horren arauketa zehatza 2016rako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen bidez egin da. Lege horrek aldatu egin du Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 42. artikulua, osotarako kredituari buruzkoa.

Bai luzapen-funtsa bai gorabeheretarako funtsa aurrekontu luzatuaren gastuen egoera-orrian jaso dira, 5. kapituluaren ("Osoko kreditua"); diru-sarreretan eta 8. kapituluaren barruan ("Finantza-aktiboak"), 2012ko diru-sarreraren osoko zenbatekoa luzatzeko behar diren diru-sarreraren aldea egotzen da.

• Ezartzen da, halaber, zorpetze bolumenak ezin izanen duela 158,34 milioitik gorako aldeaz gainditu 2015eko urtarrilaren 1eko saldo biziari dagokiona; bolumen horretan sartzen dira 18,68 milioi AHTko obretarako, 11,40 milioi enpresa publikoen zorra birfinantzatzeko eta 128,26 milioi aurreikusitako defizita (BPGaren ehuneko 0,7) birfinantzatzeko.

Aurrekontu-aldaketak

2015ean zehar onetsitako gastuen aurrekontu-aldaketak ageri dira honako taula honetan:

Aurrekontu-aldaketak	(Euroak, milakotan)	
	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	24.580	69.396
Kreditu sorkuntza	102.101	
Kredituak sartzea	639	127
Kreditu-osagarriak		4.964
Aparteko Kreditua		5.811
Guztira, 2015	127.320	80.298

Aurrekontuaren ondorioetarako, diru-sarrera handiagoak baliatuz finantzatzeko aldaketek bazarrik dakarte aurrekontuko kredituen guztizko zenbatekoa aldatzea.

Halaber, aurreko taulan ez dira jaso ez kreditu-transferentziak ez funts-mugimenduak. Aurrekontuaren ondorioetarako eragiketa horiek ere ez dute eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Luzapen-funtsa honako kontusail hauek finantzatzeko erabili da, behar ziren aldaketak eginez:

Kontusailak	Euroak, milakotan	
	Zenbatekoa	
Familientzako prestazio ekonomikoak	50	
Irauteko baliabiderik ez duten Nafarroako familientzako laguntzak	4.217	
Cener-CIEMAT Fundazioarentzako ekarpena, maileguak amortizatzeko	2.461	
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	32.487	
Toki entitateentzako transferentzia arruntetarako funts orokorra	5.031	
Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria	662	
Luzapen-funtsa, guztira	44.908	

Bestalde, gorabeheretarako funtsa, Nafarroako Gobernuak hala erabakita, 1. kapituluko zenbait gastu-kontusail finantzatzeko erabili da, beste finantzabide batzuekin batera.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legediari jarraituz, legezketasun txostenak egin ditu Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz, eta ondorioztatu du organo eskudunak onetsi zituela eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; besteak beste, finantzabideen egokitasuna. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen guztizko zenbatekoak 285,22 milioi egiten du.

2015ean ez da berariaz jaso kontusail-blokeorik. Kreditu-atxikipenak soilik jaso dira, geroago aurrekontu-aldaketak finantzatzeko. Ekitaldiaren amaieran baliagarri ez zeuden kredituek guztira 5,88 milioi egiten dute, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuarenak dira, eta atxikitako diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatzen den Toki Azpiegituren Planari dagozkio.

Halaber, 2014ko kontu orokorreari buruzko txostenean esan genuen bezala, 2015eko gastuen hasierako aurrekontuak 20 milioiko kreditua jasotzen du aipaturako azpiegituren planerako, zeina finantzatzen baita atxikitako diruzaintza-gerakinarekin; gure iritziz, eragiketa hori hasierako aurrekontuan sartu beharko zen, beharrezko den aurrekontu-aldaketa eginez. Hala eta guztiz ere, ekitaldiko aurrekontu-emaiza atxikitako gerakin honekin finantzaturako eragiketekin doitu da.

Gure gomendioak:

- *Ogasun Publikoari buruzko Legeko aurrekontu-luzapenerako prozeduraren araupetzea osatzea, kontuan hartuz Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen betekizunak.*

- *Gastuen aurrekontuko hasierako kredituek ez dituzte jaso behar atxikitako diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako gastuak.*

IV.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2015eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

2015eko aurrekontu luzatuen abiapuntu-zuzkiduran, 3.837,72 milioi euroko kredituak ageri dira gastuetarako eta diru-sarreretak. Zenbateko hori 2012ko aurrekontuetan jasotakoaren berdin-berdina da.

Hasierako kreditu horien barruan, gastuen egoera-orriko 5. kapitulan sartzen dira aipatutako luzapen-funtsarenak -44,9 milioiko zuzkidura du- eta kontigentziarako funtsarenak -milioi bat euro-, eta diru-sarreretako finantza-aktiboen 8. kapitulan, berriz, luzapenerako diru-sarrerak, 40,46 milioi egiten dutenak.

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko 3,32ko igoera garbia izan dute -127,32 milioi euro- aldaketan bitartez, eta kreditu bateratuak 3.965 milioikoak izatera iritsi da.

2015ean aitortutako betebeharrak 3.913,96 milioi euro egin dute, eta betetze-maila % 99koa izan da. Betebehar horien ehuneko 95 ordaindu da.

Aitortutako eskubide garbiek 3.876,56 milioi egiten dute, ehuneko 98ko betetze-mailarekin eta ehuneko 97ko diru-bilketa garbiaren portzentajearekin.

2015eko betetzea orokorrari buruz, honakoa esan behar dugu:

- Guztizko gastuaren finantzaketa honela egin da: ehuneko 86 diru-sarrera berekiekin; ehuneko bi jasotako transferentzien bidez, eta ehuneko 12 zorpetzearen bitartez.
- Nafarroako Gobernuak 2015ean gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa 2014	Zenbatekoa 2015	Finantza-bidea	Zenbatekoa 2014	Zenbatekoa 2015
Langileak	29	29	Tributu bidezko diru-sarrerak	82	83
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak	14	14	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	2	2
Transferentzien bidezko gastuak	40	41	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	3	3
Inbertsio errealak	2	2	Zorduntzea	13	12
Finantza-zama	11	11			
Finantza-aktiboak	4	3			
	100	100		100	100

•

• Aurrekontu-gastuaren xedeari edo eginkizunari begiratuta, hurrengo taulan islatu dugu 2015eko gastua eta aurreko ekitaldikoarekiko alderaketa (euroak, milakotan):

Gastu-politikak	2014ko betebeharrak	2015eko betebeharrak	Ehunekoa Aldea 15/14
Oinarrizko zerbitzu publikoak	115.300	114.295	-1
Justizia	27.558	25.837	
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	82.267	82.958	
Atzerri-politika	5.476	5.499	
Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak	442.424	451.559	2
Pentsioak:	92.736	96.371	
Bestelako prestazio ekonomikoak	8.061	6.733	
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	234.456	256.686	
Enpleguaren sustapena	48.796	45.456	
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	58.375	46.314	
Lehentasunezko izaera duten ondasun publikoen ekoizpena	1.525.082	1.580.932	4
Osasuna	916.240	958.343	
Hezkuntza	567.951	580.374	
Kultura	40.890	42.215	
Jarduketa ekonomikoak	319.295	319.641	-
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	73.134	78.231	
Industria eta energia	22.946	18.286	
Merkataritza, Turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	6.808	7.025	
Garraiorako diru-laguntzak	21.297	24.057	
Azpiegiturak	144.300	134.863	
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	46.639	51.614	
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	4.171	5.565	
Jarduketa orokorrak:	1.401.464	1.447.535	3
Goizuzendaritza	17.318	18.893	
Zerbitzu orokorrak	179.352	136.268	
Finantza eta tributu administrazioa	18.972	15.354	
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.	555.835	617.975	
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	8.500	8.500	
Toki-administrazioentzako transferentziak	237.045	236.144	
Zor publikoa	384.443	414.402	
Guztira	3.803.564	3.913.963	3

Hau da, 2015ean, nabarmentzekoak dira Osasunaren eta Hezkuntzaren arloko gastuak, ehuneko 24koak eta 15ekoak, hurrenez hurren. Halaber, azpimarratu nahi ditugu Estatuarekiko Hitzarmena, Zor Publikoa eta gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena, zeinek ehuneko 16, 11 eta 6 egiten baitute, hurrenez hurren.

2014ari buruz, nabarmentzekoa da gizarte zerbitzuek eta gizarte-sustapenak ehuneko bederatzia egin dutela gora; zor publikoak, ehuneko zazpi, eta Osasunak, azkenik, ehuneko bost.

Adierazleak

Hurrengo taulan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2014. eta 2015. urteei buruzkoak (euroak, milakotan):

Adierazlea	2014	2015	Ehunekoa Aldea
Gastua, guztira	3.803.564	3.913.963	3
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4. kapitulura)	3.136.025	3.280.460	5
Inbertsio gastuak (1.,2. eta 4. kapituluak)	3.031.080	3.171.947	5
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	217.902	209.278	-4
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	449.637	424.224	-6
Diru-sarrerak, guztira	3.855.984	3.876.565	1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.200.085	3.283.447	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3. kapitulura)	3.153.161	3.234.909	3
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	101	99	
Tributuen diru-bilketa likidoa	3.012.965	3.205.402	6
Tributuen diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat egiten duen	17	17	
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	49.612	43.075	-13
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	606.287	550.043	-9
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-104.230	-163.216	57
Aurrekontu-emaizta doituak	71.607	-23.066	-68
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-184.088	-238.100	29
Aurrezki gordina	169.005	111.500	-34
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	401.477	415.741	4
Aurrezki garbia	-232.472	-304.241	31
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezkia)	-88.308	-149.906	70
Funts berekiak	-97.860	-247.816	153
Nafarroako Gobernuaren finantza-zorra ⁽¹⁾	2.759.614	2.898.861	5
Zorrek diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehunekoa	86	88	3
Nafarroako Gobernuak eratutako abalak (saldo bizia)	149.593	149.027	-
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako aurrekontu-gastuak	3.725.247	3.864.253	4

⁽¹⁾ Amortizatutako kostua

Bilakaera horri buruz, honakoa nabarmendu behar dugu:

- 2015ean, guztizko gastuek ehuneko hiru egin dute gora, 2014. urtearekin alderatuta. Beren izaerari begiratuta, gastu arruntek ehuneko bost egin dute gora; kapitaleko gastuek eta finantza-eragiketek, berriz, ehuneko lau eta sei egin dute behera, hurrenez hurren.

- 2015eko guztizko diru-sarrerak ehuneko bat egin dute gora 2014koekin alderatuta. Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko hiru egin dute gora; kapitaleko gastuek eta finantza-eragiketek, berriz, ehuneko 13 eta bederatzi egin dute behera, hurrenez hurren.

- Bi ekitaldietan, tributu bidezko diru-sarrerak aukera ematen dute soilik Administrazioaren gastu arruntaren bolumena finantzatzeko.

- Tributuen bidezko diru-bilketa likidoak⁵ ehuneko sei egin gora, eta Nafarroako BPGean duen garrantzi erlatiboa ehuneko 17koa da.
- 2015eko aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 163,22 milioi negatiboa izan da; haren balio negatiboak ehuneko 57 egin du gora 2014koarekin alderatuta.
- 2015eko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 238,10 milioi negatiboa da; hau da, balio negatibo horrek ehuneko 29 egin du gora 2014koarekin alderatuta. Magnitude horrek 2008tik 2015era izan duen bilakaera ondoko taulan erakusten da:

(Euroak, milakotan)

Magnituedea	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Diruzaintza-gerakina, gastu orokorrak	100.504	-147.161	-126.369	-174.939	-239.750	-221.192	-184.088	-238.100

Hau da, krisi ekonomikoa hasi zenetik, magnitude hori negatiboa izan da. Horrek erakusten du diruzaintzako defizit erreal bat egon dela, zeinak berarekin baitakar ekitaldi bateko gastuak hurrengo ekitaldiko baliabideekin ordaintzea.

Bestalde, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ez ditu legezko tresnak jasotzen egoera horri gerakin negatiboekin konponbidea emateko.

Gomendatzen dugu gerakin negatiboa arautu dadila edo hura finantzatzeko neurri zehatzak har daitezela.

- Aurrezki gordinak⁶ ehuneko 34 egin du behera, 111,5 miliokoa izateraino; zenbateko hori nabarmen eskasa da zorpetzearen finantza-zamari aurre egiteko,⁷ eta 304,24 milioiko aurrezki garbi bat sortzen da, zeinaren balio negatiboa ehuneko 31 handiagoa baita 2014koa baino.

- Ekitaldiko emaitzak 149,91 milioi negatiboa izaten jarraitzen du (desaurrezkia), eta balio negatibo hori 2014koa baino ehuneko 70 handiagoa da.

- Funts berekiak. 2008tik ekitaldiko emaitzen balioak negatiboak izatearen ondorioz, Nafarroako Gobernuaren funts berekiek, 2015ean, 247,82 milioiko saldo negatiboa dute. 2014. urtearekin alderatuta, balio negatibo horrek ehuneko 153 egin du gora.

- Nafarroako Gobernuaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-zorra 2.898,86 milioi eurokoa da⁸; aurreko urtean baino ehuneko bost handiagoa, beraz. Haren ehuneko 12 epe laburrean du muga-eguna. Diru-sarrera arruntan aldean, ehuneko 88 da; aurreko ekitaldian baino ehuneko bi handiagoa.

Zor garbiaren aurrekontu-bilakaera –itundutako zorra ken amortizatutako zorra–, 2008-2015 aldiko ekitaldi bakoitzari dagokionez, hurrengo taulan jasotakoa da (euroak, milioitan):

Zor garbia	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Itundutako zorra	240,3	214,7	595,2	483,2	418,9	463,7	492,6	446,9
Amortizatutako zorra	60,2	0,03	103,2	91,2	107,3	193,2	296,5	307,2
Zor garbia, guztira	180,1	214,67	492,0	392,0	311,6	270,5	196,1	139,7

Hau da, zor garbiaren balio handiena 2010ean aurkitzen dugu, 492 milioikoa baita; ekitaldi horren ondotik, zenbateko hori nabarmen gutxitzen doa; halere, itundutako zorrak 2011tik antzeko bolumenari eutsi dio, eta nabarmen handitu da amortizatutako zorra.

⁵ Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako ko-brantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

⁶ Aurrezki gordina: diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura) ken funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)

⁷ Aurrezki garbia: Aurrezki gordina ken finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak).

⁸ Kostu amortizatuaren irizpidearen arabera baloratu da.

Azken batez, progresiboki handitzen doa zorraren muga-eguneratzeak finantzatzeko bideratzen duten zor itunduaren zenbatekoa.

- Gobernuak eraturako abalen saldo bizia ia berdin mantendu da bi ekitaldietan, eta 2015ean 149 milioiko zenbatekora iritsi da. Nabarmendu beharrean gaude Club Atlético Osasunari Foru Ogasunarekiko Tributu-zorra Berregituratzeari buruzko 26/2014 Foru Legearen babesean emandako lau milioiko abala.

- Etorkizuneko ekitaldietarako aurrekontu-gastuen konpromisoak: Etorkizuneko ekitaldiatarako hitzartutako gastuek 3.864,25 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 86 zorraren zama finantzarioari dagozkio. 2014ko datuekin alderatuta, etorkizuneko gastu horiek ehuneko lau egin dute gora.

Ondoren, kapituluaren eta urtearen arabera xehetasunak ematen ditugu (euroak, milakotan):

Kapituluak	2016	2017	2018	Gainerakoa	Guztira	%, guztizkoaren gainean
1 Langileria-gastuak	1.963	0	0	0	1.963	0
2 Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	154.561	53.711	28.935	6.484	243.690	6
3 Gastu finantzarioak	99.620	82.293	70.082	242.742	494.737	13
4 Transferentzia arruntak	45.812	470	162	89	46.533	1
6. Inbertsio errealak	48.775	25.750	24.814	11.891	111.230	3
7 Kapital-transferentziak	54.167	15.560	314	1.008	71.049	2
8 Finantza-aktiboak	8.500	9.350	8.350	33.800	60.000	2
9. Finantza-pasiboak	346.079	308.930	255.981	1.924.061	2.835.051	73
Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira	759.477	496.064	388.637	2.220.075	3.864.253	100
<i>Ehunekoalurtea</i>	<i>20</i>	<i>13</i>	<i>10</i>	<i>57</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen Funtzionarioen Montepioaren betebeharrak aktuarialak.

Lankidetzaren publiko-privatuaren formula erabiliz egindako proiektuetatik heldu diren gastuei dagokienez, zientak ez baitira jasotzen etorkizuneko ekitaldietarako aurreko gastuetan, aztertu beharra dago era haien izaera ekonomikoa dela-eta ez ote liratekeen saru beharko Nafarroako Gobernuaren ekitaldi amaierako gorabeheretan.

Gomendatzen dugu etorkizuneko konpromisoen egoerak isla ditzala etorkizuneko ekitaldiatarako hitzartutako gastuak.

Azken batean, Nafarroako Gobernuaren 2015eko egoera ekonomiko-finantzarioari dagokienez, esan behar dugu halako narriatze bat aurkitzen dugula haren magnitude eta adierazle funtsezkoetan; esate baterako, diruzaintza-gerakinaren saldo negatiboaren igoera, finantzaz besteko aurrekontu-saldoaren balio negatiboaren igoera, aurkezki garbiaren gutxitzea eta zorpetze finantzarioaren hazkundera. Bereziki nabarmendu beharra daukagu diruzaintza-gerakinaren zenbateko negatiboa.

IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, zeina kontabilitate nazionaleko terminoetan (SEC'2010) mugatuta baitago, 2015ean honako arau fiskalak bete behar ditu:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioak:

a) Gastu-araua: 2015eko gastu zenbakarriak ez du geindituko aurreko urteko gastuaren gaineko igoeraren ehuneko 1,3ko erreferentzia-tasa.

b) Finantzaketa-beharrek ez dute gaindituko barne produktu gordinaren (BPG) ehuneko 0,7, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioak:

a) Zorpetze publikoaren iraunkortasuna. Gehieneko zorpetze-gaitasunak, gehiegizko defizitaren protokoloaren (GDP) metodologiaren arabera kalkulatuak, ezin izango du gainditu, 2015eko abenduaren 31n, BPGaren ehuneko 18,3a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

b) Merkataritza-zorren iraunkortasuna. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa izan da.

c) Zuhurtzia edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gauzatzen da:

c.1) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko Ebazpenari⁹ jarraituz. Ebazpen horrek indarra 2015eko abuztuaren 5ean hartu zuenez eta Nafarroako Gobernuak ekitaldi horretan itundutako maileguak data hori baino lehen itundu zirenez, ebazpen hori ezin da ekitaldi horretan aplikatu.

c.2) Abalak, berrabak edo bestelako berme publikoak. Koordinazio Autonomikoaren eta Tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira SECen arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde bate-tik, muga orokor bat, zeinaren arabera 2015eko abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen dute gainditu Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,5a; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen du gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko muga.

c.3) Aktibo finantzarioak Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2015ean zor publikoaren helburu hori bete duenez, legezko betebeharrak ez zaio aplikatzekoa izango 2016ko ekitaldian.

Estatuaren Kontu-hartzailtza Orokorra da administrazio publikoen sektoreko kontu ekonomikoak egiteko organo eskuduna, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa da aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko behin betiko erabakia hartzeko ardura duena.

2016ko apirilean, aipatutako ministerioak lehenengo txosten bat argitaratu zuen, aurrerapen gisa. Hartan, honakoak jartzen ziren agerian: Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorearen 2015eko ez-betetzea, aurrekontu-egonkortasunaren helburuari eta gastu-arauari dagokiena, eta zor publikoaren helburuaren betetzea. 2016ko urrian, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-

⁹ 2016ko irailean, beste ebazpen bat argitaratu da, arestian aipatu dugun 2015ekoa indarrrik gabe uzten duena. Haren bitartez, itundu beharreko eragiketen interes-tasak gaurkotzen dira.

iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren, aurreikuspenen arabera, ministerioak bigarren txosten bat egin zuen helburu horien betetze-mailari buruz, eta aurreko ez-betetzeak berretsi zituen.

Ondoren, aurreko arau fiskalen betetze-maila aztertuko dugu:

IV.4.1. Aurrekontu-egonkortasuna

Aztertutako informazioan oinarrituta, honako ondorioak atera ditugu:

1.a Gastu-araua. Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak kalkulaturako datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak ez du gastu-araua bete, zeren eta 2015ean haren gastu zenbakarriak ehuneko 2,7 egin baitu gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera-tasa, berriz, ehuneko 1,3an finkatuta zegoen. Hala:

Gastu-araua – Gastu zenbakarria	2014	2015	Aldea (%) burutua	Helburuaren aldea (%)
Zenbatekoa (milioitan)	2.620	2.691	2,7	1,3

Iturria: Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2016ko urria)

Hau da, gastu zenbakarriak 37 milioitan gainditu du 2014ko gastuaren gainean baimenduta zegoen igoera.

Nafarroako Gobernuak kontu orokorretan ez du informaziorik ematen gastu-arauaren jarraipenari eta egiaztatzeari buruz.

2.a Finantzaketa-beharrak, Nafarroako Gobernuaren kalkuluen arabera, Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,48 dira; horrenbestez, itundutako ehuneko 0,7ko muga gainditu da, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

(euroak, milioitan)

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorearen defizita	2015
I. Aurrekontuko saldo ez-finanzarioa (diru-sarreraren 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen 1. kapitulutik 7. kapitulura)	-162,2
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	-163,2
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena	0,3
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena	0,7
II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak	-131
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	-43,6
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	1,2
Barneko transferentziak	0,6
Europako funtsetako transferentziak	-2,1
Diru-bilketa ez-segurua	30,5
Osasunerako zentimoa	7,4
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-2,8
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak	3,4
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	0,4
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)	-21,4
Betetako abalak	-0,1
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	-29
Enpresen finantza-ekarpenak	-28,2
Club Atlético Osasunari emandako abala (26/2014 FL)	-4
Club Atlético Osasunaren higiezinak eskuratzea (26/2014 FL)	-43
Farmazia-prestazioak	-0,8
NUPeko bestelako doikuntzak	0,5
III. Elkarre publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)	23,3
IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharra (I.etik III.ra)	-269,9
Nafarroako finantzaketa-beharraren ehunekoak BPGaren gainean (1)	-1,48
Hitzartutako helburua, Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,7
<i>Helburuaren gainean, finantzaketa-beharra gehiegizkoa izatea</i>	<i>141,6</i>

Iturria: Nafarroako Gobernua

(1) Nafarroako 2015eko BPGa 18.246 milioia izan dela jo da (Estatuko Estadistika Institutuaren arabera)

Aurreko taula horretatik, honako doikuntzak nabarmendu behar ditugu:

- Hitzarmeneko doikuntzak. Finantza-beharrak 43,6 milioi euro handitzea dakar. Zenbateko hori dator 2013ko ekitaldirako ekarpenak -14,3 milioi- eta 2014ko ekitaldirako ekarpenak -29,3 milioi- erregularizatzen, Nafarroaren eta Estatuaren arteko irizpide-desberdintasunen ondorioz. Zenbateko horiek aipatutako ekitaldietan doikuntza positibo bat eragin zuten finantzaketa-beharretan. (ikus IV.5 atala)

- Zalantza diru-bilketa, 30,5 milioiko finantzaketa-behar txikiago baten gisara. Kontabilitate nazionalaren kutxa-irizpidea aplikatuta, aurreko doikuntza heldu da ekitaldi korronteko aitortutako tributu-eskubideen eta bai ekitaldi korrontean bai itxitakoetan egiazki bildutakoaren arteko alderaketatik. 2015ean, bildutakoak zenbateko horretan gaintzen du aurrekontuan aitortutakoa.

- ADIFen obren aurrerakina (AHT)¹⁰. 21,4 milioiko doikuntza negatibo bat jaso da, Nafarroako Gobernuak AHTan egindako inbertsioen eta ADIFek jada egindako obrak direla-eta egindako ordainketen artean dagoen diferentziatik heldu dena.

¹⁰ Hemendik gutxira, Kontuen Ganberak txosten bat emanen du AHTren Nafarroako obren egoerari buruz.

- Zergen itzulketaren hartzekodunei dagokienez, 29 milioiko doikuntza negatiboa dator zerga-itzulketei sortzapenaren irizpidea aplikatetik kontabilitate nazionaleko tratamenduan.

- Enpresen finantzaketarako ekarpenen atala honakoei dagokie: CPENen kapital-igoera -19,7 milioi- eta Canal de Navarra SArI emandako mailegua -8,5 milioi- zeinek, kontabilitate nazionalaren eraginetarako, finantzaketa-beharrak handitzen baitituzte.

- Club Atlético Osasunaren tributu-zorra berregituratzeari buruzko 26/2014 Foru Legearen aplikazioak 47 milioi handitu ditu finantzaketa-beharrak. Hala eta guztiz ere, itxitako ekitaldietako diru-bilketaren barruan, espeziean egindako sarrera bat jaso da, aipatutako klubak entregatutako ondasunen balio garbiari dagokiona.

Azkenik, 2008-2015 aldirako, administrazio publikoaren sektorearen finantzaketa-beharrak honako taula honetan adierazitakoak dira (euroak, milakotan).

Finantzaketa-beharrak	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zenbatekoa	-877	-477	-564	-368	-311	-255	-149,5	-269,9
Nafarroako BPGa (%)	-4,7	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72	-1,45	-0,84	-1,48

Hau da, ekitaldi guztietan finantzaketa-beharrak sortu dira, eta 2008ko eta 2010eko ekitaldietan gehieneko balioetara iritsi da.

Halaber, arestian aipatutako egonkortasun-helburuak direla eta, honako alderdiak zehaztu behar ditugu:

- Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak 2016ko apirilean emandako txostenean esaten da, aurrerapen gisa, Foru Komunitateak Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,28ko finantzaketa-beharrak edukiko dituela: 234 milioi, hain zuzen; gero, 2016ko urrian, behin betiko txostena argitaratu du, eta behar horiek 256 milioitan finkatu ditu: BPGaren ehuneko 1,41, hain zuzen. Ikus daitekeen bezala, txosten horiek Nafarroako Gobernuak egindako kalkuluaz - 2015eko kontu orokorretan islatutakoaz- beheragoko kalkulu bat egiten dute; aldea dator, funtsean, Estatuko kontabilitatean aldizkatzea dela-eta egindako doikuntza batetik, Nafarroak Estatuaren zama orokorretarako egin beharreko ekarpenei dagokienez.

- Erantzukizun Fiskalaren Agintaritza Independentek, Nafarroako Gobernuak 2016rako eta 2017rako egindako aurrekontu-aurreikuspenen ebaluazioari buruz 2016ko uztailean argitaratutako txostenean, nabarmendu zuen 2015eko ekitaldian errepikatzen ez diren eragiketengatiko gastu eta diru-sarrera batzuk egon zirela, eta kuantifikatu zuen haiek Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,2ko eragin garbia izanen zutela. Eragiketa horien barruan honako hauek aipatzen dira berariaz: aurreko ekitaldietako doikuntzak, hitzarmen ekonomikoaren ondoriozkoak; Club Atlético Ogasunak ordainketan emandakoetatik heldu diren eragiketak, eta 2012ko abenduko aparteko soldataren ehuneko 25aren itzulketa. Txosten horren arabera, egingarritzat jotzen da Foru Komunitateko Administrazioak 2016ko eta 2017ko ekitaldietarako defizit-helburuak betetzea, bai eta 2016rako gastu-araua betetzea ere; zailtasun handiagoak ikusten dira, ordea, 2017ko gastu-araua betetzeko.

IV.4.2. Iraunkortasun finantzarioa

1.a Zor publikoaren iraunkortasuna. Zor publikoaren 2015erako helburua, gehiegizko defizitarren prozedurarako (GDP) metodologiaren arabera kalkulatua, Estatuak eta Foru Komunitateak ehuneko 18,3an hitzartu zuten.

GDParen arabera, zor publikoa da urte bukaeran ordaintzeke dauden administrazio publikoaren sektorearen betebeharrak gordinen balio nominala; hau da, metalezko monetaren, obligazio eta bonoen, mailegu eta kredituen jaulkipena. Horretan, ez dira sartzen ez finantza-deribatutak, ez merkataritza-kredituak, ez eta beste administrazio publikoen esku dauden Administrazio Publikoaren pasiboak ere.

Zor publikoaren kalkulua Espainiako Bankuak egiten du; horren arabera, 2015eko abenduaren 31n, Administrazio Publikoaren Sektorearen guztizko zorpetzea 3.322 milioikoa zen, erregioko BPGaren ehuneko 18,2 hain zuzen, finkatuta dagoen mugatik –ehuneko 18,3tik– behera. Zenbateko hori, zeina Nafarroako Gobernuaren informazioarekin alderatu baita, honela xehakatzen da (euroak, milakotan):

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea Zorra, 2015eko GDParen arabera	Guztira
Zor Publikoa	1.768
Finantza entitateekin egindako maileguak	814
EIBrekin hartutako maileguak	400
Errekurtsorik gabeko "factoring"a	22
Lankidetzak publiko-pribatua Pirinioetako Autobidea	197
Lankidetzak publiko-pribatua Nafarroako ubidea	121
Guztizko zorpetzea, 2015-12-31n	3.322
Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehunekoa	18,2
<i>Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoa</i>	<i>18,3</i>
Biztanle bakoitzeko gastua (eurotan)	5.186

Iturria: Espainiako Bankua eta Nafarroako Gobernua

Horrenbestez, finantza-iraunkortasunaren helburua bete da zorpetze publikoa dela eta.

Hari eusten dion bateratze-perimetroaren garrantziari begiratuta, aurreko zorra hurrengo taulan ezarritakoaren arabera banatzen da:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea Zorra, 2015eko GDParen arabera	Guztira
Nafarroako Gobernua	2.846
Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboaren bidez. Lankidetzak publiko-pribatua	318
Sozietate publikoak	153
Fundazio publikoak	5
Guztizko zorpetzea, 2015-12-31n	3.322

Azkenik, zorpetze horren bilakaera hurrengo taulan jaso dugu, 2008-2015 aldiari dagokionez.

	Euroak, milioitan							
Zorpetzea (GDPa)	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zenbatekoa	867,5	1.085,5	1.692,0	2.443,4	2.856,7	3.133,6	3.197,3	3.322
Nafarroako BPGaren %	4,69	5,97	9,10	13,05	15,76	17,85	17,9	18,2

Ikus daitekeen bezala, magnitudearen zenbatekoa pixkanaka handitzen joan da aldiaren zehar, eta 2015ean gehieneko baliora iritsi da.

2.a Merkataritza-zorraren iraunkortasuna dagoela ulertzen da hornitzaileei ordaintzeko batez-besteko aldiak ez duenean gaitzen berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako gehieneko epean. Epe hori 2015erako eta orokorrean 30 egunekoa da.

Nafarroako Gobernuak hilero argitaratzen du Administrazio Publikoaren Sektorearen ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazlearen balioa, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan ezarritako metodologiaren arabera.

2015ean, hurrengo taulan azaldutakoa da hilero ordaintzak egiteko batez besteko aldia:

2015eko ekitaldia	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan),
Urtarrila	(1,15)
Otsaila	(7,24)
Martxoa	(6,51)
Apirila	(5,79)
Maiatza	(4,99)
Ekaina	(5,00)
Uztaila	(3,86)
Abuztua	1,40
Iraila	(1,84)
Urria	(2,55)
Azaroa	(4,99)
Abendua	(9,63)

Iturria: Nafarroako Gobernuak

Balio negatiboak erakusten du hornitzaileei ordaintzen zaiela, batez beste, ezarrita dagoen aipatutako gehieneko epea baino lehen.

Horrenbestez, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2015ean bete egin du merkataritza-zorraren iraunkortasunari buruzko printzipioa.

Nafarroako Gobernuak berandutze-interesak direla-eta kontabilizatu dituen gastuen barruan, ez dago jasota hornitzaileei ordaintzerakoan atzeratzeagatik inongo zenbatekorik ordaindu denik.

3.a Zuhurtzia abaletan eta beste berme batzuetan. Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2015eko abenduaren 31n, abalei eta beste berme batzuei dagokionez, 140,21 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen dutenez beste pertsona fisiko edo/eta juridiko batzuei eman zaizkie –sektore hori SEC'2010 delakoaren arabera definituta–; halaber, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 70 milioiko abalak emateko aurreikuspenak kalkulatu ditu. Horrenbestez, abalen zenbatekoa 210,21 milioikoa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,15a egiten du, eta portzentaje hori legediak zuhurtzia dela-eta aipatzen duen ehuneko 1,5eko mugatik behera dago. Horrenbestez, arau hori bete egiten da.

Bestalde, ez dago jasota bateratze-perimetrotik kanpoko inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

Horrenbestez, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2015eko ekitaldian bete egin ditu ekitaldi horretarako ezarrita zeuden aurrekontu-egonkortasuneko helburuak, bai gastu-arauari dagokionez, bai finantzaketa-beharren bolumenari dagokionez ere, eta bete egin ditu, halaber, ekitaldi horretarako ezarritako finantza-egonkortasuneko helburuak.

Aipatutako ez-betetzei erreparatuta. Nafarroako Gobernuak 2016rako eta 2017rako aurrekontu-aurreikuspenei buruzko ebaluazio bat aurkeztu zion Erantzukizun Fiskalaren Agintaritza Independenteari; hain zuzen ere, aurreikuspen horietan oinarrituko du doikuntzako plan ekono-

miko-finantzarioa. 2016rako eta 2017rako plan horren aurkezpena eta onarpena direla-eta Hiztarmen Ekonomikoan ezarritako Koordinazio Batzordeak eginen dituen jarduketan zain gaude

Nafarroako Gobernuak kontu orokorretan ez du informaziorik ematen gastu-arauaren bete-zeari buruz, ez eta finantza-iraunkortasuneko helburua betetzeari buruz ere, zor publikoari, merkataritza-zorrari eta finantza-eragiketen zuhurtzari dagokienez.

IV.5. KONTUEN GANBERA HONEK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2014ko kontuei buruz eginiko txostenari dagokionez, honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Oroitidazkian informazioa jaso da egun dauden auziei buruz; haien banakako zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa da.*

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (CAT) sistema aztertzeke eta aldatzeko prozesua garatzen ari da. Horrek aukera emanen du bai tributuen jarraipena emateko, bai haiek kontabilitate orokorreko sistemarekin (GE21) koordinatzeko. Aurreikusita dago CATen eta GE21en arteko lotura berri bat aplikatzea 2018ko ekitaldian.*

- *Fase oso aurreratuan daude Nafarroako Unibertsitate Publikoari 2017-2020 aldirako urteanitzeko finantzaketarako esparru orokor bat emateko lanak; horren barruan sartzen dira bai egiturazko-finantzaketa, bai emaitzen eta hobekuntzen araberako finantzaketa.*

- *Ikastetxeen kontu korronteen gaineko jarraipenerako eta kontrolerako prozedura informatiko bat diseinatzen eta ezartzen amaitu da.*

Indarrean jarraitzen dute Ganbera honek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako honako gomendio hauek:

- *Aztertzea aurrekontu-kudeaketari eta aurrekontuaren eta kontu orokorren edukiari buruzko egungo esparrua, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean arautua, egiaztatze aldera egokia ote den Europako eta Estatuako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko araudia-ren eskakizunak betetzeko.*

- *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Estatuako Sektore publikoaren Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean daogena.*

- *Balantzean islatzea foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktua-rialak.*

- *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilge-tuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko. Inbentario hori ekitaldiari buruzko oroitidazkiari gehitu eta erantsi behar zaio.*

- *Ogasun Publikoari buruzko Legean araututako aurrekontu-luzapenerako prozedura gara-tzea, eta egokia den aztertzea, betiere Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen eskakizunak jasoz.*

- *Kontu orokorren oroitidazkian honako egoera-orri eta informazio osagarriak sartzea:*

- a) *Diruzaintzaren kontu orokorra.*

- b) *Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko enteen zorpetzeari buruzko kontu orokorra.*

- c) *Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko enteek emandako abalen ego-era-orria.*

- d) *Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuen betetze-maila.*

- e) *Zerga-onuren exekuzioari buruzko azterlana.*

f) *Estatuarekiko Ekonomi Hitzarmenetik heldu diren fluxu finantzarioa*¹¹.

g) *Administrazio Publikoaren Sektorearen egoera ekonomiko-finantzarioa.*

h) *Ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaera aipagarrienak.*

- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

- *Aurrekontu programetarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak osatzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izanen dira, eta haien betetze maila eta gertatutako desbideratzeak aztertuko dira.*

IV.6. NAFARROAKO GOBERNUAREN ZORPETZEA ETA 2015eko ABENDUAREN 31n ERATUTAKO ABALAK.

Zorduntzea

2015eko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuaren zorpetzea, kostu amortizatuaren arabera, 2.898,86 milioikoa da. Honako hauek dira xehetasunak eta aurreko ekitaldiko datuekiko alderaketa (euroak, milakotan):

Nafarroako Gobernuaren zorra	2014-12-31	2015-12-31	Aldea (%)
Nafarroako Zor Publikoa	1.759.500	1.471.492	-16
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	665.400	1.055.200	59
Epe luzeko maileguak sektore publikorako	22.265	22.339	-
<i>Epe luzeko zorpetzea (A)</i>	<i>2.447.165</i>	<i>2.549.031</i>	<i>4</i>
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	250.713	289.067	15
Zor publikoaren epe laburreko interesak	53.583	48.661	-9
Maileguen epe laburreko interesak	8.153	12.102	48
<i>Epe laburreko zorpetzea (B)</i>	<i>312.449</i>	<i>349.830</i>	<i>12</i>
Zorpetzea, guztira (A+B)	2.759.614	2.898.861	5

Beste ezer baino lehen, argitu beharra dago aurreko datuek desberdintasun bat ageri dutela Nafarroako Gobernuaren balantzean islatutakoarekin alderatuta –luzeko hartzekodunak–; honako hau da horren jatorria:

- 2014ko eta 2015eko egoera-balantzeetan, epe luzeko hartzekodunen artean jasotako fidantzak sartzen dira, 0,47 eta 0,45 milioi eurokoak, hurrenez hurren.

- 2015eko balantzeak "Club Atlético Osasuna"ren ondasunen epe luzeko ibilgetuaren hornikuntza" bat jasotzen du, 10,87 milioikoa. Hornikuntza hori dator aipatutako klubaren Foru Ogasunarekiko Tributu-zorra Berregituratzeari buruzko 26/2014 Foru Legearen aplikaziotik, eta Klubak hirugarrenen alde hartuta dituen eta higiezin horiekin bermatuta dauden betebeharren balioari dagokie. Hornikuntza hori sortu da aurre egin ahal izateko, kasua bada, aipatutako klubaren ez-ordaintzeei, eta haren zenbatekoa doitzen joanen da hark hipoteka-zama horiek ordaintzen dituen neurrian.

Gure ustez, bi kontu horiek, zorrozki, ez dira zorpetzea, txosten honen ondorioetarako.

Egindako azterketatik, honako hau nabarmenduko dugu:

- Guztizko zorpetzeak ehuneko bost egin du gora, hau da, 139,25 milioi; epe laburreko interesak kontuan hartu gabe, igoera 140,22 milioikoa izan da. Zor publikoaren garrantzi erlatiboak, 2014koarekin alderatuta, behera egin du zorpetzearen guztizkoaren aldean, ehuneko 75 izatetik

¹¹ Horri dagokionez, aurreikusita dago ezen hitzarmeneko gastuen eta diru-sarreraren fluxu guztiak jaso daitezela berariazko aurrekontu-programa batean, bai Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorrean bertan, bai haren likidazioan ere.

ehuneko 62 izatera igaro baita; logikoa denez, beherakada horrek ekarri du maileguez garrantzi erlatibo handiagoa izatea.

2012ko aurrekontuak 2015eko ekitaldirako luzatzeari buruzko Gobernuaren erabakiak ezartzen du zorpetze-bolumenak ezin izanen duela gainditu 2015eko urtarrilaren 1eko saldo biziari dagokiona. Aurreko datuei jarraituz, muga orokor hori bete egin da.

Ez dago jasota berariazko zorpetzerik hartu denik AHTaren obretarako.

- 2015ean, ez da zor publikorik jaulki. Oroitidazkian aipatutakoaren arabera, finantza-merkatuaren baldintzak egokiagoak ziren finantzaketa maileguz bitartez lortzeko.

2015eko zorraren epe luzeko saldoaren balantzearen gutxitzea heldu da 2016ean muga-eguna duen zorraren epe laburrekotzat birsailkatzetik. Zor hori 2011ko eta 2013ko jaulkipenei dagokie eta 289 milioikoa da.

Ekitaldi honetan, 250,2 milioiko nominala duen zorra amortizatu da, balantzean epe laburreko zor gisa kontabilizatua.

- Emaille den sektoreari erreparatuta, Nafarroako Gobernuak itundutako maileguz saldo garbia honakoetatik heldu da:

Sektore emaillea	Euroak, milakotan	
	2014	2015
Finantza-entitateak	365.400	755.200
Europako Inbertsioen Bankua	300.000	300.000
Gizarte Segurantza	9.686	9.686
Sektore Publikoaren gainerakoa	12.579	12.653
Epe luzeko maileguak, guztira	687.665	1.077.539

2015ean, 446,81 milioi euroko maileguak itundu dira, eta 56,2 milioi amortizatu dira guztira.

Gizarte Segurantzaren maileguzen barruan, ez da 9.180 euroko konpentsazio bat erregistratu; hori dela eta, aipatutako maileguzen saldoa zenbateko horren gainbalioa du.

2015eko maiatzean finantza-entitateekin egindako mailegu berriak, 446 milioi egiten dutenak, honako hauek izan dira:

a) Caixabanekin hartutako bi mailegu, 300 eta 85 milioikoak, ehuneko 1,918ko eta ehuneko 2,2ko interes-tasa finkoarekin. Muga-eguna 2027an eta 2030ean dute, hurrenez hurren.

b) Bankiarekin hartutako mailegu bat, 61 milioikoa, muga-eguna 2019an duena, eta interes-tasa gisa sei hileko Euriborra gehi ehuneko 0,309 duena¹².

Aurreko mailegu horiek amortizatuko dira printzipalaren muga-egunaren amaierako ordainketa bakarraren formula erabiliz. Sistema horrekin, zeina zor publikoaren jaulkipenentarako aplikatzen denaren antzekoa baita, maileguak indarra izan duen urteetako interesak baizik ez dira ordaintzen, printzipala iraupen-aldi horren amaieran amortizatuz.

Mailegu horien baterako zenbatekoa, 2015eko apirilaren 15eko Gobernuaren Erabakiaren arabera, honako hauek finantzatzeko erabili da: ekitaldirako aurreikusitako defizita -128,26 milioi, hau da, BPGaren ehuneko 0,7-, enpresa publikoen mugaeguneratzeak -11,40 milioi- birfinantzatzea eta Administrazio Orokorraren mugaeguneratzeak -306,40 birfinantzatzea-.

Ekitaldian jasotako gainerako maileguak Hezkuntza Ministeriotik eta Zientzia eta Berrikuntzako Ministeriotik heldu dira.

¹² 2015eko bigarren seihilekorako, aplikatutako interes-tasa ehuneko 0,366 izan zen.

• Hurrengo taulan erakusten dugu zein den finantza-entitateekin muga-egunaren amaieran printzipala amortizatzen diren sistemaren bidez hartutako maileguen guztizkoan duten garrantzi erlatiboa.

Entitateekin egindako maileguak	Saldoaren zenbakekoa 2015-12-31n	Muga-eguneko amortizazioa	Muga-eguneko amortizazioa (%)	Amortizazio-urteko batez bestekoa
Finantza-entitateekin egindako maileguak	755.200	629.000	83	2023
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	300.000	300.000	100	2024
Guztira	1.055.200	929.000	88	

Hau da, 2015eko abenduaren 31ko mailegu biziaren ehuneko 88 formula horrekin egin dira. Horrek eragin berezia izanen du 2023ko eta 2024ko aurrekontuetan.

• 2015ean itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen batez besteko interes-ondoren erakusten duguna da:

(Euroak, milakotan)

Zorpetze modalitatea	2015ean itundutako zorpetzea	2015eko batez besteko interes-tasa	Zorpetzea 2015-12-31n, guztira	Batez besteko interes-tasa
Nafarroako Zor Publikoa	-	-	1.760.559	4,29
Finantza entitateekin egindako maileguak	446.000	1,76	755.200	2,86
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	-	-	300.000	1,79
Gizarte Segurantzarekiko mailegua	-	-	9.686	0
Beste sektore publiko batekiko maileguak	814	0	12.653	0,08
Zorra guztira	446.814	1,76	2.838.098	3,62

Ikusten den bezala, maileguen bidezko zorraren batez besteko interes-tasa nabarmen txikiagoa da zor publikoarena baino.

2015ean, zorraren batez besteko interes-tasa orokorrak behera egin du 2014koarekin alderatuta: ehuneko 4,02tik ehuneko 3,62ra.

• Hurrengo taulan erakusten da Nafarroako Gobernuaren zor honi buruzko adierazleak multzo bat:

Nafarroako Gobernuaren zorraren adierazleak (kostu amortizatua)	2014	2015
NGren zorra (milioitan)	2.760	2.899
Zor biziaren ehunekoa, diru-sarrera arrunten gainekoa	86	88
Zorraren ehunekoa, Nafarroako BPGaren gainean	15	16
Zor bizia biztanleko (eurotan)	4.300	4.526

a) Zorraren bolumen hori diru-sarrera arrunten ehuneko 88koa da –2014an, ehuneko 86koa izan zen–, eta biztanle bakoitzeko 4.526 euroko zorra egiten du –2014an baino 126 euro gehiago–.

b) 2015eko Nafarroako BPGaren gainean, ehuneko 16 egiten du; 2014an, ordea, ehuneko 15 zen.

• Nafarroako Gobernuaren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (2011tik 2015era) (aurrekontuaren 3. eta 9. kapitulua) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2011	2012	2013	2014	2015
Finantza-zama (milioiak)	148,83	200,30	300,54	401,48	415,74
Aurkibidea	100	135	202	270	279
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoa	5	6	9	12	13

Hau da, finantza-zamak ehuneko 179 egin du gora aztertutako aldian, baina 2015ean nolabaiteko egonkortze bat lortu da 2014aren aldean. Halaber, diru-sarrera arruntetan duen garrantziak gora egin du, eta 2015ean haien ehuneko 13 izatera iritsi da.

Bestalde, etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuen arabera, zorpetzearen finantza-zamak 3.330 milioi egiten du.

- Hurrengo taulan erakusten dira Gobernuaren zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzen dauden aurreikuspenak (euroak, milakotan).

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira.	Ehuneko	Euroak, milakotan
			Ehuneko metatua
2016	330.267	11,64	11,64
2017	292.382	10,30	21,94
2018	240.617	8,48	30,42
2019	340.599	12,00	42,42
2020	218.661	7,70	50,12
2021	200.951	7,08	57,20
2022	139.999	4,93	62,14
2023	153.949	5,42	67,56
2024	433.751	15,28	82,84
2025	100.749	3,55	86,39
2027	300.000	10,57	96,97
2030	85.000	2,99	99,96
Honaino, guztira	2.836.926		
Sailkaezina	1.172	0,04	100
Guztira	2.838.098	100	

Hau da, zor horren ehuneko 50 2020a baino lehen amortizatu beharrekoa da. Halaber, 2024ko ekitaldia nabarmendu behar da, zorraren ehuneko 15eko amortizazioarekin.

"Sailkaezina" gobernu zentralak lanbide heziketako ziklo berrietarako eta DBHko ibilbideetarako emandako aurrerakinei dagokie, eta haietan ez da amortizazio-eperik aipatzen.

- 2015ean, Standard&Poor's rating agentziak "A, perspektiba egonkorrekin" kalifikazioa eman dio Nafarroaren epe luzeko zorrari. Kaudimenari buruzko emaitza hori bi maila gorago dago Espainiako Erresumarena (BBB+) baino. 2014an, aipatutako agentziak Nafarroako zorrari "A-, perspektiba egonkorrekin" emaitza emana zion; horrenbestez, Foru Komunitateak bere posizioa hobetu du.

Gomendatzen dugu oroitidazkian sartzeari, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearekin bat, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko enteen zorpetzeari buruzko kontu orokorra.

Abalak eta eraturako beste berme batzuk

Gobernuak eraturako abalen saldo bizia ia berdin mantendu da bi ekitaldietan, eta 2015ean 149 milioiko zenbatekora iritsi da. Honako hau da horren xehakatzea:

	Euroak, milakotan	
Eratutako abalak	2014	2015
I+G	229	209
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	8.593	6.804
Nafarroa abala (SONAGAR azpi-abalak)	3.859	3.679
NICDO Los Arcosko zirkuitua	25.577	22.885
C.A. Osasuna	7.212	11.212
NUP-Iberus programa	859	786
SODENA	102.764	102.953
CRANA	500	500
Guztira	149.593	149.028

Sodenarentzako abala eratzen da sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua.

“NICDO. Circuito de los Arcos” enpresa publikoari emandako abalaren jatorria 2009an dago, Circuito Los Arcos SL sozietate publiko azkenduak –gaur egun NICDO barrenean dago– jasotako mailegu batean; hasierako kopurua 35 milioikoa zen eta 2024ko maiatzean zuen muga-eguna.

C.A. Osasunari emandako hasierako abala 2003ko Foru Legearen bitartez eman zitzaion. 2015ean, klub horren Tributu-zorra berregituratzeari buruzko Foru Legea aplikatzearen emaitza gisa, beste abal bat eman zitzaion, lau milioikoa.

2015ean, Nafarroako Gobernuak 61.183 euroko gastu bat aitortu du, fidantza peko betebeharrak ez betetzeagatik; 2014an, 3,34 milioikoa izan zen gastu hori.

Aurreko abalez gainera, Nafarroako Gobernuak arrisku batzuk hartu ditu beren enpresa publikoekiko, konpromiso-gutuna deitutako figuraren bitartez. Figura hori ez dago ez jasota, ez araututa Ogasun Publikoari buruzko Legean. 2015eko abenduaren 31n, aipatutako gutunek 133,1 milioiko saldo bat bermatzen dute. Zenbateko hori Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko enpresa publikoei –30,6 milioi– eta Sodenari –102,5 milioi– dagozkie. 2015ean, ez da izaera horretako eragiketa gehiagorik egin, eta gaur arte ez dago jasota gutun horiek ekarri dutenik Nafarroako Gobernuak baliabide publikoak aplikatu behar izatea.

Gure gomendioak:

- *Oroitidazkian sartzea, Ogasun Publikoari buruzko Legearekin bat, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko enteen abalen egoera, horretan sartuz bai haien balio nominala, bai ekitaldi bakoitzaren amaierako saldo bizia ere.*

- *Konpromiso-gutunak emateko, halakoak berariaz arautzen ez diren bitartean, Ogasun Publikoari buruzko Legean ezarritako araudia aplikatzea, bai abalak emateko, bai oroitidazkian haiei buruz informatzeko ere.*

IV.7. ESTATUAREKIKO HITZARMEN EKONOMIKOA.

IV.7.1. Alderdi orokorrak

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributu-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago.

Hitzarmen horrek harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, eta Nafarroak –Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako– egin beharreko ekarpen ekonomikoaren kalkulua egiteko metodoa finkatzen du.

Hitzarmenak eguneratze eta aldaketa batzuk izan ditu 1993., 1997., 2003., 2007., 2011., 2012., 2013. eta 2014. urteetan; azkena, berriz, 2015ean izan da, ekainaren 24ko 12/2015 Legearen bidezkoa.

Ondoren aipatzen ditugu 2015ekoaz geroztik hitzarmenak dauzkan alderdi nagusiak.

14/2015 Legea, ekainaren 24koa, 28/1990 Legea aldatzen duena.

Hitzarmen ekonomikoak aurreikusten du ezen, Estatuako tributu-araubidearen antolaketan funtsezko erreforma bat gertatzen bada, bi administrazioek, ados jarrita, hura moldatu edo egokituko dutela.

Moldaketa hori Negoziazio Batzordearen bitartez egin behar da, eta gero Nafarroako Parlamentuak eta Gorte Nagusiek izapidetu behar dute, lege arrunt baten bitartez onets dadin.

14/2015 Legea bi administrazioek Negoziazio Batzordearen 2015eko otsailaren 17eko eta martxoaren 23ko bileretan lortutako akordioaren emaitza da.

Lege horren alderdi nagusiak diren aldetik, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Nafarroaren tributu-ahalmenari buruzko artikuluen barruan, "itundutako" tributuen adierazpidearen ordez, hitzarmenean "aipatutako" tributua adierazpidea erabiltzen da, Nafarroaren tributu-ahalmen horren inguruko interpretazio arazoak saihesteko.

- Hitzarmenari, Estatuak onetsitako honako zerga hauek gehitzen zaizkio:

- a) Joko jardueren gaineko zerga.
- b) Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.
- c) Gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak sortu eta biltegiatzearen gaineko zerga.
- d) Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zerga.
- e) Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga.

Adostutako tributu berriek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izanen dituzte.

- Foru Komunitateari aitortzen zaio eskumena duela zenbait loteriatako eta apustutako sarien gaineko karga bereziaren atxikipena eskatzeko.

- Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren ordez, hidrokarburoen gaineko zergaren tasa autonomiko bat ezartzen da.

- Jasotzen da ezen, Estatuak zerga berri bat ezartzen duen foru lege proiektu bat aurkezten duen bakoitzean, Koordinazio Batzordea deituko duela, hitzarmenean zerga-figura berriari tokia nola eman ebaluatu eta aztertzeko.

- Koordinazio Batzordearen araupetzearen barruan, zabaldu egiten da azpibatzerdeak sortzeko aukera, haren eskumenean gauzatzea eskuordetzeko. Halaber, arindu egiten da Arbitraje

Batzordeari tributuei buruzko kontsultak igortzeko bidea, Koordinazio Batzordean haiei buruzko adostasunik lortu ez denean.

- Talde fiskalei buruzko araudiari buruzko araua aldatzen da, eta zenbait gairi buruzko hobekuntza teknikoak sartzen dira (helbide fiskala, informazio-betebeharrak...).
- Erabakitako tributu berrietarako araubide iragankorra arautzen da, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin.
- Hamaikagarren xedapen gehigarri bat eransten da, zeinaren arabera ordaintzeko betebeharra duenak eskatu ahalko baitu Estatutuak edo Foru Komunitatekoak eskatu ahal dizkion tributu-zorrak osorik edo zati batean azkentzeko, beste administrazioan egiaz ordaindutako zorraren zati baliokidearena alegia, zenbait inguruabar badaudenean.

Nafarroan fabrikatutako ibilgailuen merkaturatzearen gaineko eskumenak direla-eta izandako gatazka eta horri buruz aurkeztu diren errekurtsioak

Ganbera honen aurreko txosten batzuetan aipatutakoaren osagarri, honako egitate kronologiko hauek nabarmentzen ditugu:

1. Nafarroako lurraldean kokatutako lantegian fabrikatutako ibilgailuen merkaturatze-lanak direla-eta sozietate batek egindako eragiketei buruz Tributu Administrazioaren Estatu Agentziak (AEAT) 2012ko martxoan hartutako likidazio-erabakiei erreparatuta, ondoren datozen egitate garrantzitsu hauek laburbildu behar ditugu:

- 2012ko martxoan, Tributu Administrazioaren Estatu Agentziak erabaki zuen BEZaren bidegabeko kenkari bat egina zela, 1.514 milioi eurokoa, 2007tik 2011ra bitarteko ekitaldiei zegoki-ena, eta erabaki zuen zenbateko hori ez zitzaiola eskatu behar zergapekoari, ibilgailuak merkaturatzeko sozietateari, baizik eta Nafarroako Foru Ogasunari.
- Estatuko Administrazioak Nafarroako Gobernuari eskumengabetasunaren deklarazioa aurkeztu zion, merkaturatze-sozietate horrek jasandako BEZa itzultzeko. Bere aldetik, Nafarroako Foru Komunitateak, halaber, deklaratu zuen itzulketa horretarako eskumengabea zela.
- Horren ondorioz, Estatuko Administrazioak errekurtsioa aurkeztu zion Hitzarmen ekonomikoaren Arbitraje Batzordeari, 2012ko maiatzean Koordinazio Batzordeak hartutako erabakiari jarraituz.
- 2014ko maiatzaren 15ean, Arbitraje Batzordeak ebazpen bat eman zuen, AEATek Nafarroako Tributu Administrazioaren aurrean aurkeztutako eskumenen gatazka negatiboa aintzat hartzen ez zuena.
- 2015ko uztailaren 25ean, Estatuko Administrazioak Auzitegi Gorenean administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat aurkeztu zuen Arbitraje Batzordearen ebazpen horren aurka.
- Koordinazio Batzordearen 2014ko urriaren 7ko bileran, erabaki zuen Estatuko Administrazioak eskatuko zuela Auzitegi Gorenean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren etete prozesala eska zezan, hitzarmen ekonomikoaren moldaketa bideratzeko, hain zuzen ere auzia ebazte aldera.
- 2014ko azaroaren 26an, Auzitegi Gorenak onartu zuen errekurtsioa hirurogei egunez etetea, aldeetako batek aurrez hura berrabiatzeko eskatzen ez bazuen.

2015eko apirilaren 7an, aipatutako auzitegiak erabaki zuen errekurtsioa behin-behinekoz artxibatzea, prozeduraren jarraitutasuna eskatzen ez zen bitartean edo instantzia iraungitzen ez zen bitartean.

- Hitzarmen ekonomikoa aldatzen duen ekainaren 24ko 14/2015 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriak Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen arteko eskumen-gatazka ebazteko prozedura osagarri bat ezarri zuen, baldin eta eskumen-gatazka horiek aurrez hitzarmenaren Arbitraje Batzordeari planteatutakoak badira eta hark ez badu erabaki administrazioaren batek eskumena duenik, betiere zergadunen jokabide zehagarriak ez dakartenean eta tributu-zorraren jatorria ez dagoenean behar bezala kendu gabeko kuotetan edo lortu diren itzulketetan, zeharkako zergapetzearen esparruan, 600 milioiko gehieneko zenbateko batekin.

Zergadunak administrazio batek zor dizkion zorren deuseztatze erabatekoa edo partziala eskatu ahal du, egiazki beste administrazioari ordaindutako zorraren zati baliokidean, baldin eta akordioan berariaz ezarritako betekizun batzuk betetzen badira. Zergadunaren tributu betebeharrak iraungitzeak berarekin ekarriko du sortu den eskumen-gatazka amaitzea, eta, horrenbestez, administrazioen artean inolako erreklamaziorik ezin egitea.

- 2015eko abenduaren 15ean, AEATEk erabaki zuen, aipatutako 14/2015 Legea aplikatuz, tributu-zorrak iraungitzat deklaratzeko, zergadunak 2015eko uztailaren 30ean egindako eskaeraren indarrez.

- 2016ko urtarrilaren 20an, Auzitegi Gorenak, Estatuko abokatuaren idazki baten bitartez, antolaketa-diligentzia eman zuen, eta haren bidez eskatu aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa behin betiko artxiba zedin.

- 2016ko otsailaren 3an, Auzitegi Gorenaren Salak dekretu bat eman zuen, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa amaitutzat ematen zuena, eta horrekin autoen behin-behineko artxibatzea behin betiko artxibatze bihurtu zen.

Auzitegi Gorenaren dekretu horrekin behin betiko itxi da bi administrazioen arteko gatazka, foru lurraldean fabrikatutako ibilgailuen merkaturatze-lanetik heldutako BEZari buruzkoa.

2. Alderdi politiko batek administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuen Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakien aurka; izan ere, erabaki horiek 2010-2014 bosturtekoan BEZaren diru-bilketaren doikuntza efektibo egiteko metodoa aldatzen zuten, 2012ko apirilaren 1etik aurrera.

Formazio politikoaren errekurtsoa Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzien Salak ezetsi egin zuen 2015eko urtarrilaren 22ko epaiaren bidez. 2015eko apirilaren 14an, Auzitegi Gorenak eman gabe deklaratu zuen alderdi politikoak Auzitegi Nazionalaren epaiaren aurka aurkeztutako kasazio errekurtsoa.

IV.7.2. 2015eko aurrekontu-likidazioa.

Honako hauek izan ziren hitzarmen ekonomikoari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren eragiketak, 2015eko aurrekontu-likidazioan erregistratutakoak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Hitzarmena-Aurrekontuko kontu-sailak	Euroak, milakotan		
	2014	2015	Aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	555.835	591.043	6
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatikoko konpentsazioa		26.859	-
Gastu-partiden guztizkoa-Hitzarmena	555.835	617.902	11
BEZaren ondoriozko doitzeak	750.869	811.648	8
Alkoholaren gaineko zerga bereziengatikoko diru-sarrerak	-34.934	-37.992	-9
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatikoko diru-sarrerak	4.331	4.666	8
Tabakogaileen gaineko zerga berezien bidezko diru-sarrerak	14.374	16.967	18
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatikoko diru-sarrerak	-15.866	-50.825	-220
Hitzarmeneko diru-sarreraren kontusailak, guztira	718.775	744.464	4

Zehaztu beharra dago BEZaren doikuntza baizik ez dela aurrekontuko sail berariazko batean erregistratzen. Zerga berezietarako, hitzarmenaren doikuntzak Nafarroaren diru-bilketa berekian lortutako diru-sarrerekin batera erregistratzen dira; aurreko taulan, ordea, doikuntza horiek baizik ez dira jaso, eta horiek positiboak zein negatiboak izan daitezke.

Bestalde, 2015eko urtarrilaren 1ean, 2013ko eta 2014ko ekitaldietako Estatuarentzako ekarpenaren kontu-sailetan aitortutako betebeharrak ordaintzeko zeuden, hurrenez hurren 25,09 eta 35,15 milioi egiten dutenak.

BEZaren eta zerga berezien doikuntzak direla-eta, gogorarazi beharra dago 2013tik, ekitaldi bakoitzeko abenduan, hurrengo ekitaldiko martxoan egin beharreko erregularizazioaren aurrerakin bat erregistratzen dela. 2015ean, aurrerakin horrek 40,98 euroko diru-sarrera garbia ekarri du.

2015ean bezalaxe, lehenengo aldiz islatu da gastuetan sektore elektrikoaren gaineko zergen konpentsazioa, zeinak 26,86 milioi egiten baitu.

Diru-sarreretan, berez tributu-doikuntzekin lotuta dauden aipatutako kontu-sailez gainera, hitzarmenaren mekanika dela-eta, Nafarroak mendetasunaren arretarako gutxieneko maila dela-eta jasotzen duen ordainketen fluxua jaso da; 2015ean, guztira, 11,31 milioi egin du, 2014an jasotakoa baino ehuneko zazpi gutxiago.

2015ean betearazitako hitzarmenaren gastuen eta diru-sarreraren eragiketen lagin baten gainean egindako azterketatik ondorioztatzen dugu haien kuantifikazioa hartan jasotako metodologiaren arabera egin dela.

Ondoren, aurrekontuen betearazte horren kontu-sail garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

Hitzarmenetik heldutako gastuak

- Gastu horien aurrekontua, hasieran, 520,69 milioikoa zen, baina aurrekontu hori 97,21 milioitan handitu behar izan zen aurrekontu-aldaketek bitartez. Aldaketa horiek finantzatu ziren, funtsean, diru-sarrerak sortuz –26,89 milioi– eta beste kontu-sail batzuetako funtsetatik egindako mugimenduen bidez, bereziki Luzapen-funtsetik –32,47 milioi– eta AHTaren obretatik –29 milioi–.

- 2015ean, Estatuari egindako ekarpena 591,04 milioi eurokoa izan zen, eta Nafarroako Gobernuak ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 15 da; 2014arekin alderatuta, ehuneko seiko iguera izan da, hau da, 35,21 milioi gehiago daude.

2015eko ekitaldia bosturteko berri baten, 2015-2019, oinarri-urtea da. Ez da haren oinarritzko ekarpena hitzartu eta, horrenbestez, araudiak ezartzen duenari jarraituz, behin-behineko ekarpen likido bat finkatuko da, eguneratze-adierazlea aplikatuz, aurreko bosturteko beste urte bat baltz bezala. 2015ean, adierazle horrek hitzartutako zerga berrien aplikazioaren eragina jasan du.

2014ko kontuei buruz Ganbera honek egindako txostenean aipatu zen bezala, bi administrazioen artean desadostasunak izan ziren 2013ko eta 2014ko ekitaldietako Estatuarentzako ekarpenak behin betiko onesteko; desadostasun horiek heldu dira gaurkotze-adierazlearen zehaztapenetik, hain zuzen ere zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren barruan sartzearen ondorioz. Desadostasun horiek direla eta, Nafarroako Gobernuak ekitaldi horietako ekarpenak konturako ordainketa moduan egin zituen, eta 60,24 milioiko guztizko zenbateko bat geratu zen ordaintzeko, honela xehakatuta: 25,09 milioi 2013ko ekitalditik eta 35,15 milioi 2014ko ekitalditik.

- 2015eko abenduaren 28an, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak jakinarazi zuen ezen, BEZaren doikuntzaren barruan, bere alde konpentsatu dituela, besteak beste, 2013ko eta 2014ko ekitaldietako Estatuarentzako ekarpenen behin betiko erregularizatzea, 43,58 milioi egiten duena –hau da, 2013ko 14,30 milioi eta 2014ko 29,28 milioi–. Ministerioak konpentsazio hori aldebakarretik egin du, zeren eta Nafarroako ordezkariak errekerimendua egin baitzion likidazio hori bi administrazioen arteko akordioaren bitartez egin zedin, Koordinazio Batzordearen barruan, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoari jarraituz.

Horren emaitza izan zen Nafarroako Gobernuak agindua eman zuela aurreko zenbateko hori ordaintzeko eta deuseztatu zuela ordaintzeko geratzen zen gainerako zenbatekoa, 16,66 milioi.

2013ko eta 2014ko behin betiko ekarpenak Koordinazio Batzordearen 2016ko urtarrilaren 28ko bileran onetsi ziren.

Aurreko erregularizatze horrek, halaber, doikuntza negatibo bat eragin zuen 2015eko finantzaketa-beharren kalkuluan.

- Hitzarmeneko gastuen kontu-sailek 2015ean kontu-sail berri bat daukate, sektore elektrikoaren gaineko zergen konpentsazioari dagokiona. Gastu hori heldu da Koordinazio batzordearen 2015eko otsailaren 17ko erabakitik, zeinean ezartzen baita Foru Komunitateak Estatuko Adminis-

trazioari konpentsazio finantzarioa emanen diola honako hauen gaineko zergak direla eta: energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa; gastatutako erregai nuklearra eta energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradioaktiboaren ekoizpena, eta gastatutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitratzea. Konpentsazio finantzario horren zenbatekoa honakoen arteko diferentziaren arabera finkatuko da:

a) Aipatutako zergak direla-eta Nafarroak egindako diru-bilketa, Estatuak aplikatzen dituen arau substantibo berak aplikatuta kalkulatu.

b) Kalkuluan zerga horien eguneratze-adierazlea sartzearen ondorioz ekarpenaren zenbatekoan izandako aldaketa, Estatuaren Diru-sarreraren Aurrekontuaren zenbatekoa dela eta.

Ekitaldi bakoitzeko konpentsazioa lau epetan ordainduko da, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan. Epe horietako bakoitzean behin-behinekoz finkatuko da honako eragiketa hau eginez: Nafarroako aipatutako zergak direla-eta ekitaldian lortutako diru-bilketa likido metatua ken hiru hileko bakoitzeko ekarpen metatuaren zenbatekoaren aldea, ekitaldian behin-behineko konpentsazio horrengatik jada egin diren ordainketak deskontatuta.

Behin betiko likidazioa konpentsazioari dagokionaren hurrengo ekitaldiko martxoan egingen da, Estatuaren eta Nafarroaren diru-bilketa errearen datuak ezagututa.

Kontzeptu hori dela-eta 2015eko aurrekontuaren likidazioari egozten zaion gastua 2013tik 2015era bitarteko ekitaldietako behin-behineko likidazioei dagokie, honako xehetasun hauen arabera (euroak, milakotan):

Sektore elektrikoaren gaineko zergengatiko konpentsazioa	Zenbatekoa
2013	17.207
2014	7.004
2015	2.648
2015eko aurrekontu-likidazioari egotzitakoa, guztira	26.859

Hitzarmenetik heldutako diru-sarrerak

Tributu-doikuntzak direla-eta honako hau esan behar dugu:

- Arestian esan dugun bezala, 2015eko ekitaldia 2015-2019 bosturtekoaren oinarri-urtea da. Bosturteko berri horretarako doikuntza fiskalak finkatzeko metodologia adostu ez denez eta araudiari jarraituz, behin-behinekoz aplikatu dira aurreko bosturtekorako adostutako metodoak, bosturtekorako behin betiko metodoa ezartzen denean bidezkoa den erregularizatzea galarazi gabe.

- 2015eko lehenengo hiruhilekoari dagokion BEZaren behin-behineko likidazioan, lehenengo aldiz eta bosturteko berriaren erregularizatzearan faltan, 2014ko uztailean Koordinazio Batzordeak adostutako metodoa aplikatu da. Metodo horren arabera, Nafarroako Gobernuak lortutako BEZaren guztizko aurrekontu-bilketa konparatzen da ibilgailuen esportazioa dela-eta merkaturatzean izandako aldaketa egin izan ez balitz lortuko zenarekin. Alderaketa horretatik ateratzen bada Nafarroarentzako amaierako aurrekontu-inpaktua txikiagoa dela 25 milioitan ezarritakoa baino –modu uniformearen eta metatua banatuak urteko lau hiruhilekoetan–, alde hori izanen da Estatuaren aldeko konpentsazioa finkatzeko oinarria; eragina handiagoa bada, berriz, konpentsazioa Foru Komunitatearen aldekoa izanen da. Hiruhileko bakoitzeko konpentsazioaren zenbatekoa aurreko eragina bidean den ekitaldiaren aurreko hiruhilekoetan ordaindutako konpentsazioekin gutxitzearen emaitzaren ehuneko 80 izanen da.

- Koordinazio Batzordearen 2015eko otsaileko bileran, hidrokarburoen gaineko zergaren gaineko doikuntza 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera kuantifikatzeko metodologia adostu zen.

- Aurreko ekitaldietako eragiketak. Eragiketa horiek abenduaren 30eko 170/2015 Foru Aginduaren bitartez erregistratu dira. Hartan aipatutakoaren arabera, 2015eko abenduaren 28an Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren idazki bat jaso zen, zeinean esaten baitzen aldebakarretik aurreko ekitaldietako 72,82 milioiko deskontua aplikatuko zela Estatuak 2015eko abenduko BEZaren eta zerga berezien doikuntzetan ordaindu beharreko zenbatekoan.

72,82 milioiko deskontu horren xehetasunak hurrengo taulan ageri dira (euroak, milakotan).

Kontzeptua	Nafarroako Foru Komunitateak ordaintzekoa	Nafarroako Foru Komunitateak diru-sarrera gisa hartzekoa
Estatuaren ekarpenaren erregularizatzea, 2013an eta 2014an	43.585	
Sektore elektrikoaren gaineko zergen behin-behineko konpentsazioa 2013an eta 2014an	24.211	
Hidrokarburoen gaineko zergaren erregularizatzea, 2013an eta 2014an	27.124	
Nafarroako Foru Komunitateak ordaintzekoa, guztira	94.920	
Loterietako eta apustuetako sarien gaineko karga bereziari atxikipenak, 2013an eta 2014an		17.914
Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zergak, 2014an		1.703
Joko jardueren gaineko zergak, 2012tik 2014ra		2.481
Nafarroako Foru Komunitateak diru-sarrera gisa hartzekoa, guztira		22.098
Estatuaren aldeko saldo garbia		72.822

Hitzarmenetik datozen aurrekontuko gastuek eta diru-sarrerek 2011tik 2015era izandako bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu Hitzarmeneko aurrekontuko kontu-sail nagusiek 2011-2015 aldian izan duten bilakaera (euroak, milakotan):

Hitzarmena-Aurrekontuko kontu-sailak	2011	2012	2013	2014	2015	15/11 aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	498.106	520.687	571.859	555.835	591.043	19
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatikoko konpentsazioa					26.859	-
Gastu-partiden guztizkoa-Hitzarmena	498.106	520.687	571.859	555.835	617.902	24
BEZaren ondoriozko doitzak	171.155	483.270	646.767	750.869	811.648	374
Fabrikazioaren gaineko zerga berezientzatiko doikuntzak	-16.138	-50.703	9.273	-32.094	-67.184	-316
Behin betiko likidazioa Estatuarentzako ekarpena	24.324	8.066				-
Hitzarmeneko diru-sarreraren kontusailak, guztira	179.341	440.633	656.040	718.775	744.464	315

Ikusten den bezala, Estatuarentzako ekarpenak ehuneko 19ko igoera izan du aldi honetan; hau da, ia 93 milioiko igoera.

BEZarengatikoko doikuntzen igoera justifikatzen du haren kalkulurako metodologian izan diren aldaketak, 2012ko maiatzean ezarri zenak. Inguruabar horrek berak justifikatzen du, halaber, 2013tik hitzarmenetik heldutako diru-sarrerak hartatik datozen gastuak baino handiagoak izatea.

IV.7.3. Amaierako iruzkinak

2015eko ekainaren 24ko 14/2015 Legearen bitartez onetsitako hitzarmen ekonomikoaren aldaketak eragina du, lege horren atarikoan esaten den bezala, hitzarmenaren alderdi instituzionaletan.

Hartara, jada aipatu ditugun beste batzuen artean, Koordinazio Batzordean azpibatzerdeak eratzeko aukera zabaltzen da, *"haiengan eskumenen baliatzea eskuordetzeko. Azpibatzerde horietan administrazio bakoitzak hiru ordezkari izanen ditu, eta komeni iruditzen zaizkion aholkulariak ere izan ditzake, hitzarekin baina botorik gabe; bertan hartutako erabakiek ondorioak izanen dituzte hartzen diren unetik bertatik, horrek galarazi gabe ondoren Koordinazio Batzordeak berrestea"* (67. artikulua).

Aurreikuspen horien ondorioz, 2015ko apirilean Koordinazio Batzordeak erabaki zuen azpibatzerde bat sortzea, *"2015eko oinarri-urtean Nafarroak Estatuaren zamatarako egin behar duen ekarpen ekonomikoaren eguneratzea eta 2015-2019 aldiko zeharkako zergen doikuntzak egiteko metodoa prestatzeko lan teknikoak sustatu eta koordinatzeko"*.

Horrenbestez, hitzarmenaren lege-aldaketan ezarritako mekanismoak jarri dira abian, bai Estatuarentzako ekarpena zehazteko, bai 2015-2019 bosturteko berriaren tributu-doikuntzak egiteko.

Inguruabar horrek erraztu behar du sakontasunez berrikus dadila Nafarroak Estatuaren zama orokorretarako egin beharreko ekarpena, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egindako lan teknikoen ildotik.

Halaber, aukera eman beharko luke tributu-doikuntzak kalkulatzeko metodoak soiltzeko; izan ere, haien konplexutasuna nabarmen areagotu zen BEZaren doikuntzetan sortutako arazoengatik, ibilgailuen merkaturatzean izandako tratamendu-aldaketaren ondorioz.

Hori guztia, kontuan hartuz hitzarmenaren adierazle eta eskema guztiak planteatuta daudela, funtsean, erreferentzia eginez 1990ean eskuragarri zegoen egoera ekonomiko-finantzarioari.

IV.8. LANGILE-GASTUAK

2015eko langile-gastuek 1.138,41 milioi euro egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan dira eta Gobernuak urte horretan izan duen guztizko gastuaren ehuneko 29 egin dute.

Departamentuei erreparatuta, ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 18, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari. Ehuneko horiek aurreko ekitaldiko berberak dira.

Honako hau da haien aurrekontu-artikuluen arabeko banaketa (euroak, milakotan):

Langile-gastuak	2014	2015	Aldea (%) 15/14
Goi-karguak	4.740	4.949	4
Behin-behineko langileak.	1.151	897	-22
Lanpostuko ordainsariak	695.486	700.369	1
Langileen ordainsariak	119.445	119.120	-
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	237.725	244.854	3
Langileen lansari aldakorrak	49.018	49.534	1
Langileen bestelako ordainsariak	4.155	18.691	350
1. kapitulua, guztira	1.111.719	1.138.413	2

Oro har, 2014aren aldean, ehuneko bi igo ziren. Horrek 27 milioi gehiagoko gastua eragin zuen. Alderaketa horretatik, gainera, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Goi-karguen artean, 2015ean 0,35 milioi sartu dira goi-kargu ohien kargua utzi ondorengo ordainsariak direla eta. Kargua utzi ondorengo ordainsariak kenduta, goi-karguen ordainsariak ehuneko bi egin dute behera.
- Halaber, behin-behineko langileen ordainsariak ehuneko 22 egin dute behera.
- Langileen beste ordainsari batzuei dagokienez, 2015ean handitu egin dira, langile publikoei 2012ko abenduan kendutako aparteko ordainsariaren ehuneko 24,04 itzuli baitzaie –14 milioi inguru dira–.

2015eko plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa

2015eko plantilla organikoa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa eta langile finkoen eta izendapen libreko zuzendaritza karguetan aritzen diren behin-behineko langileen zerrenda, 2015eko abenduaren 31koak, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ekainaren 24ko 126/2016 Foru Aginduaren bitartez argitaratu ziren (2016ko uztailaren 12ko NAO). Nabarmendu nahi dugu 2015eko plantilla organikoa 2016ko ekainean argitaratu zela.

Plantilla organiko horrek biltzen dituen lanpostuak 22.494 dira; hau da, 2014ko plantillakoak baino 66 gehiago. Honako hau da haien sailkapena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Postu beteak	5.100	4.970	6.338	6.011	6.651	6.478	18.089	17.459
Hutsak	1.118	1.266	1.488	1.782	1.733	1.987	4.339	5.035
Lanpostuak, guztira	6.218	6.236	7.826	7.793	8.384	8.465	22.428	22.494

2015ean, lanpostuen ehuneko 37 O-NOZi dagozkio; ehuneko 35 Hezkuntzari, eta ehuneko 28 Administrazio Erroari. 2014ko datuak hartuta, ehuneko horiek ia ez dira aldatu.

Administrazio Erroaren barruan, Justizia arloari atxikitako 515 langile daude; horietatik 358 lanpostu daude beteta.

2015ean **betetako lanpostuak** honela banatzen dira, beren tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota	2014	2015
Behin-behineko langileak.	109	107
Betetako burutzak	1.436	1.433
Oinarrizko lanpostuak	16.544	15.919
Betetako lanpostuak, guztira	18.089	17.459

2014arekin alderatuta, aldaketa aipagarriena oinarrizko lanpostuetan daude; izan ere, 2015ean ehuneko lau jaitxi dira –625 lanpostu, hain zuzen–.

2015eko oinarrizko lanpostuen barruan, 2.068 zerbitzu berezien egoeran edo antzekoetan ageri dira, lanpostua erreserbatuta, eta 209, berriz, eszedentzian.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2014	2015
Lanpostuak, guztira	22.428	22.494
Hutsak	4.339	5.035
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	19	22
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	2.582	2.944
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	59	58

2015ean, lanpostu guztien ehuneko 22 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 58 aldi baterako beteta zeuden. 2014an, portzentaje horiek ehuneko 19 eta ehuneko 59 ziren, hurrenez hurren.

2015eko lan-eskaintza publikoa

Martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren bidez 2013, 2014 eta 2015eko urteei zegozkien 358 lanposturen lan eskaintza publiko bat onetsi zen. Aipatutako foru dekretuaren arabera, eskaintza hau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillaren bilakaerari buruzko azterketaren emaitza da, betiere 2013ko, 2014ko eta 2015eko Estatuko aurrekontuei buruzko legeetan finkatutako gehieneko berrezarpen-tasei jarraituz.

Ekainaren 5eko 31/2015 Foru Dekretuaren bidez, ordea, lan eskaintza publikoko hiru lanpostu aldatu ziren eta sendagileen 20 lanpostu huts esleitu ziren.

Azkenik, irailaren 9ko 233/2015 Foru Dekretuaren bitartez, lan-eskaintza publikoari suhiltzaileen 20 lanpostu gehitu zitzaizkion.

Laburbilduz, 2015eko lan eskaintzak honakoak jasotzen ditu:

2015eko lan eskaintza publikoa	Lanpostuen kopurua
Hezkuntza	134
Osasuna	209
Suhiltzaileak	30
Adimen-desgaitasuna	5
Guztira	378

Estatuko Administrazio Orokorrek bi administrazioarekiko auzi-errekurtso aurkeztu zituen honako xedapen hauen aurka:

- 2015eko lan-eskaintza publikoa onetsi zuen martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren aurka, zeren eta 2014ko enplegu eskaintza ez baitzen onetsi ekitaldi hori amaitu baino lehen, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezarritakoaren aurka.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa –20/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsia– aldatzen duen eta aurreko lan publikoaren eskaintza handitzen duen irailaren 9ko 233/2015 Foru Dekretuaren aurka, zeren eta enplegu eskaintzan jasotako suhiltzaile lanpostuek 13 lanpostutan gainditzen baitu Estatuko araudiak onetsitako gehienekoa.

Errekurtso horiei dagokienez, geroko egitate gisa nabarmendu behar dugu ezen maiatzaren 4ko 27/2016 Foru Dekretuaren bitartez 2014ko lan eskaintza publikoko 71 lanpostu kendu direla eta 2013ko eta 2015eko eskaintza 20 lanpostutan jaitsi dela; lanpostu kopurua 233/2015 Foru Dekretuan zabaldu da berriz. Jarduketa horren ondorioz, Estatuko Administrazio Orokorrek aurkeztutako errekurtsoak artxibatu egin ziren.

2015ean, 119 lanpostutarako dei egin da: 89 2009ko LEPari dagozkio eta 30, berriz, 2015eko LEPari. 2016ko irailean, deialdi bat onetsi zen merezimendu-lehiaketaren bidezko lekualdatze lehiaketaren bitartez 108 lanpostu betetzeko (88 arloko sendagile espezialistenak, 17 OOLTko pediatrenak eta 3 ospitalez kanpoko larrialdietako pediatrenak); lanpostu horiek 2013ko, 2015eko eta 2016ko LEPetakoak dira.

Egiazko langileak

Emandako informazioaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean 23.405 langile ari ziren lanean Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan; 2015eko urtarrilaren 1ean, berriz, 23.055 ziren. Hurrengo taulan erakusten ditugu bilakaera hori eta haren osaketaren xehetasunak:

Nafarroako Gobernua	1-I-2015	1-I-2016
Unibertsitatez besteko irakaskuntza	8.183	8.381
<i>Irakasleak.</i>	7.558	7.725
<i>Irakasleak ez direnak</i>	625	656
Osasun arloa	8.725	8.962
<i>Sanitarioak</i>	7.360	7.531
<i>Sanitarioak ez direnak</i>	1.365	1.431
Foruzaingoa	1.074	1.060
Justizia	515	513
Gainerako departamentu eta erakunde autonomoak	4.558	4.489
Guztira	23.055	23.405

Hau da, aldi horretan egiazko langileak 350 gehiago dira; hau da, ehuneko 1,52 gehiago. Arloka, aipatu beharra dago irakasleetan eta osasun arloko langileetan ehuneko bitik gorako igoera egon dela.

Aurreko langileei dagokienez, nabarmendu behar dugu haien ehuneko 68 emakumezkoak direla eta ehuneko 32, berriz, gizonezkoak.

Halaber, adierazgarria da Foru Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako langileen tasa handia; bereziki O-NOZen –ehuneko 40 baino gehiago dira aldi baterako langileak– eta Hezkuntzan –ehuneko 30 inguru dira–.

Gure gomendioak:

“Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publikoen langileengan duen eraginari buruzkoa (2012-2015)” txostenean hauxe gomendatzen zuen ganbera honek:

Langileei buruzko araudi indardunear langileen plangintzari eta hautapenari buruz aurreikusitako prozedurak betetzea. Zehazki:

- *Antolaketan behar diren giza baliabideak planifikatu eta balioestea, zehaztuz zein lanpostu diren beharrezkoak zerbitzuak efizientziaz eta eraginkortasunez emateko.*
- *Plantilla organikoan sartzeari Administrazioaren beharrezko egiturazko eta iraunkorrei erantzuten dioten lanpostu guztiak.*
- *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako aurreikuspena dagoen eskaintako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*
- *Egiten diren aldi baterako kontratazioak aztertzea, eginkizun iraunkorrenei dagozkien ala ez jakiteko.*

Ordainsarien azpikontzeptuaren araberrako aurrekontu-betearazpenaren azterketa, SAP Recursos Humanos aplikazioaren bitartez.

Gastuen 1. kapituluaren betearazpenari erreparatuta, ordainsarien azpikontzeptuaren araberrako azterketa bat egin da SAP RRHH aplikazioa erabiliz, kuota eta prestazio sozialen gastuak kanpo utzita. Hurrengo taulan erakusten dugu aurrekontu-betearazpen hori. Halaber, hartan sartu dira, kodetze ekonomikoa eta edukiaren deskribapen laburraz gainera, honako hauek: jasotzaileen kopurua –eta, kasua bada, urte bakoitzeko pertsona baliokideena– eta urteko eta hilabeteko batez besteko ordainsariak.

Hari buruzko analisi egokia egiteko, kontuan hartu beharra dago 2015ean Nafarroako Gobernuaren ordainsarien jasotzaile guztiak jaso direla, alde batera utzita nolako lotura juridikoa duten –funtzionarioak, lan-kontratudun finkoak edo aldi baterako kontratadunak–, bai eta, kasua bada, lan-harreman horren iraupena ere.

Aurrekontuko azpikontzeptua		Deskribapen laburra	Zenbatekoa	Urteko batez besteko ordainsaria	Hileko batez besteko ordainsaria	Jasotzaileen kopurua	Pertsona bakoitzeko kopurua	Zenbatekoa (eurotan)
1000	Goi karguen lantsariak	Gobernuko goi-kargudunen ordainsariak	4.602.401	29.693	4.503	155	85	
1001	Goi-kargudunen beste ordainsari batzuk	Kargua utzi ondorengo ordainsariak	346.605	19.256	3.898	18	7	
1100	Behin-behineko langileen ordainsariak	Kabineteetako kideak	896.500	16.602	2.694	54	28	
1200	Langile finkoen lantsariak	Langile finkoak (funtzionarioak eta lan-kontratadunak) Oinarrizko soldata, arduraldia, bateraezintasuna, destinoa...	485.485.625	27.809	2.317	17.458	16.857	
1210	Lanpostu erreserbatuetarako kontratatutako langileen ordainsariak	Lanpostu erreserbatuetarako kontratatutako langileak Oinarrizko soldata, arduraldia, bateraezintasuna, destinoa...	36.072.733	10.450	1.474	3.452	1.912	
1211	Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak	Lanpostu hutsarako kontratatutako langileak Oinarrizko soldata, arduraldia, bateraezintasuna, destinoa...	49.046.201	19.211	1.911	2.553	2.108	
1220	Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak	Langile kontratatutak. Oinarrizko soldata, arduraldia, bateraezintasuna, destinoa...	66.554.486	14.976	1.705	4.444	2.880	
1221	Kanpainetarako kontratatutako langileen ordainsariak	Kanpainetarako kontratatutako langileak (% 85 barneko mediku egoiliarak) Oinarrizko soldata, arduraldia, bateraezintasuna, guardiak...	14.772.488	20.017	2.119	738	489	
1250	Ordezko lanak egiteko kontratatutako langileen ordainsariak	Ordezko lanetarako kontratatutako langileak Oinarrizko soldata, arduraldia, bateraezintasuna...	48.437.240	7.396	1.240	6.549	2.825	
1400	Langileen ordainsariak	Langile funtzionarioen kontzeptuak: gradua, familia-laguntza eta antzinasuna	104.927.330	4.369		24.014		
1410	Lanbide-karreraren ordainsariak	Lanbide-karreraren saria	14.192.675	4.999		2.839		
1702	Aparteko orduak	Forzaingoko aparteko orduak	49.755	366		136		
1703	Jaiegunean lan egitearen ordainketa	Jaiegunetako lana	11.697.804	1.359		8.609		
1704	Berriazko guardiak egitea	Guardiak egitea	20.312.472	8.618		2.357		
1705	Gaueko txandan lan egitearen osagarria	Gaueko txanden araberako lana	7.403.485	1.068		6.933		
1706	Dispersio geografikoarengatikko osagarria	Sendagileentzako osagarriak, joan-etorriak direla eta	1.988.544	1.021		1.949		
1709	Bestelako ordainsari aidagarriak	Funtsean, kapitazio-osagarria	2.771.359	1.349		2.054		
1710	Produktibitate-osagarria	Funtsean, produktibitatea	5.310.500	1.712		3.106		
1800	Langileen bestelako ordainsariak	Destino-osagarriaren atzerapenak	52.106	2.171		24		
1810	Aurreko ekitaldietako langile-ordainsariak	Funtsean, aparteko soldataren itzulketaren partziala	18.181.471	621		29.284		
1820	Epaiak eta beste kalte-ordain batzuk betetzeko ordainsariak	Epaiak eta beste kalte-ordain batzuk betetzeagatikko ordainketa	457.184	2.458		186		

Egindako lana egin eta gero, hona esan nahi duguna:

- 2015ean, guztira, 34.628 pertsonak jaso dituzte Nafarroako Gobernuaren ordainsariak.
 - Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen dugu berez ordainsari-kontzeptuei dagozkien eta, oro har, haien aurrekontu-egozpena egokia dela.
 - Langile finkoen ordainariak (1200 azpikontzeptua) honela banatzen dira funtesan: gastuaren ehuneko 38 Hezkuntzari dagokio, ehuneko 34, berriz, O-NOZi eta ehuneko 19, azkenik, Administrazio Erroari.
 - Erreserbatutako lanpostuetan kontratatutako langileen ordainsarrietan (1210 azpikontzeptua), ehuneko 60 O-NOZi dagokio, ehuneko 25, berriz, Hezkuntzari, eta ehuneko 15 gainerako departamentu eta erakunde autonomoei.
 - Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen ordainsaririk (1211 azpikontzeptua), berriz, ehuneko 67 O-NOZi dagokio.
 - Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsarrietan (1220 azpikontzeptua), ehuneko 178 Hezkuntzari dagokio eta ehuneko 20 O-NOZi.
 - Kanpainetarako kontratatutako langileen ordainsarrietatik (1221 azpikontzeptua), ehuneko 91 O-NOZena da, ehuneko sei desagertutako Nafarroako Larrialdietako Agentziarena eta ehuneko bi Nafarroako Zerga Ogasunarena.
- Ikusten da kontusail horri 6,4 milioi egiten duten guardiak egozten zaizkiola, nahiz eta gastu hori erregistratzeko berariazko kontu-sail bat badagoen (1704 azpikontzeptua).
- Ordezko gisa kontratatutako langileen ordainsarrietan (1250 azpikontzeptua), gastuaren ehuneko 67 O-NOZi eta ehuneko 25 Hezkuntzari dagozkie.
 - Banakako ordainariek (1400 azpikontzeptua), besteak beste, graduarengatik sariak jasotzen dira, 66 milioi egiten dutenak.
- Egiaztatu dugu gradua jasotzen duen inork ez duela aldi berean hirutekorik kobratzen, ez eta alderantziz ere.
- Aparteko orduak (1702 azpikontzeptua) foruzaingoari dagozkie, eta ordu haien ehuneko 45 uztailen egindakoak dira; hilabete horretatik aurrera, berriz, ez da ordu gehiagorik ordaindu.
 - Jaiegunetako ordainetan (1730 azpikontzeptua), berriz, ehuneko 76 O-NOZi dagozkio, ehuneko 14 foruzaingoari eta suhiltzaileei eta ehuneko bost Gizarte Ongizateari.
 - Gaueko txandan lan egitearen osagarria (1705 azpikontzeptua): Guztira betearazitako zenbatekoaren guztizko kopuruaren ehuneko 70 O-NOZena da eta ehuneko 27, berriz, Foruzaingoarena eta suhiltzaileena.
 - Dispertsio geografikoarengatik osagarria (1706 azpikontzeptua): Osagarri hori sendagileei eta OLTei ordaintzen zaie joan-etorriengatik, eta ia erdibana egiten da.
 - Beste ordainsari aldagarri batzuk (1709 azpikontzeptua): Berez kapitazio osagarria¹³ eta ikastetxeetako jangeletako arduradunentzako osagarri bat jasotzen ditu. Halaber, erlijio-erkidego batekiko hitzarmenaren gastua jasotzen du, 53.025 eurokoa, 2015eko urtarriletik abuztura doan aldiari dagokiona. Gure iritziz, aurrekontu-egozpen hori ez dator Nafarroako Gobernuaren langile-gastuen izaerarekin.
 - Produktibitate osagarria (1710 azpikontzeptua): Ehuneko 78 O-NOZi dagokio (paseko edo ikustaldiko guardiengatik osagarria eta produktibitate osagarria), eta ehuneko 10, berriz, Nafarroako Zerga Ogasunari.

¹³ Ordainsari aldagarria finkatzen da osasun etxe baten balizko onuradunen zenbatekoaren arabera, adierazle batzuen arabera hainbanatuta.

- Langileen aurreko ekitaldietako ordainsariak (1810 azpikontzeptua): Zenbateko handiena 2012ko abenduko aparteko soldataren laurdenaren itzulketari dagokio, eta 14 milioi euro egiten du.

Nafarroako Gobernuaren erretiro-gastuen aurreikuspena

2013ko martxoan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin zuen “Nafarroako Gobernuaren pentsioen gastuaren aurreikuspenari” buruz, oinarritzat balio dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioko pentsio arrunten kontusailaren aurrekontua egiteko.

Azterlan hori 2006. urtearekin hasi zen, eta ordutik 2012ra arte gastu errealean oinarritzen da. Gainerako urteetarako, egindako kalkulua oinarrituta dago aurreko urteetan antzemandako jokatibideen arabera finkatutako aldagai batzuetan; aldagai horiek, funtsean, honakoak dira: pentsioa zein adinetan hasten den eta zein urtetan amaitzen den eta zenbatekoa den batez besteko erretiro-pentsioa. Aldagai horien arabera, pentsioengatiko urteko kostua finkatzen da, euro konstantean, 2013tik 2087ra arteko aldirako; izan ere, 2087a izanen da, kalkulaturakoaren arabera, Montepioak gastua sortuko duen azken urtea.

Azterlan horren arabera 2087ra bitarte kalkulaturako guztizko kostua 2.785,64 milioi euro konstanteena da; zenbateko horretatik, ehuneko 77 pentsiodunei dagokie eta ehuneko 23, berriz, gainerako onuradunei.

2016-2087 aldirako, kalkulaturako kostuak 2.150 milioi euro konstante egiten du.

2015ean, pentsio horien benetako gastuak 82,5 milioi egin ditu guztira; kalkulua, berriz, 75,29 milioi konstanteena zen.

Gomendatzen dugu kontu orokorretan jasotzea funtzionarioen montepiotik heldutako gorabeherak.

IV.9. ZERGEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarreraren 1. eta 2. kapituluek 3.109,75 milioi euroko aitortutako eskubideak dituzte; hau da, ekitaldiko diru-sarrera guztien ehuneko 82.

Hurrengo taulan ikusten da zein izan den tributu-figura bakoitzaren betearazpena, bai eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa ere.

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak, 2015	Diru-bilketa garbia, 2015	Diru-bilketa likidoa, 2015	(Euroak, milakotan)		
				2015/2014 aldea (%)		
				Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketa likidoa
PFEZa	1.106.869	1.088.670	1.132.368	1	2	5
Sozietateak	213.557	150.872	217.381	3	-23	6
Egoiliar ez direnen errenta	7.093	6.469	6.610	20	16	15
Ondarea	44.741	48.390	47.790	-8	1	-
Oinordetzak eta dohaintzak	58.087	54.947	56.286	9	10	9
Banku-gordailuen gainean	4.594	4.603	4.603	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria
Energia-ekoizpenaren gainean	14.034	13.487	13.546	5	5	5
Loterietako eta apustueta sariak	18.777	18.777	18.740	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria
Beste batzuk	20	20	23	-	-	-99
1. Zuzeneko zergak	1.467.772	1.386.235	1.497.345	3	1	7
BEZa	1.184.257	1.016.056	1.213.493	6	0	11
Zerga bereziak	394.647	421.466	393.165	-5	2	-5
Aseguru-primen gaineko zerga	19.355	19.365	19.426	-1	-1	-1
Ondare eskualdaketak.	38.763	36.817	37.920	16	19	20
Egintza juridiko dokumentatuak	9.567	9.332	9.403	-6	-10	-6
Beste batzuk	-4.602	-4.967	-4.396	-	153	281
2. Zeharkako zergak	1.641.986	1.498.068	1.669.011	3	1	6
Zergak, guztira	3.109.758	2.884.303	3.166.356	3	1	6

Egin den azterketatik eta berrikuspenetatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2014arekin alderatuta, zergengatik aitortutako eskubide garbiak ehuneko hiru egin dute gora; hau da, 96 milioi inguru gehiago dira.

2015ean, hitzarmenaren aldaketaren ondorioz, bi zuzeneko zerga berri aplikatzen dira: loterietako eta apustueta sariaren gaineko karga -18,78 milioiko eskubideak- eta banku-gordailuen gaineko zerga -4,6 milioi-; halaber, zeharkako zergetan, beste bi berri aplikatu dira: Joko jardueren gaineko zerga, zeinak 2,7 milioiko eskubideak baitauzka, eta berotegi-efektuko gas-isurketen gaineko zerga, 0,37 milioiko eskubideak dituena.

Zerga berri horiek kontuan hartu gabe, zergek 2015ean izan duten igoera orokorra, arestian aipatutakoa, 70 milioikoa izan da.

Hiru zerga-figura handiek -PFEZa, Sozietateak eta BEZa- igoerak izan dituzte, baina igoera hori era askotakoa da; hartara, PFEZak ehuneko bat egin du gora -10 milioi-, sozietateen gaineko zergak ehuneko hiru -5 milioi- eta BEZak ehuneko sei -72 milioi-.

Halaber, nabarmendu behar ditugu oinordetzen gaineko zergak izan duen igoera -bost milioi gehiago- eta ondarearen gaineko zergak izandako jaitsiera -lau milioi gutxiago-; zeharkako zergetan, zerga bereziak behera egin dute -16 milioi behera- eta ondare-eskualdaketaren gaineko zergek, berriz, gora egin dute -6 milioi-.

Zeharkako beste zerga batzuen artean, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga jaso da, "osasunerako zentimoa" deitutakoa, zeinak 7,76 milioiko saldo negatiboa izan baitu; 2014an, berriz, saldo hori 2,15 milioi negatiboa zen. Haren justifikazioa zerga horren itzulketatik dator, Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren epaiaren ondorioz. Ez da behar den zuzkidura egin zergak itzuli ahal izateko.

- BEZari dagokionez, hurrengo taulan xehakatzen dugu haren zenbatekoa, bere kudeaketa-moduari erreparatuta: Foru Ogasunaren bidezko zuzeneko kudeaketa eta Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren bitartezkoa. 2013tik egindako alderaketa aurkezten dugu, hura izan baitzen BEZaren doikuntzak kalkulatzeko metodo berria aplikatu zen lehenengo ekitaldia, hitzarmenari jarraituz.

(Euroak, milakotan)

Aitortutako BEZa	2013		2014		2015	
	Zenbatekoa	Ehunekoa,	Zenbatekoa	Ehunekoa,	Zenbatekoa	Ehunekoa,
Zuzeneko kudeaketa	338.896	34	361.073	32	372.609	31
Hitzarmenaren doitzea	646.767	66	750.869	68	811.648	69
BEZa, guztira	985.663	100	1.111.942	100	1.184.257	100

Ikusten den bezala, zerga hori dela-eta aitortutako eskubideak goranzko moduan sortzen dira hitzarmenetik heldutako doikuntzetan, eta Foru Ogasunak zerga horren guztizko eskubideen herena-edo kudeatzen du.

Bestalde, 2015eko ekitaldiaren itxieran konpentsatzekoa den BEZa –haren itzulketa hurrengo ekitaldiko urtariletik aurrera eskatu ahalko da– 157,16 milioi eurokoa zen, eta 13.500 zergadun ingururi dagokie; 2014an, berriz, 149,16 milioi izan ziren. Itzulketa eskatzeko eskubidea, edo konpentsazioa eskatzekoa, bost urteren buruan iraungitzen da. Konpentsatu beharreko BEZ hori hirugarrenentzako kontabilitate lagungarriko kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egozten zaio itzultzen do konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik Zerga Ogasunari ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada. Oroitidazkian ez da kontu horri buruzko informaziorik eman.

- Zergen diru-bilketa likidoa 3.166,36 milioikoa da, eta 2014aren aldean ehuneko seiko igoera egon da; hau da, 190 milioi gehiago izan dira. Zerga-figura nagusiek batez besteko horren inguruko igoerak izan dituzte; honako hauek nabarmendu behar ditugu:

a) BEZaren gehikuntzak, bai zuzeneko kudeaketari dagozkionak, ehuneko 16koak –57 milioi gehiago– bai hitzarmenaren doikuntzengatikoa, ehuneko zortzikoak –61 milioi gehiago–. Zerga horren guztizko diru-bilketa likidoa 1.213,49 milioikoa izan zen, aurreko ekitaldian baino ehuneko 11 gehiago; hau da, 117 milioi gehiago.

b) PFEZaren diru-bilketa likidoak 1.132,37 milioi egin zituen, ehuneko bosteko –hau da, 53 milioi– hazkundearekin. Igoera horren ia erdia lan-atxikipenengatik diru-sarreratik heldu da. Datu hori garrantzitsua da kontuan hartzen badugu 2015ean atxikipen horien tasak jaitsi egin direla.

- CATetik kudeatutako itzulketak –bai eskudirukoak, bai konpentsazio bidezkoak–, orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatu direnak hartutakoekin batera, 1.198,74 milioi izan dira, aurreko urtean baino ehuneko lau gutxiago; zenbateko horretan hitzarmenaren doikuntzetatik heldu diren 89 milioi daude. Itzulketaren izaerari erreparatuta, ehuneko 85 eskudiruan egiten da.

Zerga-moten arabera, honako hauek eta haien eta aurreko ekitaldikoek arteko alderaketa nabarmentzen dira:

	Euroak, milakotan	
Zergen itzulketa	2014	2015
PFEZa	226.433	211.068
Sozietateak	93.356	78.053
BEZ zuzeneko kudeaketa	809.657	806.042

Hau da, zuzenean kudeatutako BEZa da, alde handiz, itzulketa bolumen handiena sortzen duena; guztizkoaren ehuneko 67, alegia. 2014arekin alderatuta, itzulketa horiek jaitsi egin dira; bereziki sozietateen gaineko zergan, non ehuneko 16 jaitsi baitira.

Bestalde, aitortutako eskubideetatik zuzenean deskontatutako zergen itzulketak 33,04 milioioak izan dira; aurreko ekitaldikoak, berriz, 0,63 milioioak izan dira. Igoera hori heldu da, funtsean, hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketatik, 2013tik 2014ra doazen ekitaldiei dagozkien likidazioengatik, eta 32,75 milioi euro egiten du. Itzulketa hori hitzarmenetik dator.

- Zergengatik aitortutako eskubideen bilakaera 2010etik 2015era bitartekoa, hurrengo taulan erakusten dugu:

	Euroak, milioitan					
Zergak (milioiak)	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zuzeneko zergak	1.280	1.309	1.421	1.423	1.428	1.468
Zeharkako zergak	1.655	1.645	1.515	1.522	1.586	1.641

Azken batean, zuzeneko zergek 188 milioi inguru egin dute gora, eta igoera arin eta jarraitu bat izan dute aztertutako aldi guztian zehar. Zeharkako zergak, ordea, egonkor mantendu dira, jaitsierarako nolabaiteko joerarekin.

- Ekitaldiko kontu orokorrak ez du informaziorik ematen onura fiskalen betearazpenari buruz. Hala eta guztiz ere Nafarroako Zerga Ogasunaren webgunean 2015eko onura fiskalen aurrekontua ematen da, bai eta ekitaldi horren amaierarako kalkulua ere. Hartara, informazio-eraginetarako, hurrengo taulan informazio hori ematen dugu, zergen arabera banatua:

	Euroak, milakotan	
Zergak	2015eko onura fiskalen aurrekontua	2015eko itxierari buruzko kalkulua
PFEZa	405	399
Sozietateak	88	110
Egoiliar ez direnen errenta	5	5
Ondarea	48	43
Oinordetzak eta dohaintzak	9	10
1. Zuzeneko zergak	555	567
BEZa	728	751
Zerga bereziak	47	42
Aseguru primen gaineko zerga	9	8
Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak	4	5
2. Zeharkako zergak	788	806
Onura fiskalak, guztira	1.343	1.373

Itxieran kalkulaturako onura horiek 2015eko ekitaldiko zergengatik aitortutako eskubide garbien ehuneko 43 dira.

Zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko karga berezia.

Karga hori abenduaren 27ko 16/2012 Legearen bitartez sortu zen; haren bidez, zenbait tributu-neurri hartzen dira finantza publikoak sendotu eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko. Lege horren bidez, PFEZaren estatuko araudia aldatzen da, eta karga hori sortzen da. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Estatuko Loteria eta Apustueta Estatu Sozietateak (SELAE), Gurutze Gorriak, ONCEk eta Europako antzeko izaerako entitateek antolatutako loteria, apustu eta zozketek salbuetsita egoteari uzten diote.

Nafarroan, Estatuak karga hori 2013tik kudeatu eta bildu izan du, Hitzarmen Ekonomikoa aldatzen duen ekainaren 24ko 14/2015 Legea onetsi zen arte. Lege horren bidez, Foru Komunitatea eskudun bilakatzen da –2015eko ekainetik– karga berezi horren atxikipenak eta konturako diru-sarrerak eskatzeko, jasotzaileak ohiko bizilekua edo helbide fiskala Nafarroako lurraldean duenean, eta haiek ordainarazteko lurralde komuneko tasa berdin-berdinak aplikatu behar ditu; halaber, Nafarroari eskumena aitortzen zaio 2013ko urtarrilaren 1etik haren diru-bilketa jasotzeko. Karga hori araututa dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginekoko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian.

Zerga horren kudeaketaren oinarritzko alderdiak honela laburbiltzen dira, funtsean:

- Karga bereziaren kuota osoa zerga-oinarriari ehuneko 20ko tasa aplikatuz zehaztuko da.
- Karga bereziaren zerga-oinarria zenbateko salbuetsia gairatzen duen sari zenbatekoak osatuko du.
- Karga berezitik salbuetsita egonen dira zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo horretatik beherakoa duten sariak; zenbateko osoa 2.500 eurotik gorakoa duten sariak, aldiz, karga bereziari lotuta egonen dira, zenbateko horretatik gorako zatiari dagokionez.
- Karga duten sariak jaso dituzten subjektu pasiboek karga horren autolikidazio bat aurkeztu beharko dute, kasuko tributu-zorren zenbatekoa eta haren diru-sarrera zehaztuta.
- Karga duten zozketak antolatzen dituzten entitateek egindako atxikipenen hileko aitorpena bat aurkeztu beharko dute. Aitorpen hori aurkezteko epea likidazioaren hilabetearen hurrengo 20 eguneko da. Ekitaldiaren amaieran, atxikipenen urteko laburpen bat aurkeztu beharko dute, jasotzaileei, oinarriari eta urtean egindako atxikipenaren informazioarekin, eta hurrengo urteko urtarilean aurkeztu beharko dute.

2015ean, karga hori dela-eta 18,78 milioiko eskubideak aitortu dira, eta guztiz kobratu dira. Urte horretako hasierako aurrekontuan, berriz, zerga hori bost milioiko zenbatekoarekin zegoen jasota. Aitortutako eskubideak honako taula honetan xehakatu dira:

Euroak, milakotan

Likidazio-aldia	Egozpenaren aldia Nafarroako Gobernuaren aurrekontua	Estatuak likidatutakoa	Foru Ogasunak kudeatutakoa
2013	2015	9.006	
2014	2015	8.909	
2015eko urtariletik maiatzera	2016	3.096	
2015eko ekainetik azarora	2015		862
2015-abendua	2016		178
Karga, guztira		21.011	1.040

Azken batez, 2015eko aurrekontuari Estatuak 2013ko eta 2014ko ekitaldietan bildutakoa egozten zaio –Tributu Administrazioaren Estatu Agentziaren (AEAT) ziurtatze orokorretan babes-tuta–, bai eta Foru Ogasunak urte horretako ekainetik azarora bildutakoa ere, SELAEk –0,38 milioi– eta ONCEk –0,44 milioi– hilabete horiek direla-eta aurkeztutako hileroko likidazioen arabera.

2015eko abenduari dagokiona 2016ko aurrekontuari egozten zaio, eta haren zenbatekoa, 0.17 milioi, SELAEk aurkeztutako hileroko likidazioari dagokio, zeren eta ONCEk likidazio deuseza aurkeztu baitzuen. Halaber, 2016ko aurrekontuari Estatuak 2015eko urtariletik maiatzera kudeatutako zatia egozten zaio, AEATEk jaulkitako ziurtatze orokorraren arabera.

Oro har, ondorioztatzen dugu kargaren kudeaketa zuzena dela. Alabaina, nabarmendu beharra daukagu 2013ko eta 2014ko likidazioen artean sartutako zenbatekoen eta Nafarroak 2015eko zazpi hilabetetan, hain zuzen ere karga hori kudeatu dituenetan, bildutakoaren artean dagoen aldea. Nafarroako Zerga Ogasunetik informatu digute 2013an eta 2014an Foru Komunitatean bi sari garrantzitsu jaso zirela 32 eta 30 milioikoak; hori dela eta, zozketa horiei dagokien karga 12 milioi baino gehiagokoa da. Halaber, adierazi digute behin eta berriz errekerimenduak egin zaizkiola AEATi karga horri buruzko informazio garrantzitsuari buruz bai eta foru lurraldean helbidea duten zozketen onuradunei buruz ere.

Azken batean, karga hori dela eta, foru herritar batek ausaz saria jasotzen baldin badu, Foru Ogasunak onura eskuratuko du.

Gure gomendioak:

- *Hornikuntza ba jartzea ekitaldiaren amaieran aitortu ez diren zergen itzulketetak direla eta.*
- *Urteko oroitidazkian azterketa bat jasotzea onura fiskalen exekuzioari buruz eta haiek ezarritako helbururako egiten duten ekarpenari buruz.*
- *Aukera gisa aztertzea Nafarroako Zerga Ogasunak zuzenean jo ahal dezan sarien gaineko kargak dituzten loterietako eta apustuetoako zozketak antolatzen dituzten entitateengana, Nafarroan helbide fiskala duten subjektu pasiboei buruzko informazioa eskatzeko.*
- *Hitzarmenaren esparruan, sarien gaineko karga dela eta, bi zerga administrazioen arteko informazio-bideak hobetzeko aukera jasotzea.*

Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Zerga Ogasunak emandako datuen arabera, 2008tik 2015era zerga-iruzurraren aurkako borroka sortutako diru-sarrerera hauek eragin ditu:

Ekitaldia	Zergen kudeaketa	Ikuskapena	Delitu fiskalak	Euroak, milakotan	
				Kopurua, guztira	Aurkibidea
2008	83.930	40.620	7.016	131.566	100
2009	81.404	51.535	5.095	138.034	105
2010	67.518	52.581	2.271	122.370	93
2011	52.045	32.193	6.616	90.853	69
2012	58.648	38.602	30.897	128.147	97
2013	57.326	37.176	650	95.152	72
2014	56.061	27.135	1.546	84.742	64
2015	38.133	35.060	1.993	75.186	57

Ikusten den bezala, 2012tik, nabarmen jaitsi dira Foru Ogasunak iruzur fiskalaren aurkako planaren barruan lortutako diru-sarrerak. 2015eko ekitaldia da sortzapenaren datu orokor txikiak ematen dituen, 2008koak baino ehuneko 43 txikiagoak izan baitira.

Logikoa den bezala, aurreko datuek krisi ekonomikoak eragindako jarduera-murrizketa erakusten dute.

Hurrengo taulan, 2014ko eta 2015eko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak erakusten ditugu xehetasun gehiagorekin:

Euroak, milakotan				
Zerga iruzurraren kontrako borroka	2015		2014	
Ikuskapena	Jarduketan kop.	Zenbatekoa	Jarduketan kop.	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	692	35.060	986	27.135
Delitu fiskalak	5	1.993	5	1.546
Ikuskapena, guztira	697	37.053	991	28.681
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	2.559	15.244	3.369	27.248
PFEZa	3.258	5.852	4.424	6.252
Sozietateak	274	3.385	262	3.786
Errekerimenduak	3.520	4.101	4.094	5.248
Zehapenak	18.953	4.766	25.789	5.415
Epez kanpoko aitortpenen errekariguak	5.525	1.984	3.688	1.593
Gainerako zergak	1.239	2.801	2.467	6.519
Kudeaketa, guztira	35.328	38.133	44.093	56.061

Oro har, 2015ean, jarduketa/likidazio gutxiago egin dira, 36.000 inguru; 2014an, berriz, 45.000 egin ziren. Sortutako zenbatekoari erreparatuta, ikuskaritzatik datorrenak ehuneko 29ko igoera izan du; kudeaketari dagokionak, berriz, ehuneko 32 egin du behera.

2016ko maiatzean, Iruzuraren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen 6. artikulua aplikatuta, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren kontrako borrokaren jarraipenerako eta ebaluaziorako lan batzorde iraunkor bat sortu zen, "*esparru horretako jarduketak aztertzeko, proposamenak egiteko eta iruzur fiskalaren kontra egiteko diseinatutako jarduketa planen eta neurrien jarraipena egiteko*"; haren lehenengo jarduketan artean dago 2016-2019 urteetarako iruzur fiskalaren kontrako plan berri baterako zirriborroa aztertzea. Plan hori behin betiko onetsi du Nafarroako gobernuak 2016ko urriaren 26an egindako saioan.

IV.10. ZORDUNAK

2015eko abenduaren 31ko zordunen saldoa 349,62 milioikoa da, aurreko urtekoa baino ehuneko hiru handiagoa; honako xehekatzea eta aurreko ekitaldiko saldoekiko alderaketa egin daiteke:

			Euroak, milakotan
Zordunak	2014-12-31	2015-12-31	15/14 aldea (%)
Aurrekontuko zordunak	834.531	837.496	-
Aurrekontukoak ez diren zordunak	17.053	5.983	-65
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	82	311	277
Bestelako zordunak	15.179	4.001	-74
Kaudimen gabeziatarako probisioa	(528.650)	(498.169)	-6
Zordunak, guztira	338.195	349.622	3

Nabarmentzekoa da aurrekontuz kanpoko zordunen eta bestelako zordunen saldoak gutxitu egin direla, eta kaudimen gabetasunarengatik hornikuntza ere gutxitu dela.

Aurrekontuko zordunak

Aurrekontuko zordunetan zentratuta, honako taula honetan azaltzen ditugu haren xehakatzea eta bilakaera:

			Euroak, milakotan
Aurrekontuko zordunak	2014-12-31	2015-12-31	15/14 aldea (%)
Departamentuetako zordunak	8.637	41.469	380
Zordunak: ohiko kudeaketa	158.220	135.930	-14
Geroratutako zordunak	172.628	163.760	-5
Premiamendu bideko zordunak	514.075	496.780	-3
Egoera berezietako zordunak	20.428	24.018	18
<i>Zordunak</i>	<i>873.987</i>	<i>861.956</i>	<i>0</i>
Sortu ez diren korrituak eta gainkarguak	(38.337)	(23.257)	-39
Kobrantsak eta aplikatzeko dauden sortak	(1.120)	(1.203)	-7
Aurrekontuko zordunak, guztira	834.531	837.496	0

2015eko saldo orokorrak ia ez du alderik izan aurreko ekitaldikoarekin alderatuta, hiru milioiko igoera izan baita. Nabarmentzekoa da departamentuetako zordunen igoera; horietatik, 30 milioi AHTaren obrak direla-eta ADIFengandik kobratzeko dauden zorretatik heldu dira.

Aurrekontuko zordunak, funtsean, hainbat egoeratako tributu-zordunak dira (kudeaketa arrunta, premiamendu-bidea, geroratzeak eta beste). Tributuen aurrekontu-likidazioaren, diru-bilketaren eta itzulketaren eta zuzenbide publikoko zenbait diru-sarreraren kudeaketa –esate baterako, interesak eta errekareruak– Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailearen aplikazio informatikoaren bitartez egiten da; hartatik, informazioa G-21 kontabilitate-aplikaziora aldatzen da.

Kudeaketa arruntaren arloko tributu-zordunen barruan, saldoaren ehuneko 68 zerga garrantzi-suenetatik heldutako zorrak dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

		Euroak, milakotan
Zordunak: ohiko kudeaketa	2015	
Errentaren gaineko zerga	16.469	
Sozietateen gaineko zerga	11.992	
Balio erantsiaren gaineko zerga	44.469	

Geroratzeengatik zordunek, 2015ean, 163,76 milioiko saldoa egiten dute, aurreko ekitaldiko baino ehuneko bost txikiagoa.

Hurrengo taulan xehakatzen ditugu horiek beren egoeraren eta epeen muga-egunaren arabera:

Zorra dela-eta luzapena eman zaien zordunak	Euroak, milakotan			
	Saldoa 2015-12-31	Zenbatekoa, muga-egunera iritsitako epeetan	Zenbatekoa, muga-egunera iritsi ez diren epe- etan	Epeetako zenbatekoa Epe laburreko muga- eguna
Ohiko Kudeaketan	144.480	1.439	143.042	55.668
Premiamendu-bidean	19.280	506	18.774	19.280
Guztira	163.760	1.945	161.816	74.948

2015ean, bere berezitasunarengatik eta bitxitasunarengatik, aipatu behar dugu Club Atlético Osasunaren tributu zorraren bi geroratze eman direla, Foru Ogasunarekiko tributu zorra berregiratzeari buruzko 26/2014 Foru Legea aplikatuta. Geroratze horiek ondoren zehazten diren ezaugarriak dituzte:

- 9,77 milioiko geroratzea, klubaren tributu-zorraren –52,82 milioi– eta hark ordainketan emandako ondasunen tasazioaren balioaren –43,05 milioi– artean dagoen aldeari dagokiona.
- Klubak hirugarrenen aurka hartutako betebeharren ordainketatik ordaintzeko dagoen saldotik heldu den 10,87 milioiko geroratzea; zenbateko hori bermatuta dago entregatutako ondasunen zati batekin eta Foru Komunitateak emandako abalekin.
- Bi geroratzeen epea 30 urtekoa da, 2015eko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita –2045eko urtarrilera arte– eta hiru urteko moratoria bat ematen da, interesik gabea, salbu eta kluba lehenengo mailara igotzen bada, orduan moratoria hori eraginik gabe geratuko baita. Kluba 2016ko ekainean 1. dibisiora igo denez, moratoria hori eraginik gabe geratu da.
- Lehen geroratzea, 9,77 milioikoa, diru-bilketari buruzko erregelamenduan jasotako arau orokorren arabera kudeatuko da; aurrez kalkulatu dira zenbateko interesak izanen dituen muga-egunean, eta guztira 10,40 milioi izanen dira. Bigarren geroratzeari dagokionez, baldin eta klubak hirugarren horiekiko betebeharrak urratzen baditu, Foru Ogasunari eragindako ondarezko klartearen zenbatekoa premiamendu-bidez exigituko da, sortutako beranduntza-interesekin batera.

Lehenengo geroratze horri dagokionez, gogoratu behar dugu aipatutako 26/2014 Foru Legearen arabera aipatzen zuela klubaren honako diru-sarrera hauek atxikitzen zitzaizkiola haren ordainketari:

- Ikus-entzunezkoen eskubideen ehuneko 25.
- Jokalarien traspaso-eskubideen ehuneko 25.
- Klubak Nafarroako Gobernutik babes-kontratuak direla-eta jasotako zenbatekoen % 100.

Saldo hartzekodunak

Balantzearen pasiboan, eta epe laburreko hartzekodunen izenburupean, honako kontu hauek islatzen dira:

Saldo hartzekodunak	Euroak, milakotan	
	2014-12-31	2015-12-31
Diru-sarreraren itzulketaren hartzekodunak	27	165.064
Zerga-zordunak (saldo hartzekodunak)	264.355	136.385

Zergen itzulketarengatik hartzekodunen saldoan gertatutako igoera honako honi dagokio: zergen itzulketarengatik multzo baten 165,02 milioiren kontabilitate doikuntza –funtsan, BEZa eta sozietateen gaineko zerga–, zeinak, CATen arabera, 2015eko ekitaldiari egozten baitzaizkio, nahiz eta itzulketa hori materialki diruzaintzak egin zuen 2016an.

Tributu-zordunen saldoaren eta hartzekodunen saldoaren artekoa ehuneko 52 murriztu da, eta ordainketa agintzeko dauden zerga-itzulketak islatzen ditu; saldoaren ehuneko 86, 2015ean, hu-

rrengo zergetatik ordaintzeko gelditu diren itzulketei dagozkie. Hauxe da taula, aurreko ekitaldiarekiko alderaketa ere biltzen duena:

	Euroak, milakotan	
Zerga-zordunak (saldo hartzekodunak)	2014-12-31	2015-12-31
Errentaren gaineko zerga	3.950	3.680
Sozietateen gaineko zerga	67.628	11.379
Balio erantsiaren gaineko zerga	174.020	99.828

Ikusten den bezala, nabarmen jaitsi dira ordainketa agintzeko dagoen sozietateen gaineko zergaren eta BEZaren itzulketak.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago 2014ko ekitaldiaren kontabilitate-itxiera 2015eko urtarilaren 12an egin zela; 2015ekoa, berriz, 2016ko urtarrilaren 25ean egin zen. Itxiera-datetan dagoen aldeak eragina izan du saldo horietan.

Aurrekontuz kanpoko zordunak, beste zordun batzuk eta kaudimen gabetasunetarako hornikuntza

Aurrekontuz kanpoko zordunen barruan 5,86 milioi sartzan dira, AHTaren Nafarroako korridoreari dagokion gastuaren kontzeptuan; izan ere, ADIFen eskutik kobratu beharrekoak dira. 2014an, 16,79 milioi ziren.

Beste zordunen artean, nabarmenezkoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua –CATen eta kontabilitate orokorraren arteko lotura-kontua–, zeinak 3,37 milioiko saldoa baitu; 2014an, ordea, 14,52 milioi zituen. Ganbera honen aurreko txosten batzuetan aipatzen zen bezala, zenbateko horrek ez du behar besteko euskarririk; gainera, ez ez dira ezagutzen ez haren jatorria ez aurreko ekitaldiarekiko –11,50 milioi– jaitsieraren justifikazioa ere. Kontu horren saldoa guztiz hornituta dago.

Kaudimen gabetasunetarako hornikuntzaren saldoa 498,17 milioikoa da 2015eko abenduaren 31n, eta ehuneko 98 tributu-zordunei dagokie.

Kontabilitate tratamendua

Zergen eta gainerako diru-sarreraren kontabilitate-tratamenduari eta eskualdaketari eta hirugarrenen kontabilitate lagungarriaren (CAT) eta GE'21 kontabilitate-sistemaren arteko loturari dagokienez, aurreko txosten batzuetan adierazitakoa errepikatu behar dugu, bi sistemen artean dauden disfunczioei dagokienez; izan ere, horri konponbidea emateko, Ganbera honek gomendatu izan duen bezala, premiazkoa da kontabilitate-informazioaren trazabilitatea handiena bermatzea; halaber, aipatzen da zergen eta zordunen eta tributu-hartzekodunen kontabilitate-tratamendu egokirako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra dauzkan kontu eta irizpideak beren zabaltasun guztiarekin aplikatu behar direla.

Aurrekontu-likidazioak eta egoerari buruzko balantzeak ez dute zuzen jasotzen tributuei buruzko informazioa. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldi-tako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitortutako eskubideak, zorraren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpideez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen, kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ez eta likidatu gabeko interes eta gainkarguak eta aplikatzeko dauden kobrantzak ere; izan ere, horiek zordunen saldotik kentzen dira, eta balantzearen pasiboan erregistratu beharko lirateke, aurreratutako diru-sarrera eta zordun gisa, hurrenez hurren.

Balantzearen pasiboan, eta zergen itzulketa dela-eta dauden aurrekontu-hartzekodunen eta beste hartzekodunen barruan, tributu-zordunen saldo hartzekodunak erregistratzen dira CATen informazioaren doikuntza baten bitartez. 2015ean, doikuntza orokorra 152,33 milioikoa izan da.

Kontu orokorraren egoerari buruzko balantzea lortzen da kontabilitateko aplikazio informatikoko egoerari buruzko balantzean oinarrituta, kontabilitatez besteko doikuntza bat eginez hirugarrenen kontabilitate laguntzaileko zordunei eta hartzekodunei buruzko zerga-informazioarekin.

Aurreikusita dago CATen eta GE'21 sistemaren arteko lotura berria 2018ko ekitaldian aplikatzea.

Azkenik, emaitzen kontuak 50,61 milioi euroko kargu bat jasotzen du, zerga-zorren preskripzioei eta kitei dagokiena¹⁴

Nafarroako Gobernuak zergen-itzulketan berandutze-interesengatiko eta oker egindako diru-sarrerengatiko 0,5 milioiko gastu bat aitortu du.

Gure gomendioak:

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (CAT) sistemaren eta kontabilitate orokorraren sistemaren arteko koordinazioa hobetzeko prozesua amaitzea.*
- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean tributu-zordunei eta -hartzekodunei ezarritako irizpideak eta kontabilitate-kontuak beren zabaltasun guztiarekin aplikatzea.*
- *Zerga-zordunen saldo justifikatu gabeak aztertzea eta, kasua bada, haiek erregularizatzea.*

¹⁴ Berriki, Kontuen Ganberak txosten bat eman du 2008tik 2015era doan aldiko zerga-zorren preskripzioei buruz.

IV.11. BESTELAKO KUDEAKETA-ARLOAK

Transferentzien ondoriozko gastuak

Transferentzien ondoriozko gastuen lagin bat aztertuta, hauxe nabarmentzen dugu:

- Abintestato gisako edo testamenturik gabeko legezko oinordetzen banaketa. Guztira 0,85 milioi banatu dira irabazi asmorik gabeko entitateen artean, 2013ko testamenturik gabeko eta deklaraturako oinorderik gabeko oinordetzei dagozkienak, foru araubideari jarraituz Foru Komunitateko Administrazioaren ondarrerako likidatu beharrekoak likidatu ondoren. Banaketa hori, oinordetzaren 11 kausatzaileraren bidez gertatu dena, egin beharra dago Nafarroako eta haren udal-etako erakunde sozialei zati berdinak emanez. Horren ehuneko 75 honako erakunde hauei egokitu zaie:

	Euroak, milakotan
Abintestato oinordetzen banaketa	Zenbatekoa
Iruñeko Erruki Etxea	297
Ilundain Haritz Berri fundazioa	72
Xilema Fundazioa	53
Hermanitas de los Pobres	50
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritas	36
- Nafarroako "Nuevo Futuro" elkarte	35
ANFAS	34
Nafarroako Kutxa Banku-fundazioa	33
Espainiako Gurutze Gorria	32

Espedientea aztertuta, ikusi da erregulazio-aradiaren arabera izapidetu dela.

Bestalde, zehaztu beharra dago uztailaren 1eko 10/2016 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea ezartzen duenak, besteak beste ezarri duela oinordetza horien emaitza Foru Administrazioaren diruzaintzan sartuko dela eta gastu soziala finantzatzeko erabiliko dela.

- Audenasaren merkataritza-politikarengatik transferentzia, 12,85 milioiko gastua duena. 2014ko abendutik 2015eko azarora bitarteko hilabetei dagokie. 2014ko eta 2015eko abenduko fakturak 1,30 eta 1,41 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoari egindako transferentzia, 52,44 milioikoa, Nafarroako Gobernuarekin sinatutako urteko hitzarmenaren arabera gauzatu zen. Nabarmendu beharra daukagu 2016an oso aurreratuta dagoela 2017-2020 aldirako finantzaketa egonkor bat bermatuko duen urte anitzeko hitzarmenaren definizioa. Aurreikusita dago finantzaketa hori lotuta egotea haren egiturarekin eta irakaskuntzaren eta ikerketaren arloko helburuak edo emaitzak lortzearekin.

- Ekintzailtza planaren lineetatik, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna sustatzera bideratutakoak –26 milioi– eta enpresa berriak sortzeko laguntzekoa –19 milioi– berrikusi ditugu. Oro har, emateko eta justifikatzeko espedientea aplikatzekoa den araudiaren arabekoak dira. Halaber, enpresak sortzeko laguntzei dagokienez, 118 onuraduni eman zaizkio, 3.000 euroko gehienekoarekin. Nabarmendu nahi dugu nolako administrazio- eta kudeaketa-zama daukaten halako zenbatekoa duten diru-laguntzak emateak, jarraitzeak eta kontrolatzeak.

- Halaber, diru-sarreraren aurrekontuari egotzitako diru-laguntzen itzulketen lagin bat berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu itzulitako zenbatekoak –printzipala eta interesak– araudi indardunaren babesean eman direla.

Inbertsioetako gastuak

Inbertsioetan egindako gastuaren berrikuspena egin ondoren, honakoak nabarmentzen ditugu:

- Inbertsioetan egindako gastua 91,86 milioikoa izan da, aurreko ekitaldian baino ehuneko bi gutxiago. Aurrekontuak 131,50 milioiko hasierako kredituak eman zituen, baina beherantz aldatu ziren eta 35,70 milioitan ezarri ziren; horietatik 29 milioi AHTaren obrei zegozkien.

- 2008tik kapitulu honetan egindako gastua aztertuta, ikusten dugu ehuneko 70 egin duela behera, 205 milioitik 92 milioira.

- 2015eko ekitaldiko inbertsio nagusiak honako hauei dagozkie: errepideak -35,85 milioi-, lantalde medikoak -8,90 milioi-, aplikazio informatikoak -8,47 milioi- eta AHTaren obrak -8,60 milioi-.

- Berariaz, honako kontratu hauek berrikusi ditugu berariaz:

Euroak, milakotan

Xedea	Mota	Prozedura	Lizitazaile kopurua	Lizitazio-prezioa	Zenbatekoa esleipenarena	Gastua 2015-12-31n betearazitakoa
Sarrigurengo ikastetxe berriaren 2. fasea ⁽¹⁾	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti/Urgentzia	14	2.515	1.849	93
Aparejadorearen obra zuzendaritza, Sarrigurengo ikastetxerako obrak direla eta ⁽¹⁾	Laguntza teknikoa	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	9	49	16	-
Orkoiengo ikastetxe publikoaren 3. fasea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti/Urgentzia	14	994	787	786
Orkoiengo ikastetxeko proiektua egokitzea eta obra-zuzendaritza	Laguntza teknikoa	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	5	27	24	24
Izurdiagako trenbide-pasagunea kentzea ⁽¹⁾	Obrak	Irekia, Europako mugaren azpitik	13	3.746	2.622	749

(1) 2015eko abenduaren 31n amaitu gabeak

Oro har, aztertu diren kontratazio-espeditenteak esleitu eta betearazi ziren kontratuei buruzko legediaren arabera eta haietatik heldu diren gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude. Halaber, alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

a) Udal ikastetxeetako obrak izapidetzeko dagoen urgentzia ikastetxeen irakaskuntza premiak direla-eta justifikatzen dira.

b) Obra-kontratuetan batez besteko baja bat ikus daiteke, lizitazio-prezioaren ehuneko 25 ingurukoa.

c) Lizitazaileekiko egiazko negoziazio bat dago aztertutako laguntza-kontratuak direla eta.

d) Zenbait obra-ziurtagiri ordaintzeko legezko epea gaindituta ordaintzen dira, baina ez dago jasota esleipen-hartzaileei berandutze-interesik ordaindu zaienik.

- Bestalde, aipatu beharra daukagu Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko 20/2013 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak jaso zuela sektore publikoko kontratazio-organismoek Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman nahitaez argitaratu behar dituztela bai kontratu publikoetako lizitazioen deialdiak, bai eta deialdi horien emaitzak ere. Argitaratze hori zuzenean nahiz interkonexio telematikoaren bitartez egin daiteke.

Nafarroako Foru Komunitateak ez du Nafarroako Kontratazio Atariaren eta Plataforma horren arteko aipatutako interkonexioa egin, eta horrek kualitatiboki eta kuantitatiboki nahiko murrizten

du nahitaezkoa den eta eskatzen den publizitatea, kontratuetan gardentasunaren oinarritzko printzipioa aplikatuta.

- Azkenik, txosten hau idazteko garaian, Foru Komunitateko Administrazioak, zeinak esleituta baitaizka kontratazio publikoaren araupetzearen arloko eskumen osoak, ez ditu kontzesioen eta kontratazio publikoaren arloko Europako zuzentarauak Nafarroara irauli. Iraultze hori egiteko epea 2016ko apirilaren 18an amiatu zen, eta hura ez betetzeak zalantzak eta segurtasun juridikoaren falta eragin ditzake.

Gure gomendioak:

- *Kontratazio publikoaren gardentasunaren printzipioa aplikatzearen ondorioetarako, behar diren jarduketak egin behar dira Nafarroako Kontratazio Atariko informazioa interkonexio bidez sardadin Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman.*

- *Kontratu publikoei buruzko beste foru lege bat onestea, arloari buruzko zuzentarau europarreri egokitua.*

Diruzaintza

2015eko abenduaren 31ko diruzaintza 61,97 milioikoa da, eta honako kontu mota hauetan dago:

Euroak, milakotan			
Diruzaintza	2014-12-31	2015-12-31	Aldea (%)
Kontu korrante operatiboak	10.037	10.395	4
Inbertsio-kontu finantzarioak	155.669	51.576	-67
Kreditu-kontuak	9	0	-100
Guztira	165.715	61.971	-37

Hau da, diruzaintza-saldoak ehuneko 37 jaitsi dira, eta horrek ia 104 milioikoa den kopurutik behera dago. Funtz likidoen beheratze horrek eragina du, besteak beste, diruzaintza-gerakinaren kalkuluan.

Aurreko funtsek 0,14 milioiko interesak sortu dituzte; 2014an sortutakoak, berriz, 1,3 milioikoak izan ziren.

2015ean zehar, ez da eperako ezarpenik itundu.

Era berean, 2015ean, kredituetan guztira 550 milioi itundu ziren epe laburreko diruzaintza-beharrei aurre egiteko; halere, ez zen iritsi 100 milioiko kreditua erabiltzera. Eragiketa horien finantza-kostua 0,37 milioikoa izan zen. 2014an, behar horiek 250 milioiko kreditu-lineak eskatu zituzten, bai eta 0,56 milioiko finantza-kostu bat ere.

Kasu batzuetan, aurreko kreditu-kontuak inbertsio-kontuen bitartez erabil daitezke; beste kasu batzuetan, kontu horien aldeko saldoak hitzartutako interes tasa batekin ordaintzen dira; hartara, 2015ean, 6.238 euroko diru-sarrerak lortu dira.

Ibilgetu ez-finantzarioa

Ondare-masaren 2015eko saldoa eta haren eta aurreko ekitaldikoarekiko alderaketa honako taula honetan ageri direnak dira:

Euroak, milakotan		
Ibilgetu ez-finantzarioa	2014-12-31	2015-12-31
Lursailak eta eraikuntzak	1.431.370	1.467.315
Instalazio teknikoak eta makineria	66.726	68.400
Tresneria eta altzariak	364.229	301.320
Bestelako ibilgetua	245.228	345.764
Ibilgetu ez-finantzarioa, guztira	2.107.553	2.182.799

Ekitaldiko eragiketa aipagarriena eta bereziena da Club Atlético Osasunaren higiezin on-dare-masari alta ematea izan da. Izan ere, ondasun horiek tributu-zorraren ordainketan emanda-koak dira, 26/2014 Foru Legea aplikatuta. Foru lege horren arabera, entregatutako ondasunak guztira 43,05 milioitan baloratu dira; hona hemen horren xehetasunak:

	Euroak, milakotan
Club Atlético Osasunak ordainketan emandako ondasunak	Zenbatekoa
Iruñeko Sadar futbol-zelaia	23.543
Iruñeko bi etxebizitza	404
Iruñeko lursail bat	648
Taxoareko instalazioak	14.449
Taxoareko etorkizuneko enpresa-parkeko orubea	4.002
Ondasunak, guztira	43.046

Ondasun horiek eskrituratu egin dira, eta eskritura Jabetzaren Erregistroan inskribatu da. Gero, alta eman zaie Nafarroako Gobernuaren inbentarioan. Sadar futbol-zelaia eta Taxoareko instalazioak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari atxiki zaizkio; gainerako ondasunak, berriz, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari.

Alabaina, aurreko zenbatekoa tasazioaren guztizko balioari dagokio ere, klubak hirugarrenen alde hartutako betebeharrak deskontatu behar dira, hain zuzen ere ondasun horiekin bermatuta daudenak. 10,87 milioi egiten dute guztira. Zenbateko hori "Club Atlético Osasunaren ondasunen epe luzeko ibilgetuaren hornikuntza" izeneko kontuaren balantzeko pasiboan islatzen da, epe luzeko hartzekodunen on-dare-masaren barruan. Klubak hirugarrenetik betebeharrak bete dituela ziurtatzen duenean, hornikuntza hori ezeztatuko da.

Klubarekin gauzatu egin dira Sadar futbol-zelaiaren doan lagatzeari eta Taxoareko kirol-instalazioen errentamenduari buruzko Foru Legean jasotako gainerako konpromisoak. Halaber, 2016an, etxebizitzetako bat Eskubide Sozietateko Departamentuari atxiki zaio, bere etxebizitza sozialeko politikarako, eta bestea enkante publikoan saldu da.

Aurreko eragiketaren osotasunak 43 milioiko doikuntza negatibo bat dakar finantzaketa-beharren kuantifikazioan, aurrekontu-egonkortasunaren araudiaren ondorioetarako.

2015ean, Nafarroako Larrialdi Agentzia desegitearen ondorioz, haren ondasunen desatxikitze bat egin da, eta haren ondasunak inbilgetuan birsailatu egin dira: 20 milioi inguruko birsailkatze bat izan da hori.

2014an, halaber, AHTaren kontabilizatzeko irizpideak aldatu ziren; hori dela eta, haiek jada ez dira erregistratzen bidean den ibilgetu materialean, finantza-ibilgetuan baizik.

Bestalde, indarrean jarraitzen dute arlo honi buruz Kontuen Gangeraren aurreko txostenetan jasotako iruzkinak, zeinak, funtsean, honako hauei buruzkoak baitira:

- Erabilera edo zerbitzu publikoko azpiegituretan egindako inbertsioak eta ibilgetu ukiezinak ez daude jasota balantzearen ibilgetuan; izan ere, ibilgetuaren galeren kontzeptuan izandako emaitza ekonomikoari egozten zaizkio. Kargu horren zenbatekoa 50,24 milioikoa izan da guztira 2015ean.
- Ondasunen lagapenak eta atxikitzeak ez dira erregistratu, salbu eta Gobernu-egituraren eta haren erakunde autonomoen barruan egindakoak.
- Ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.
- Ez dago jasota aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen eta inbertsioen inbentario orokor bat dagoenik. Ondare Zerbitzuak egindako inbentarioaren ardatza, funtsean, lursailak eta eraikinak dira, eta irizpide juridikoekin eta haiek fisikoki identifikatzeko irizpideekin gauzatzen da.

Kontabilitate publikoko plan berriaren ezarpenaren esparruan, une egokia izan daiteke salbuespen horri konponbidea emateko Nafarroako Gobernuaren kontuetan, bai eta harentzako tratamendu informatikoa ezartzeko ere.

Bestalde, 2014ko maiatzean, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen aldaketa bat onetsi zen. Hartan, bestak beste, 121.1.f) artikulua aldatu zen, kontabilitate publikoko printzipioak arautzen dituen, eta ezarri zen ezen Gobernuaren ondasunen barruan azpiegiturak eta erabilera publiko edo orokorreko gainerako ondasunak sartuko direla, haiek erosi zireneko prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera baloratuta.

Gure gomendioak:

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria bere zabaltasun osoan aplikatzea ibilgetuaren eragiketei dagokienez.*

- *Nafarroako Foru Komunitateko ondasunen eta eskubideen inbentario oso bat egitea, haien kontabilitate-tratamendurako ezinbestekoa den tresna bat eratze aldera. Inbentario hori halako moduz egin beharko da non kontuan hartuko baitira, irizpide juridikoez gainera, haren kontabilitate-tratamendutik heldu diren beharrak. Horretarako, gehitu beharko dira Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako irizpideak, ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoak egoki baloratu eta bermatze aldera.*

- *Urteko oroitidazkian inbentario horri buruzko informazioa jasotzea, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen aurreikuspenekin bat.*

- *Amortizazioei eta narriatzei buruzko politika bat zehaztea, ibilgetu ez-finantzarioaren elementuen balio-galerari aurre egiteko.*

Beste arlo batzuk

- **Lankidetzaren publiko-privatuaren bidez egindako inbertsioengatik aurrekontu-gastua.** Ganbera honetan eskura dagoen informazioari jarraituz, aurreko gastuak 2015ean 74 milioikoak izan dira, 2014koak baino ehuneko hiru gehiago; hau da, bi milioi gehiago. Gastu hori honela xehakutzen da:

	Euroak, milakotan	
	2014	2015
Lankidetzaren publiko-privatuaren aurrekontu-gastuak		
Bideko autobien kanona	36.323	38.547
Pirinioetako autobien kanona	15.122	14.492
Nafarroako Ubideko ureztalurrak	14.935	15.173
Nafarroako Ospitaleguneko elikadurari buruzko kontratua	5.683	5.840
Lankidetzaren publiko-privatua, guztira	72.063	74.052

Gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko kontu-sailek 11 hilabeteren fakturazioa baizik ez dutela jasotzen (urtarriletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiaren likidazioa ere. 2016an erregistratutako 2015eko fakturen zenbatekoa 4,69 milioikoa da; horietatik, 3,41 milioi Bideko Autobienak dira eta 1,28 milioi, berriz, Pirinioetako Autobienak.

Ospitaleguneko elikadurari buruzko kontratuaren fakturak 2014ko abenduaren 20tik 2015eko abenduaren 20ra doan aldiari buruzkoak dira.

- **Farmako**en gastua. 2015ean, Gobernuak guztira 94,29 milioi gastatu ditu farmakoetan, aurreko ekitaldian baino ehuneko 14 gehiago. Gastu horren ehuneko 81 Nafarroako Ospitalegunean egiten da eta ehuneko 12, berriz, Reina Sofía Ospitalean.

Ekitaldiaren itxieraren arrazoizkotasuna aztertu da, milioi bat eurotik gorako gastua duten 23 hornitzaileei (guztira 244 hornitzaile daude) dagokeinez. 23 horien zenbateko metatuta 77,91 milioikoa da. Ikusten dugu 2015eko data duten fakturak, 1,48 milioi egiten dutenak, 2016ko aurrekontuari egotzi zaizkiola; faktura horiek aurrekontuari aplikatzekoak diren eragiketengatik hartzekodunetan erregistratuta daude.

• **Osasun-hitzarmenengatiko gastuak** 2015ean, osasun-hitzarmenengatiko gastuek 64,7 milioi egin dute, hain zuzen ere aurreko ekitaldian baino ehuneko 15 gehiago; hau da, 8,39 milioi gehiago.

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan diren kontu-sailen zenbatekoa eta aurreko urtekoarekiko alderaketa:

Osasun itunak	Euroak, milakotan		
	2014	2015	15/14 (%)
Metabolopatiaren arloko osasun-laguntzarako hitzarmena	0	90	-
Osasun laguntza beste zentro batzuetan	3.162	3.456	9
San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako osasun-laguntza	17.017	19.342	14
Dialisia etxean egiteko itunak	1.087	1.702	57
Oxigenoterapiako itunak	3.076	2.590	-16
Unibertsitate Klinikarekiko itundutako osasun-laguntza	8.973	10.808	20
Organoen transplantateak	6.037	8.295	37
Esparru-akordioa, itxarote-zerrendengatik pazienteak bideratzekoa	1.344	1.408	5
Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmena	5.097	5.111	-
San Miguel Klinikarekin itundutako osasun-laguntza	1.944		-100
Protesiak direla-eta osasun-laguntza emateko itunak		2.400	-
Josefina Arregui osasun mentaleko zentroarekiko ituna	1.234	1.310	6
Osasun mentaleko zentroekiko itunak	3.377	4.293	27
Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziarekiko programak, proiektuak eta koordinazioa	1.460	1.483	2
Ahoko eta hortzetako osasun-programa	2.500	2.415	-3
Itunak, guztira	56.308	64.701	15

Aurreko gastua 255 hornitzaileri dagokie; horietatik zazpi milioi batetik gorako gastua dute.

Nafarroako Unibertsitateak -26,5 milioi- eta San Juan de Dios Ospitaleak -19,8 milioi- guztizko gastuaren ehuneko 72 justifikatzen dute.

Nafarroako Unibertsitateak, 2015ean, honako zerbitzuak eman ditu: sistema orokorretik heldutako gaixoen osasun-laguntza -10,8 milioi-; organoak transplantatzeko zerbitzuak -8,3 milioi-; bere langileen osasun-laguntza -5,1 milioi-; protesiak -1,5 milioi-; eta itxaron-zerrendetako gaixoen deribaziorako esparru-akordioaren barrukoak -0,8 milioi-. 2014arekin alderatuz gero, gastuak ehuneko 28 egin du gora.

San Juan de Dios Ospitaleko gastua ia osorik osasun-laguntzarako berariazko kontu-saileko gastuei -19,3 milioi- eta ekografia-gastuei -0,4 milioi- dagokie. 2014ko gastuarekin alderatuta, ehuneko 13 egin du gora.

Milioi bat euro baino gehiagoko hornitzaileei buruz egindako berrikuspenean, ikusten da 2015eko itunengatiko gastu batzuk 2016ra eraman direla: 0,52 milioikoak dira. Faktura horiek aplikatzeko dauden eragiketen zordunetan erregistratuta daude.

• **Finantza-aktiboen arloko gastu-eragiketa** nagusi gisa, honako hauek aipatu behar ditugu: Canal de Navarra SA sozietateari 8,5 milioiko aurrerakin bat ematea; CPENren bi kapital-gehikuntzatarako 15,67 milioiko gastua; eta CPENren beste kapital-gehikuntza baterako 4 milioiko gastua, zeina ekitaldiaren amaieran izapidetzen ari baitzen.

2015eko abenduaren 31n, Canal de Navarraren aurrerakinak 17 milioikoak dira.

• **“Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak”** kontuak 6,45 milioi saldoa du 2015eko abenduaren 31n. Hurrengo taulan haren xehakitzea eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa erakusten ditugu:

	Euroak, milakotan	
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak	2014-12-31	2015-12-31
Fakturen erregistroa	2.781	5.721
Fakturen erregistroa-Osasuneko modulua	875	732
Saldoa, guztira	3.656	6.453

Fakturen erregistrarako FACE plataforma informatikoa 2015eko maiatzetik aurrera ezarri zen, fakturen kontrol eta jarraipen elektronikoa egiteko eta ekitaldiaren amaieran aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak erregistratzeko.

Ikusten da erregistro horrek data horretatik aurrera hobeki funtzionatzen duela. Horrek aukera eman du, fakturak modu telematikoan kontrolatzeaz gainera, ekitaldiaren itxieran aurrekontuari egozteko daudenen bolumen handiagoa identifikatzeko. Hala eta guztiz ere, oraindik ere ez da amaitu amaierako saldoa osatzen duten fakturak identifikatu eta berrikusteko prozesua.

Aurrekontuari aplikatzeko dauden hartzekodunen kontua kapitulu ekonomikoaren arabera azpikontutan xehakitzen da kontabilitatearen ikuspuntutik. Hartan ageri diren karguen guztizkoa ia 800 milioikoa da; abonua, berriz, 806 milioikoa dira.

2015eko abenduaren 31ko saldoa, aurrekontu-kapituluen arabera, funtsean honako kapitulu hauetan zentratzen da: 2. kapitulua -4,96 milioi-, 4. kapitulua -0,69 milioi- eta 6. kapitulua -0,79 milioi-.

Aurreko hasierako eta amaierako saldoen arteko diferentziak, 2,8 milioi, doikuntza negatibo bat dakar, kontabilitate nazionalen terminoetan, ekitaldiko finantzaketa-beharren kalkuluarik gabekionez.

IV.12. SOZIEKATE PUBLIKOAK ETA CPEN ENPRESA-TALDEA

Sozietate publikoak

Sozietate publikoak 16 ziren 2015ean, 2014an bezalaxe. Haien urteko kontuen arabera, 2015eko adierazle metatu nagusiak eta haien aurreko ekitaldikoekiko alderaketa honako taula honetan ageri direnak dira:

(Euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietate publikoen adierazle metatuak	2014	2015
Ondare garbia	883.654	853.321
Epe luzerako zorrak	252.002	225.135
Epe laburreko zorrak	40.899	34.172
Negozio-zifraren zenbateko garbia	137.379	133.673
Nafarroako Gobernutik jasotako ustiakarako diru-laguntzak	6.681	7.367
Langile-gastuak	44.941	48.454
Epe laburreko ezarpenak eta errenta finkoko funtsak	92.839	100.832
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	31.672	35.633
Maniobra-funtsa	316.734	298.970
Ekitaldiko emaitza	3.359	-59.894
Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak	63	37
Goi karguen kopurua (A)	13	11
Gainerako enplegatuen kopurua (B)	1.023	1.050
Langileen kopuru osoa (A+ B)	1.037	1.061

Aurreko taula aztertuta eta berrikupena eginda, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Zorpetzea. Sozietate publikoen epe luzeko eta epe laburreko guztizko zorpetzea ehuneko 11 jaitsi da; hau da, 33,59 milioi txikiagoa da. 2015ean, 259,31 milioikoa da. Horren xehetasunak ondoko taulan agertzen dira:

Euroak, milakotan				
2015eko zorpetzea	Finantza-entitateak	Taldeko enpresak	Beste batzuk	Guztira
Epe luzerako zorrak	156.721	24.772	43.642	225.135
Epe laburreko zorrak	19.927	3.985	10.260	34.172
Guztira	176.648	28.757	53.902	259.307

Nabarmentu behar dugu guztizko zenbatekotik 176,65 milioi finantza-entitateekiko zorpetzeari dagozkiola; zenbatekoa hori 31,56 milioi txikiagoa da 2014koa baino.

"Beste batzuk" atalean, aipagarriena delakoan, NILSA sozietatearen "Berrezarpenetarako eta Konponketarako Funtsaren Plan Zuzendaria" aipatu behar dugu, zeinak 2015ean 23,58 milioi baitauzka (2014an, berriz, 21,03 milioi izan zituen).

- Negozio-zifrak ehuneko hiru egin du behera; hau da, 3,71 milioi gutxiago dauzka. Aldaketa aipagarrienak Nasuvinsan ikus daitezke –bere zifra sei milioi handitu du–, bai eta NEKPn ere –magnitute hori bederatzi milioi baino gehiago jaitsi du–.

• Nafarroako Gobernutik jasotako ustiaketarako diru-laguntzak. 2015ean, sozietateen urteko kontuei jarraituz, horiek, ustiaketetarako diru-laguntzetan, 7,37 milioi jaso dituzte guztira Nafarroako Gobernutik; hain zuzen ere, 2014an jasotakoa baino ehuneko hamar gehiago. Diru-laguntza horiek, funtsean, honako hauetan zentratzen dira: INTIAN –5 milioi– eta Nansuvinan –1,05 milioi–.

- Epe laburreko kaudimenaren egoerak ona izaten jarraitzen du sozietate publikoen guztizkoan, haren maniobra-funtsaren bilakerari buruzko azterketatik eta epe laburreko eta diruzaintzako finantza-inbertsioetatik ondoriozta daitekeen bezala.

• 2015eko langile-gastuak ehuneko zortzi handitu dira. Horien barruan sartzen da 2012ko abenduan kendutako aparteko soldataren ehuneko 24,04, 0,59 milioi egiten duena, bai eta ordaintzeko dauden ordainsariak ere, zeina soldata haren ehuneko 26,23 baita, hain zuzen ere 2016ko urtarrilean ordaindutakoa eta 0,61 milioi egiten dutena; halaber, NEKP sozietatean, goi-zuzendari bat kargutik kentzearengatik kalte-ordainetik heldutako gastu bat badago, 98.776 eurokoa.

Sozietate publikoetako langileen batez besteko zenbateko orokorrak ehuneko bi egin du gora, hau da, 24 lanpostu gehiago daude. Horrekin, 1.061 langile daude, goi-zuzendaritzako karguetan dihardutenak barne. Sozietateen arabera, igoerarik handiena dutenak GAN –22 langile gehiago– eta Tracasa dira –12 langile gehiago–; GANen igoera funtsean heldu da kaleratze kolektiboko espediente batek ukitutako langileak berriz hartu behar izatetik.

Hiru sozietatek ez dute langilerik: Posusa, Natural Climate Systems eta START UP dira.

2015eko urrian, Nafarroako Gobernuak NEKPn sartutako sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileak berriz banatzeko irizpide berriak erabaki zituen. Hartara, alde batetik, helburuen arabera haiek jasotzen zuten lansari aldakorra kentzen da –ehuneko 15etik ehuneko 50era bitarteko soldata-igoera ekar zezakeen–; bestetik, soldataren urtean 2.750 eta 8.250 euro gordin bitarte handitzen zaie zenbait sozietateetako kudeatzaileei, kudeaketaren konplexutasunaren arabera; araupetze horretan, zuzendari kudeatzaileek jasotzen dituzten ordainsariak urtean 55.000 eta 85.250 euro gordin bitartekoak dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernu berria sartzearekin, NEKPko kudeatzailea kargutik kendu zen, eta ez da kudeatzaile berririk izendatu. Koordinatzaile bat izendatu da, zeina haren zuzendari finantzario eta kontrolkoa baita.

- Enpresa publikoen multzoak 2015ean lortutako emaitzak 59,89 milioi negatiboak izan dira; 2014an, berriz, 3,36 milioiko emaitza positiboa izan zen, sozietateen arabera xehakaturako hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

Euroak, milakotan		
Enpresa	2014. emaitza	2015. emaitza
NEKP-banakakoa	-78	-11.366
NASUVINSA	-4.477	-26.759
Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria	-2.557	-2.420
INTIA	7	-2.641
GAN	50	-2.774
NILSA	0	0
NICDO	-6.331	-4.363
CNAI	-62	-20
NASERTIC	515	-2.170
CEIN	-124	-1.655
TRACASA	829	1.008
SODENA	14.853	-8.569
NATURAL CLIMATE SYSTEMS	-255	-164
POSUSA	74	626
SALINAS DE NAVARRA	1.329	1.591
START UP	-414	-218
Emaita metatua, guztira	3.359	-59.894

Ikus daitekeen bezala, hiru enpresak baizik ez dute etekinik izan ekitaldian zehar: Salinas de Navarra, Tracasa eta Posusa. Galera handienak dituztenen artean, honako hauek aipatu behar ditugu:

a) Nasuvinsa. 2014ko urtearen aldean galerak handitu egin dira, eta horren arrazoia da, funtsean, lehengaietan, produktu amaituetan eta higiezinetak inbertsioetan izandako narriatzeek eta galerek gora egin dutela.

b) NEKP. 2014ko urtearen aldean galera handiagoak izan dira, eta hroren arrazoia da, funtsean, kapitaleko partaidetzen (dibidenduak) bidezko diru-sarrerak 9,4 milioi jaitsi direla; hartara, hurrengo taulan ikus daiteke zein izan den diru-sarrera horien bilakaera bi ekitaldietan:

Euroak, milakotan		
NEKP- Kapitaleko partaidetzengatik diru-sarrerak	2014	2015
NASUVINSA	12.500	-
NASERTIC	-	1.000
AUDENASA	5.972	8.060
MERCAIRUÑA	11	11
Dibidenduak, guztira	18.483	9.071

c) Sodena. 2014ko emaitza positiboaren arrazoia da, funtsean, Iberdrolaren akzioen salmentatik heldu diren etekinak, 33,35 milioioak; 2015ean, 4,59 milioioak izan dira finantza-tresnen besterentzeetatik heldutako emaitzak.

d) Naserticen, galerak hiru milioi handiagoak izan dira, funtsean merkataritza-eragiketen horniduretan izandako narriatzearengatik eta aldaketarengatik; horiek heldu dira, batez ere, LTDaren toki urrunetan eta gutxi urbanizatueta zabaltzetik eta mantentzetik.

• 2015ean, NEKP sozietate nagusiaren kapital sozialak bi kapital-handitze izan ditu, Foru Komunitateko Administrazioak guztiz izenpetu eta ordaindutakoak:

a) 2015eko ekainean, 4,27 milioiko kapital-handitzea, Nafarroako Ubidearen obrak finantzatzeko.

b) 2015eko abenduan, 11,40 milioiko handitze bat, Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria sozietate publikoa birfinantzatzeko.

Halaber, 2015eko abenduaren 31n, NEKPren beste kapital-handitze bat izapidetzen ari zen, lau milioikoa; haren xedea da Nasertic sozietatearen ondarea sendotzea. Aipatutako ekitaldiko kontu orokorrak onesteko garaian –2016ko ekaina–, handitze hori guztiz formalizatuta dago.

- 2015eko ekitaldian, NEKP sozietateak ekarpenak egin dizkie sozietate publikoei, galerak konpentsatzeko eta diruzaintza-beharren 17,1 milioi estaltzeko; hona hemen xehetasunak:

	Euroak, milakotan
NEKP-Bazkide gisa honako hauei egindako ekarpenak	2015eko ekitaldia
GAN	550
CEIN	1.500
Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria	11.400
NICDO	3.600
CNAI	30
Ekarpenak guztira	17.080

2014an, ekarpen horiek 15,10 milioikoak izan ziren, eta funtsean Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiriaren sozietatera –11 milioi– eta NICDOra –4,70 milioi– bideratu ziren.

Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria enpresari egindako ekarpenak haren zorra amortizatza eta birfinantzatza bideratu ziren.

- 2015eko ekitaldian zehar, Nasuvinsa enpresak Natural Climate Systems sozietatearen kapitalaren ehuneko 100 eskuratu zuen. Ordura arte, sozietatearen akzio-multzoaren osaera honako hau zen: Nasuvinsa –ehuneko 34,50–, Sodena –ehuneko 31,50– eta beste akziodun batzuk –gainerako ehuneko 34a–.

- Sodena sozietateak, 2015ean, hirugarrenei emandako abaletan, 118,52 milioi dauzka; 2014an baino ehuneko 20 gutxiago da hori. Abal horien barruan, 1,75 milioi taldeko enpresentzat eta enpresa elkartuentzat dira.

- NICDO sozietateak 2014an erreklamazio prozesu bat hasi zuen Nafarroako Zirkuituaren eraikuntzaren arduradunen aurka, hartan ekitaldian zehar egindako konponketa-lanengatik. Lan horiek lau milioi euro egin zuten. 2015ean, sozietateak prozedura judizial bat hasi du, erreklamazio horren aurkako demanda bat aurkeztuz.

- 2015. urtearen amaieran, Moderna fundazioak haren azkentzea erabaki zuen, eta Nafarroako Gobernuak izendatu zuen haren amaierako ondarearen onuradun. Aldi berean, Gobernuak Sodena premiatu zuen Moderna fundazioak sustatzen zituen proiektuekin jarraitu zezan. Sozietatearen administrazio kontseiluak Moderna fundazioaren aktiboak eta pasiboak Sodenari guztiz lagatzea onetsi zuen, eta, horrenbestez, sozietatea subrogatuta geratu zen eskubide eta betebeharrak guztietan, baita lan arlokoetan ere, 2015eko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin. Prozesu horrek berarekin ekarri du sozietateko pantillan zazpi langile gehiago hartzea.

- Nafarroako Gobernuak, bere enpresa publikoentzako konpromiso-gutunaren figuraren bitartez, arrisku batzuk hartu ditu, zeinek 2015eko abenduaren 31n 133,1 milioiko saldoa bermatzen baitute. Saldo hori Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria –30,6 milioi– eta Sodena –102,5 milioi– enpresa publikoei dagozkie. Gutunen bitartez finantza-entitateek enpresa horiei emandako maileguak bermatzen dira. Mailegu horien muga-eguneratzea 2017an eta 2014an izanen dira, hurrenez hurren. 2015ean, ez da izaera horretako eragiketa berririk egin.

- Geroko egitate garrantzitsu gisa, aipatu behar dugu ezen tresna-enpresei buruzko 2014/24/EE zuzentaraua betetzeko, 2016ko martxoan “TRACASA Instrumental” sozietate publiko berria eratu dela, Nafarroako Gobernuaren enkarguak egiteko.

Kontu-auditoriari buruzko txostenak

Sozietate publiko guztiek kontu-auditoriari buruzko txostena aurkeztu dute, enpresa pribatuek sinatua. Datu horiek guztiak aztertuta, honako hauek dira aipagarri:

- Guztira, 14 sozietatek aldaketarik gabeko edo aldeko iritzia lortu dute.
- Bi enpresek aldaketak dituen iritzia lortu dute, salbuespenekin. Honako hauek dira, zehazki:

a) Potasas de Subiza SAU. Salbuespena honako hau da: *“2015eko ekitaldian, Sozietateak teknikari espezializatu bati ingurumen-leheneratzerako plan baterako azterlan bat enkargatu dio. Plan horren arabera, sozietateak egin beharreko jarduketan 3.065 mila eurokoa da. Sozietateak aurreko ekitaldietan kontzeptu horri dagokion pasiboa erregistratu beharko zuen, eta ekitaldi honetan, berriz, azterlanaren eguneratzearen ondorioak, bai eta Salinas de Navarra SA filialak egin beharreko zatiari dagozkionak ere. Epe luzeko hornidurak 3.065 mila eurotan azpibalaratuta daude. Aurreko ekitaldietako emaitzak 3.050 mila euro jaitsi beharko lirateke, eta 2015eko ekitaldiaren emaitza 15 mila eurotan gainbalaratuta dago”.*

b) START UP Capital Navarra SL. Salbuespena honako hau da: *“Balantzeko aktibo ez-korronteko enpresa elkartuen ondare-tresnetan egindako inbertsioen atalean, parte-hartutako sozietate jakin batean egindakoa jaso da, zeinak 263 mila euroko kostua izan baitu. Kostu hori guztiz narriatuta zegoen 2015-12-31n. 2016ko martxoaren 17an, administratzaileek akordio bat berretsi dute, zeinaren arabera partaidetza hori 117 mila eurotan salduko baita. Zenbateko horrengatik erregistratu beharko zen 2015eko ekitaldiaren amaieran, bere balio berreskuragarriari egokitzeko. Horrenbestez, 2015-12-31n, aktibo ez-korrontea eta ekitaldiaren emaitza zenbateko horretan azpibalaratuta daude.”*

- Hiru enpresaren auditoria-txostenarekin batera, azpimarra-lerrokada bat ageri da –2014an ere bazegoena–, honako honi buruzkoa:

a) Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Zentroa (CNAI): Sozietatearen ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa da, eta hori bera desegiteko arrazoi bat da, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legeko 363. artikuluari jarraituz, kapital sozial hori behar adina handitzen edo murrizten ez bada.

2015ean, NEKParen bazkide bakarrak 30.000 euroko ekarpena egin zuen sozietatearentzat, galerak berdintzeko. 2014ko zenbateko bera da.

b) Natural Climate System-MIYABI: Sozietateak, ekitaldiaren amaieran, merkataritza-leggedian bildutako desegite-kasuetako batean dago.

2015eko lehenengo hiru hilabeteetan, Sodena eta Nasuvinsa enpresak, zeinak data horretan partaidetzaren gehiengoa zuten akziodunak baitira, 200.000 euro jarri zituzten aurreko ekitaldietako galera metatuak berdintzeko eta enpresaren ondare-oreka berrezartzeko.

2015eko maiatzaren 31n, Nasuvinsak eta Sodenak erabaki zuten partaidetza-maileguak, ordua arte sortutako interesekin batera, bazkideen ekarpen bihurtzea. Zenbateko hori 501.507 eurokoa da guztira. Azkenik, 2015eko ekainean, Sodenak 31.366 euroko beste ekarpen bat egin zuen.

2015eko abenduaren 31n, bazkideen ekarpen metatuak 1,47 milioikoak ziren.

c) START UP Capital Navarra SL: Sozietatearen ondare garbia dela eta; izan ere, kapital sozialaren erdia ere egiten ez duen kopuru batera jaitsi da. Egoera hori sozietatea desegiteko arrazoi da, haren kapital soziala behar beste handitzen edo gutxitzen ez den bitartean. 2015eko ekainean, sozietateak kapital-murrizketa bat egin zuen, 761.530 eurokoa, ondare-oreka berrezartzeko. Horren ondorioz, hiru milioiko kapital soziala atera zen.

Aurreko hiru enpresen txostenetan, haien administratzaileek urteko txostenetan aipatzen dute akziodunen finantza-babesa edukitzen jarraituko dutela; hori dela eta, jotzen dute funtzionamenduan dagoen enpresa izatearen printzipioa egokia dela urteko kontuak aurkezteko.

Kontu-auditoriako txostenez gainera, NILSA enpresak beste enpresa bati txosten bat eskatu zion, 2015eko ekitaldian Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzendariaren kudeaketari buruz adostutako prozeduren gainekoa. Zehazki, lanaren funtsezko ardatza izan zen honako hauek berrikustea: obren exekuzioa araubide desberdinetan izandako egozpena, aparteko konponketa-tarako funtsaren kargura egindako jarduketetan; planten ustiategien egozpena; isuri industrialak kontrolatzeko plana; sozietatearen egituraren kostuak eta diru-sarrerak planari egoztea; planari saneamendu-kanonaren diru-bilketa egoztea, eta abar. Adostutak prozedurak aplikatzearen ondorioz, honako hau ondorioztatu zuten auditoreek: *ez dugu salbuespenik aurkitu* ”.

Gure gomendioak:

- *Beren eragiketekin jarraitzeko ahalmenari buruzko zalantza nabarmena antzematen diren enpresei dagokionez, haien bideragarritasuna aztertzea bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ikuspuntu sozialetik.*

- *Kontu-hartzaitza Nagusiaren urteko jarduketa-planaren barruan, aldizka sozietate publikoek legea betetzeari buruzko auditoriak egitea.*

Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa enpresa-taldea

NEKParen enpresa taldearen osaera, honakoa zen kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

NEKParen Taldearen osaera	2014	2015
Menpekoak-Sozietate publikoak	16	16
Elkartuak	28	17
Parte hartutako beste batzuk	37	44

Enpresa elkartuen barruan sartzen dira, adibidez, Autopistas de Navarra, Canal de Navarra eta Parque de la Naturaleza de Navarra enpresak.

Azken enpresa horri dagokionez, Kontuen Ganberaren aurreko txosten batzuetan aipatzen zen bezala, uste dugu Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legean jasotako baldintzak betetzen dituela, "enpresa publikotzat" hartua izateko, zeren eta NEKPren partaidetza, Sodenaren bitartekoa, une hauetan kapitalaren ehuneko 44,13koa bada ere, taldearen gaineko kontrolik badago, gainerako bazkideekin¹⁵ izenpetutako hitzarmenen bitartez eta, gainera, Sodena enpresa haren administratzaile bakarra da. Hau da, aurreko inguruabarrek adierazten dute nagusitasun-eragin bat badagoela eta, nolana ere, NEKPren enpresa-taldeak enpresa hori menpean duela eta haren zuzendaritza bakarra dagoela.

Iritzi hori honako egitateak abalatzten du: kontabilitate-araudiaren arabera, NEKPk sozietate hori bateratzen du integrazio orokorraren metodoaren bidez –gainerako sozietate publikoetan bezalaxe–; hau da, haren kontabilitateko egoera-orrietan sartzen ditu menpeko sozietate horren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu, kobrantza, ordainketa eta gainerako kontusailak, dagozkien doitze eta deuseztatzeekin. 2015ean, sozietate horrek 2,93 milioiko galerak eta 37,8 milioiko ondare garbi negatiboa izan zuen; 2014an ere datu horiek negatiboak izan ziren, 2,86 eta 34,87 milioikoak, hurrenez hurren. Ondare garbiaren balio negatiboa heldu da Senda Viva aisiarako parkea funtzionamenduan jarri zenetik izan diren galera jarraituetatik.

NEKPren 2015eko kontu bateratuen auditoria bat egin da, eta kontu horien aldaketarik gabeko edo aldeko iritzia eman da.

¹⁵ Beren erantzukizuna kapital gisa jarritako kopuruetara mugatu duten bazkideak.

Talde bateratuaren 2014ko eta 2015eko ekitaldietako datu ekonomiko-finantzario nagusi gisa, honakoak adierazi behar ditugu (euroak, milakotan, zenbakia dutenetan izan ezik):

NEKP taldearen adierazle bateratuak	2014	2015
Ondare garbia	641.227	615.806
Epe luzerako zorrak	205.376	177.574
Epe laburreko zorrak	37.256	31.810
Maniobra-funtsa	304.920	295.679
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	31.825	42.654
Negozio-zifraren zenbateko garbia	132.643	138.215
Negozio-zifraren ehunekoa, Nafarroako Gobernuarekin batera egindakoa	24	25
Nafarroako Gobernutik jasotako kapitaleko diru-laguntzen saldoa (1)	18.877	17.868
Nafarroako Gobernutik jasotako ustiaketarako diru-laguntzak	7.503	8.294
Langile-gastuak	48.855	52.328
Ustiapeneko emaitza	-5.389	-41.451
Ekitaldiko emaitza bateratua	4.823	-43.869
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	4.606	-44.175
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak (2)	148.340	118.314
NEKPko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	5,2	4,9
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (2)	15	15
Gainerako langileen batez besteko kopurua (2)	1.051	1.089

(1) Zerga-eraginaren ondorengo zenbatekoa

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidez sartutakoak barne (sozietate publikoak gehi Parque de la Naturaleza izenekoa)

Taldearen zorraren barruan, kreditu-entitateekin itundutakoa –epe luzean eta epe laburrean– ehuneko 15 jaitsi da. 2015ean, 177,92 milioikoa da guztira.

Nabarmendu beharra daukagu taldearen ekitaldiko emaitzak modu nabarmenean jasan dituela ondasunen narriatzeak, nagusiki NASUVINSA enpresarena. Halaber, 2014ko emaitzak Iberdrolaren akzioak salduz lortutako etekinak biltzen zituen: 33 milioi inguru¹⁶.

Halaber, nabarmendu nahi dugu NEKPk, menpeko enpresak eta, bereziki, sozietate publikoak direla-eta esleituta dauzkan zuzendaritza- eta koordinazio-eginkizunen barruan, besteak beste esparru-akordioak kudeatu dituela hainbat zerbitzu kontratatzeko: garbiketa, elektrizitate- eta gas-hornidura, auditoria-zerbitzuak, aseguru-polizak eta abar.

Gomendatzen dugu aztertzea ea Parque de la Naturaleza, S.A. sozietateak behar diren baldintzak betetzen dituen enpresa publikotzat hartua izateko, Ondareari buruzko Foru Legearen eta Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.

IV.13. FUNDAZIO PUBLIKOAK

Abenduaren 31n indarrean zeuden lau fundazio publikoen 2015eko urteko kontuak direla-eta auditoriak egin dira, eta auditoreek, kasu guztietan, aldekatari gabeko edo aldeko iritzia eman dute.

Azpi-sektore publiko horren datu metatu nagusiak, 2015eko abenduaren 31n, eta aurreko urtekoekiko alderaketa hurrengo taulan adierazitakoak dira¹⁷ (euroak, milakotan, salbu eta zenbaki bidez adierazitakoen kasuan):

¹⁶ Eragiketa horri buruz, Kontuen Ganberak egindako txostena ikus daiteke: “Iberdrolaren akzioen salerosketa-operazioaren emaitzak”.

Adierazlea	2014	2015
Ondare garbia	2.746	1.820
Epe luzeko zorra	0	0
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	7.356	6.905
Nafarroako Gobernutik jasotako ustiaketarako diru-laguntzak	2.538	2.609
Langile-gastuak	2.783	2.823
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.039	2.804
Maniobra-funtsa	2.173	933
Ekitaldiko soberakina	-617	-1.025
Patronatuko kideetako ordainsariak	0	0
Goi karguen kopurua (A)	3	2
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	73	76
Langileen kopuru osoa (A+ B)	76	78

Taula horretatik, honako hauek dira aipatu beharrekoak:

- Jardueratik bertatik deribatutako diru-sarrerak ehuneko sei jaitsi dira; kontzeptu hori dela-eta nabarmendu behar dira Miguel Servet Fundazioak -3,6 milioi- eta Baluarte Fundazioak -2,8 milioi- 2015ean lortutakoak.

- Nafarroako Gobernutik ustiaketarako jasotako diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak ehuneko hiru handitu dira. Ekarpen handienak egiten dituzten fundazioak Baluarte -1,3 milioi- eta Miguel Servet -0,9 milioi- izan dira.

- Maniobra-funtsa ehuneko 57 jaitsi da. Aipagarrienak Miguel Servet fundazioarenak eta Patrimonio Histórico fundazioarenak dira, ehuneko 67 eta ehuneko 51 jaitsi baitira hurrenez hurren.

- Ekitaldiko soberakin negatiboak ehuneko 66 egin du gora. 2015ean, fundazio guztiek soberakin negatiboa daukate. Nabarmentzekoa da Miguel Server fundazioarena, 0,49 milioikoa baita.

- Langileen batez besteko kopurua bi langiletan egin du gora. Batez besteko enplegatu kopuru handiena duten fundazioak Miguel Servet Fundazioa -66 langile- eta Tutela de Personas Adultas -11 langile- dira.

- Bi ekitaldietako bakarrean ere ez dute ez epe luzeko zorrik.

Gure gomendioak:

- *Kontu-hartzailatza Nagusiaren urteko jarduketa-planaren barruan, aldizka fundazio publikoek legea betetzeari buruzko auditoriak egitea.*

- *Aztertzea ea Miguel Induráin Fundazioak behar diren baldintzak betetzen dituen fundazio publikotzat hartua izateko.*

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

¹⁷ Datu horiek alderagarri bihurtzeko, 2014koetan soilik hartu da 2015eko abenduaren 31n existitzen ziren lau fundazioei dagozkienak.

